

IKER Bilduma / Colección IKER

IKER 20

Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan. Amelia Hernández Matak paratua. 2007.

IKER 21

Jean Haritschelbar-i omenaldia / Homenaje a Jean Haritschelbar / Hommage à Jean Haritschelbar. Batzuk. 2008.

IKER 22

Intelektuala Nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra. Jurgi Kintana Goirienak paratua. 2008.

IKER 23

Juan Mari Lekuona-ri omenaldia / Homenaje a Juan Mari Lekuona / Hommage à Juan Mari Lekuona. Batzuk. 2009.

IKER 24

Agirre Asteasuakoaren Eracusaldia. Sermoiak ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan. Arantza Ozaeta Elorza. 2010.

IKER 25

Elgoibarko Ahozko Euskara. Jesus Mari Makazaga Eizagirre. 2010.

IKER 26

Pirinioetako hizkuntzak: lehen eta oraina. A. Sagarna, J. Lakarra eta P. Salaberri. 2011.

IKER 27

Onomastique du Nord du Pays Basque (Xf-XV^e siècles). Eugène Goyheneche. 2012.

IKER 28

Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan. Aiora Jaka Irizar. 2012.

IKER 29

Koldo Mitxelenaen zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak. Agurtzane Azpeitia Eizagirre. 2012.

IKER 30

Lehen Mundu Gerra «Eskualduna» astekarian. Eneko Bidegain. 2013.

IKER 31

Approche Textologique et Comparative du Conte Traditionnel Basque Dans les Versions Bilingues de 1873 à 1942. Natalia Mikhaïlovna Zaïka. 2014.

IKER 32

Gorbeia Inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak II. Juan Manuel Etxebarria Ayesta. 2016.

IKER 33

Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982. Isabelle Echeverria. 2016.

IKER 34

La politique linguistique de la révolution Française et la langue basque. Egoitz Urrutikoetxea. 2018.

IKER 35

Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954). Anton Ugarte. 2018.

IKER 36

Le dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak, «othoi çato etchera». Xabier Elósegui. 2018.

IKER 37

Eñaut Etxamendiren obra narratiboa (1964-2011): hurbilpen kritikoa. Itziar Madina Elguezabal.



EÑAUT ETXAMENDIREN OBRA NARRATIBOA (1964-2011): HURBILPEN KRITIKOA

iker 37

ISBN 978-84-120766-8-4



9 788412 076684

20€

EÑAUT ETXAMENDIREN
OBRA NARRATIBOA
(1964-2011):
HURBILPEN KRITIKOA



EÑAUT ETXAMENDIREN
OBRA NARRATIBOA
(1964-2011):
HURBILPEN KRITIKOA

EÑAUT ETXAMENDIREN
OBRA NARRATIBOA
(1964-2011):
HURBILPEN KRITIKOA



Itziar Madina Elguezabal

Itziar Madina Elguezabal Euskal Ikasketetan doktorea da, 2017ko abenduan *«Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren (1964-2011) hurbilpen kritikoa / Approche critique de l'œuvre narrative d'Eñaut Etxamendi (1964-2011)»* izeneko tesia Bordeleko Bordeaux-Montaigne Unibertsitatean defenditu ostean.

Bestalde, «Arts, Lettres, Langues (Spécialité Métiers de l'Enseignement en basque)» saileko lizentziaduna da, Pauko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatean. Baita Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean Kazetaritzako diplomaduna ere.

Idazkera literarioa ere landu izan du. *Beste Eguzkia* (Txalaparta, 2007) eta *Arritxu eta Mago Zurien Anaidia* (Txalaparta, 2009) eleberririk plazaratu zituen.

Ogibidez, Baigorriko Jean Pujo kolegio publikoan euskara irakasle da gaur egun.





ITZIAR MADINA ELGUEZABAL

**EÑAUT ETXAMENDIREN
OBRA NARRATIBOA
(1964-2011):
HURBILPEN KRITIKOA**

IKER-37

**EUSKALTZAINDIA
2019**

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Argitalpen honen babeslea: Euskararen Erakunde Publikoa

© Itziar Madina Elguezabal

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabeak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmitzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Testuaren hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA).

Egilearen argazkia: Joanes Etxebarria (*Berria*)

Maketazioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbao

Inprimategia: G.Z. Printek, S.A.L.

ISBN: 978-84-120766-8-4

Lege-gordailua: BI-563-2020

EDUKIEN AURKIBIDEA

| | |
|--|-----|
| SARRERA OROKORRA | VII |
| 1. PARTEA. EÑAUT ETXAMENDI, ERRURALITATEAREN IDAZLE .. | 1 |
| SARRERA | 3 |
| 1. ETXAMENDIREN EKAI LITERARIOA ETA ERAIKUNTZA LITERARIOA. | 5 |
| 1.1. Ekai literarioa agerrarazten duen hizkuntza | 5 |
| 1.2. Ekai literarioa osatzen duten dominanteak | 11 |
| A) Laborantza industrialaren aitzineko Garaziko mendialdea | 11 |
| B) Amaren figuraren zentraltasuna | 12 |
| C) Erljioaren tematika | 14 |
| 1.3. Etxamendiren obra literarioaren eraikuntza-printzipioak | 16 |
| A) Alegorizazioa | 16 |
| B) Oroitzapenak | 20 |
| C) Gaurkotasunaren aipamena | 22 |
| 2. ETXAMENDIREN «CKA3» AHOTS NARRATZAILEA | 29 |
| 2.1. Munduaren pertzepzio sinestesikoa | 30 |
| 2.2. Erresistentzia emozionala bideratzen duen Ahotsa | 34 |
| 2.3. «Suntsitutako idilioa» abialeku, geroaldi berria idazgai | 36 |
| 3. MITOGRAFIA ALTERNATIBOA ERAIKITZEKO ASMO LITERARIOA. | 43 |
| 3.1. Zauri intimoaren interpretazio politikoa edo herri-zapalkuntzaren poetikaren erroak | 43 |
| 3.2. Hitza delarik ekintza | 46 |
| 3.3. Basa-Sagarre, ohantze literarioa | 49 |
| | V |

| | |
|--|-----|
| 2. PARTEA. EÑAUT ETXAMENDIK ZER LEKU DU EUSKAL LITERATURAN? | 55 |
| 1. ETXAMENDIREN NARRATIBA ETA NATURAREN POETIKA | 59 |
| 1.1. Baserriko imajinarioa euskal literaturaren historiografian | 59 |
| 1.2. Etxamendiren narratiba eta «baserri-literatura» | 62 |
| 1.3. Etxamendiren narratiba eta herrikoitasuna | 64 |
| 2. EÑAUT ETXAMENDIREN ETHOS LITERARIOA | 67 |
| 2.1. Ukazioaren indarra | 67 |
| 2.2. Militantzia politikoko urteak | 70 |
| 2.3. Etxamendiren idazkera deszentratua | 73 |
| 3. ETXAMENDIREN NARRATIBA NOLA KOKATU EUSKAL SISTEMA LITERARIOAN | 79 |
| 3.1. Heteronomiatik hurbileko urteak | 79 |
| 3.2. Perspektiba endogenoaren mantentzea | 86 |
| 3.3. Kapital sinbolikoaren metaketa | 93 |
| KONKLUSIO OROKORRAK | 99 |
| ERANSKINAK | 105 |
| 1. Eñaut Etxamendiren obren CORPUSA –AURKEZPEN OROKORRA– | 107 |
| 2. Eñaut Etxamendiren literatura-obraren aroaldikako antolaketa | 111 |
| 3. <i>Gilentegiko Gilen</i> eleberraren eskuizkribuzko orri bat | 112 |
| 4. Eñaut Etxamendiri egindako ELKARRIZKETA | 113 |
| 5. ONOMATOPEIAK Eñaut Etxamendiren narratiban | 117 |
| 6. Eñaut Etxamendiren kantuak | 124 |
| BIBLIOGRAFIA | 129 |
| Artikuluak | 129 |
| Artikulu elektronikoak | 134 |
| Liburuak | 142 |
| Liburu elektronikoak | 151 |
| Liburuko kapituluak | 151 |
| Besterik: (tesiak, publikatu gabeko artikuluak, etab.) | 157 |

SARRERA OROKORRA

Mende-erdi pasako ibilbide literarioa, lau eleberri –horietako batek 1987ko Irun Hiria Literatura Saria eskuratua– eta hogeita hamar narrazio baino gehiago dituen Eñaut Etxamendiren (Ezterenzubi, Nafarroa Beherea, 1935), euskal idazle garaikidearen obra narratiboaren osotasuna aztergai dukegu lan honetan.

Eñaut Etxamendi 1964an hasi zen literatura idazten. Hain zuzen, 1964ko udazken-neguan, atalka, Baionako *Herria* astekarian. Orduan, «Rafael Intzaurreta» izengoitiz, *Laminak* eleberri alegorikoa plazaratu zuen. 2011. urtean, Etxamendiren obrak hogeita hamabi lan narratibo zeuzkan. Bide horretan, Ipar zein Hego Euskal Herriko prentsan eta argitaldariatzen plazaratu eta sari literarioak jaso izan zituen Eñaut Etxamendik. 2009 eta 2011 artean, *Maiatz* argialetxeak Etxamendiren obra narratiboaren bilduma agertu zuen, bost liburutan.

Ohargarri da, haatik, Etxamendiren narratiba gutxi ez bada gaizki ezagutua dela gaurko Euskal Herrian, literatura jakitunen zein hala ez direnen artean ere.¹ Kasurako, *Euskal Literaturaren Hiztegia* bezalako bilduma entziklopedikoak ez dakar Eñaut Etxamendiren izenik. Zerrenda alfabetikoan «E» letrepean hogeita bi izen badaude izan –Egañatik Ezkiagara– artean Etxamendirik ez dela.² Munduko Bigarren Gerlaren ondoko euskal literatura garaikidearen historia aztergai duten hainbat antologiak ere ez diote merezi duen begirunerik erakutsi.³ Eñaut Etxamendiren inguruko unibertsitateko ikergeraia

¹ MADINA, Itziar (2014). «Etxamendi: urradurak sortu zuen idazlea», *Euskonews*. Baiona: EUSKO IKASKUNTZA. <http://www.euskonews.com/0688zkbk/gaia68804eu.html>

² Euskal Herriko Unibertsitatea. *Euskal Literaturaren Hiztegia*. http://www.ehu.es/ehg/literatura/idazleak/?page_id=3

³ Zenbait euskal ikertzailearen lanak aipatzearen: LASAGABASTER, Jesús María (1984). *Literatura y vida literaria. Jakin*. Edo OTEGI, Karlos (1984). *Euskal sorketa literarioa (1939-1984)*.

jorratzen lehena Joana Pochelu izan zen.⁴ Ziurtapen hauek bada, zenbait galdegai zabaltzen dituzte: zer leku aitortzen zaio Eñaut Etxamendiren narratibari euskal literaturaren historiografian, gaur? Zer dela kausa ez da Etxamendiren narratiba ezagutuagoa ez eta adituek miatuagoa? Gure gogoeta bi osagai nagusitan oinarritu dugu: Etxamendiren obra literarioaren izaeran, batetik, eta Etxamendi idazlearen jokabide ideologiko eta estetikoan, bestetik. Hau da, Etxamendiren narratibaren nolakotasunak lehenik eta Etxamendiren euskal literaturaren baitako ibilbidea azkenik, aztertuko ditugu.

Etxamendiren narratibaren funtsezko ezaugarriak erruralitatean sailkatu ditugu. Izan ere, darabilzkien gaiak XX. mendeko bigarren erdialdeko Ipar Euskal Herriko jendarte nekazariak bizi izan zituen errealitatei baitagozkie. Idazleak ekai literario⁵ bereziaren gisan erabiltzen ditu 1950 inguruko urteetako Garaziko eskualdea, bertako biztanleak eta haien bizimoduak. Zehazkiago, Eñaut Etxamendiren ekai literarioa hizkuntza bereziaren bitartez azaltzen da. Ekonomia narratiboan pisu handia du ahozko hizkuntzarekiko hurbiltasunak. Idazleak diskurtso zuzenak grafia fonetikoz islatzen ditu, adibidez. Hain justu, Nafarroa Behereko euskalkiak, nekazaritza munduko hiztegiak eta idazlearen hitzak birsortzeko joerak dute Etxamendiren erruralitatearen ekai literarioa osotzen.

Bestalde, Etxamendik hiru gai dominanteren bidez islatzen du erruraltasuna: industrializatu gabeko Garaziko mendialdearen, amaren figuraren zentraltasunaren eta erlijioaren 1950 inguruko urteetako pisu sozialaren deskribapenaz. Horrela, Etxamendiren narratibak sublimatzen ditu espazioak eta denborak. Hauek pertsonaietan eragiten dutenean goi mailako indarrez edo indar galgarriz egiten dute, erdibiderik gabe. Azkenik, Etxamendiren obra literarioan hiru eraikuntza-printzipio seinala daitezke: oroitzapenen kontaera, alegorien sorkuntza eta Euskal Herriaren nola munduaren gaurkotasuna hunkitzen duten gaien trataera literarioa.

Jakin. Berdin ALDEKOA, Iñaki (1998). *Mendebaldea eta narraziogintza*. Donostia: Erein. Edota IZTUETA ARMENDARIZ, Paulo (2005). *Euskal idazleen belaunaldiaz*. Donostia: Utrisque Vasconiae. Hauetatik batean ere, Etxamendiren aipamenik ez dugu atzeman.

⁴ POCHELU, Joana (2005). «Étude de génétique des textes à partir des textes d'E. Etxamendi», *Lapurdum* 10: 331-336.

⁵ Formalismo literarioarentzat *ekai literarioa* «literaturaren artea ikertzeko» abiapuntua da: hitza, hain zuzen. Ekai literarioa literatura ekoizpenaren lehengaia da eta obra literarioa ekoizterakoan, idazleak ekai literarioa manipulaten du. Ikus: EIKHENBAUM, Boris (1966). «La théorie de la «méthode formelle», in TODOROV, Tzvetan (Ed.) *Théorie de la littérature: textes des formalistes russes*. Paris: Seuil: 31-75.

Erruralitatearen baitan kokatzen dugu beraz, «*сказ*»⁶ edo «zuzeneko kontraera»⁷, Etxamendiren ahots narratzailea. *Сказ* nozioa «слово как таковое» («hitza berez bere») formalismoaren ideiatik dator. *Сказ* kontzeptuak hitzaren forma herrikoiarekiko, paremiologiarekiko eta besteekiko fidelitatearen mantentzea bilatzen du. Berezkotasunaren irizpideak bi alor irekitzen ditu. Bate-tik, ahozko diskurtsoa imitatzeke aukeratu beharreko aterabide linguistikoaren arazoa. Bestetik, narrazioak kudeatu beharreko eduki etnografikoaren zama. Etxamendiren kasuan, eduki hori Garaziko mendialdeko ohituren agerpena izanen da. Etxamendiren *сказ* tonua hain zuzen, gazte denborako ingurugiro sozial eta kulturalean errotzen da, zeinetan euskara komunikatzeko hizkuntza naroa baitzen. Hots, Etxamendiren narratiba estetikoki herrikoitasunean sus-traitzen da, idazlea sortzen ikusi zuen zibilizazioarekin bat etorritz.

Horrela, Eñaut Etxamendiri jasangaitza zaio Garaziko mendialdearen sunsiketa ikustea. Ondorioz, bere idazletza erresistentzia emozionalean lerrotkatzen du. Urradurak idaztera eta suntsitutako idilioaren⁸ aurrean mitografia alternatiboak eraikitzaera bultzatzen du. Idilioan harreman organikoa dago iza-tearen eta lekunearen –sorlekuaren– artean. Horretan jaiotetxea nagusi da. Ingurumen idilikoa beregaina da, axolarik ez duela munduan gertatzen dena-rentzat. Aldiz, idilioan egundoko garrantzia dauka lekunearen eta denbora genealogikoaren arteko batuketak. Norbanakoaren bizitzako uneak oro guneari loturik dagoen mugarik gabeko denboran gertatzen dira. Hortaz, nor-banakoaren aroa denbora ziklikoan itzaltzen eta berpizten da. Idilioak fun-tsezko jazoera urri batzuk dauzka: sortzea, heriotza, amodioa, lana, jatekoa eta edatekoa. Azkenik, idilioan, jendea eta natura bat eginik daude eta erritmo berean, hiztegi berarekin definitzen dira bataren eta bestearen harat-honatak.

Modu horretan, Eñaut Etxamendiren narratibak zauri intimoaren inter-pretazio politikoa egiten du eta herri-zapalkuntzaren poetikaren erroak bota-tzen. *Basa-Sagarre*, sortetxea duen Ezterenzubiko auzoa ohantze literario bilakatzen du.

⁶ «Skaz» ahoskatzen da. Errusieraz, «*сказ*» hitza euskarazko «errana» hitzaz itzul daiteke. «*Сказамь*» berriz, euskarazko «erran» aditza izanen da. Eta, bestalde, «*пакказамь*» eta «*пакказ*» «kontatu» eta «kondaira» izanen dira, hurrenez hurren.

Grafiari dagokionez, idaz daiteke «*сказ*» alfabeto zirilikoa edota «*skaz*» latinoan. Batzuek «*сказка*» edo «*skazka*» ere deritzote. Haatik errusieraz, horrek erran nahi du «ipua» edo «kontraera» eta ez «narrazioa».

⁷ БАХТИНЕ, Михаїл (2004). *Esthétique et théorie du roman*. Paris: Gallimard: 88.

⁸ БАХТИНЕ, Михаїл (2004). «Le chronotope du roman-idylle», in *Esthétique et théorie du roman*. Paris: Gallimard: 367-384.

Ikus dezagun orain, 1964tik hona Eñaut Etxamendiri zer leku egokitu ote zaion euskal literaturan. Idazlearen kokatzearen inguruko auzia bi alderditatik kontsidera daiteke: hala idazlearen nola literaturgintzaren aldetik. Lehenean kontuan izanen ditugu idazleak harturiko erabaki estetiko eta etikoak, literaturaren munduan emandako urratsak, sorturiko harremanak, eta horrelakoak. Eta, bestean, aldiz, literaturaren munduak –kritikak, merkatuak eta abarrek– idazleari egin izan dioten harrera.

Eñaut Etxamendiren aukera narratiboetan garrantzitsuena euskal base-riaren azalpena da. Oso salbuespen txikia izan ezik, lantzen dituen pertsonaiak oro XX. mendeko bigarren erdialdeko euskal nekazari edo artzainak dira. Bizkitartean, Etxamendiren narratiba eleberri «kostunbrista» ote da? Baiki, Etxamendiren narratiba «euskal baserria gaitzat duen narratiba» izan, bada. Adiera perifrastikoak erakusten du ordea, gaur-gaurkoz, euskal literaturaren kritika termino zehatz eta neutro baten eskasean dagoela. Zentzu horretan, Etxamendiren narratibak zehaztugabetasun-egoera bizi du. Gaiak kostunbrismotik hurbiltzen badu ere, baserria ekai literario bilakatzeko Etxamendik duen manera eta hori sortzen duen aro historikoa desberdinak dira. Hona hemen, euskal literaturan Eñaut Etxamendik duen kokagune berezia adierazten laguntzen duten osagaietako bat.

Haratago, suntsitutako idilioa deskribatzeko hautua egitean, Etxamendik mundu ohiturazalea esploratzen du eta bere nortasun literariotzat markatzen, Naturaren poetikaren bidez. Izan ere, Etxamendiren narratiba ohiturazalea ohiturazaletasun biografikoa bizi izan duen idazlearena baita. Bakhtinen definizioan⁹, ohiturazalea mundu-ikuskerat bat da, aurretik ikasitako legeez mundua egokiro asetzen duena, aldatetari garrantzirik ematen ez diona eta, oharkabean bada ere, historiak bultzatzen duena. Ohiturazalea dei daiteke betikoaren, lehengoaren luzatzearen, hau da, aktiboki eragin gabe iragana iraunaraztearen aldekoa dena. Baina Etxamendiren ohiturazaletasuna berezia da, ezen bi munduren elkarketa-gunean dagoelako. Alabaina, eskolatua izanik, dituen ezagutzez eta gaitasunez baliatzen da bere baitan alhan daukan mundu *hezi gabea*¹⁰ deskribatzeko. Azpimarratzekoa da aro berean, euskal literatura garaikideak aldiz, norbanakoa, hiria eta modernotasuna goستن dituela. Beraz, euskal literatura garaikidearen kezka tematikoekiko, Etxamendiren narratiba albo batean geratzen da. Hona, Eñaut Etxamendik euskal literaturan duen kokapen berezia zedarritzen laguntzen duen bigarren elementua.

⁹ BAKHTINE, Michail (2004). *Esthétique et théorie du roman*. Paris: Gallimard: 488.

¹⁰ LEVI-STRAUSS, Claude (1985). *La pensée sauvage*. Paris: Presses Pocket argitaletxea: 349.

Honenbestez, idazleak lehenesten dituen irizpide estetikoak irizpide etikoak erantsi beharra zaizkio, idazlearen *ethos* literarioa kausitzeko. Eñaut Etxamendiren kasuan, *ethos* literarioak hiru jokabide dauzka: militantzia politikoa, idazkera deszentratua eta ukazioaren indarra. Azken honek tragikoki markatzen du Etxamendiren biografia. Alabaina, familiak eta, bereziki, amak apaizgora bideratu zuelarik, Eñaut Etxamendik urteetan ukatu zuen erabakia. Ordaindu behar izan zuen saria, aldiz, izugarria izan zen. Ideia kontrajarrietan ezin bateratuz haserre zirela, ama hil zitzaion, bat-batean. Fraide etxeko zenbait arduradunek xantaia emozionala egin zioten ama zenaren borondatea betez, apaizgoan segi zezan. Urradura psikologikoa jasan arren, Etxamendik ukamenean jarraitu zuen. Bere nahikeria kostatzen ahala kostatzen lehenetsiz, onarraraztea eta laiko gelditzea erdietsi zuen.

Ezin hondatuzko kemena nerabegarotik obratzen ibilita, Etxamendiren militantzia politikoko urteak latzak izanen direla uler daiteke. Etxamendik gogorki salatuko du herria hitzik gabe uzten duen Ipar Euskal Herriko klase politikoa eta erlijioso mota bat. Aldi berean, eskatzen zaion guztia jasaten duen herria ere kritikatzeko, haren kontserbadurismoa irmoki gaitzetsiz. 1963an, *Enbata* mugimendu politikoa abertzalean sartu zen. 1965etik hara, Eñaut Larralderekin batera¹¹ kantatzen hasi zen. Elkarrekin egiten zituzten kantaldiak oso politikoak izaten ohi ziren, euskararen, euskal kulturaren, herriaren eta nortasunaren defentsaren aldeko kontzientzia piztea helburu.

Etxamendiren erabaki etikoetan azkena, hizkuntza literario ez-batuarena dugu. *Laminak* lehen narrazioaren lehen atala *Herria* astekarian agertu zuenetik 1964ko urriaren 8an, euskara literario batua gauzatu gabe zegoen. Etxamendik, ordea, ez du gaurdanik euskara literario baturik erabili bere narratiban. Ondorioz, amankomuneko hizkuntza eta kulturaren bazterrean gelditzea hautatzen duen idazkera deszentratuan sar dezakegu Etxamendiren narratiba.¹² Eñaut Etxamendik arau orokorraren ez baitaraztea erabakitzen du eta, horrenbestez, idazkera nahiz jarrera literarioa «mezuaren forma eta balio kanonikoa»¹³ bihurtzeko dituen.

Halere, Etxamendiren ibilbide literarioak euskal sistema literarioa gurutzatu izan du eta horren barnean sartu izan da. Hiru aldi kronologiko ezagut

¹¹ Eñaut Larralde (Izura, 1935-2012), Donapaleuko Errecart Lizeoan irakasle izan zen. Euskal Kantuzaleen Elkartearen sustatzaile izan eta Haize Berri Izurako kultur etxearen zuzendari izan zen. Eñaut Etxamendiren kantari lagun ezin bereizia zen.

¹² LARONDE, Michel (1996). «Stratégies rhétoriques du discours décentré», in Iowa City: University of Iowa. <http://limag.com/Textes/Collimmigrations1/Laronde.htm>

¹³ *Ibid.*

daitezke: heteronomiatik hurbilekoa, perspektiba endogenoa lantzen duena eta kapital sinbolikoaren metaketarena.

Jakin behar da euskal sistema literarioak bi aldiz sariztatu zuela Eñaut Etxamendi. Lehenik, 1968an, Irunberriko Literatura-saria¹⁴ irabazi zuen *Elurra zikindurik* eleberri laburrarekin. Bestalde, 1987an, Irungo Literatura-saria irabazi zuen *Gilentegiko Gilen* eleberriarekin. Karia horretan, Gipuzkoako Kutxak eman zion saria. Dena dela, Etxamendiren traiektoria literarioaren berezkotasunak irauten du 1964an hasi eta bere karrera osoan. Izan ere, 1987an euskal esparru literarioaren muintetik hurbildu zenean ere, *Gilentegiko Gilen* euskal nekazari marjinalaren gainbehera tragikoaren kontakizunarekin egin zuen, behe-nafarreraren erabilpen literarioa ukatu gabe, merkatuaren eta beste norma zenbaiten irizpideetatik urrun, bere gain. Hots, Eñaut Etxamendik bi modutan eusten dio ikuspegi endogenoari: batetik, euskal nekazari-kultura folklorikoan edo idilioan erroak finkatuz eta, bestetik, narrazio literario deszentratua landuz.

Honi guztiari esker, Etxamendik kapital sinbolikoa metatu zuen. 2009an, *Maiatz* argitaletxeak haren obra osoaren bildumatzea erabaki zuen.¹⁵ Bost liburukitan bildurik daude 1965etik 2011ra arteko Eñaut Etxamendiren obra narratibo guztiak. Bestalde, seigarren aleak batu zituen Etxamendik 1959tik 2012ra bitartean idatziriko kantu eta olerkiak oro. Erran daiteke, batetik, bildumak Etxamendiren obra literarioaren azalerazteko meritua duela. Ordura arte, alabaina, sakabanaturik baitzegoen azken hiru hamarkadetako *Maiatz* aldizkari ugaritan. Osotasunak bestalde, Etxamendiren obraren emaitza ederra bistaritzen du. Horrela, hirurogeita hamalau urtetan, Eñaut Etxamendik kontsakrazio karismatikoaren lehen aitortzak jasotzen ditu. Zori dago ibilbide literario osoan metaturiko haren kapital sinbolikoa.

Zehatz dezagun bukatzeko, Etxamendiren obra narratiboaren corpusa osatzen duten hogeita hamabi lanetan prosazko olerki luzeak, eleberri laburrak eta luzeagoak badaudela, izan. Hots, eklektikotasun formalak nortzen du Etxamendiren corpus narratiboa. Narrazioen parterik handiena prentsako

¹⁴ Sari hori zer erakundek edo eragilek emana zen jakiten saiatu gara, baina ez dugu lortu, tamalez. Mintzatu ditugun Nafarroako kulturgintzako kideek ez digute argitasunik ekarri ahal izan. Haatik, miaketak segitu gogo ditugu.

¹⁵ *Maiatz* argitaletxearen eskutik, *Idazlanen Bilduma* izenburupean, Lucien Etxezaharreta editore. ETXAMENDI, Eñaut (2011). *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*. ETXAMENDI, Eñaut (2011). *Idazlanen Bilduma V*. Baiona: *Maiatz*. ETXAMENDI, Eñaut (2010). *Idazlanen Bilduma III*. Baiona: *Maiatz*. ETXAMENDI, Eñaut (2009). *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*. ETXAMENDI, Eñaut (2009). *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*.

agerkarietan azaldu izan da puntualki: *Herria*, *Gure Herria*, *Herriz-Herri*¹⁶ edota *Maiatz* aldizkari literarioan. Guztien artean, azken honetan 1982az gero, modurik iraunkorrenean. Eñaut Etxamendiren hiru eleberri liburu gisa plazaratu ziren,¹⁷ hiruretan argialetxe ezberdin batek: *Azken elurra* (1974), *Aurora* (1985) eta *Gilentegiko Gilen* (1987). Lehen bi eleberriak Ipar Euskal Herriko argialetxe batek egin zituen eta, azkena, Hego Euskal Herriko batek. Honekin, Etxamendiren obra narratiboaren eskuragarritasuna eta ondorioz, irakurleengana heltzeko aukeren nolakotasuna izartzen ahal dira. 2009 eta 2011 urteen artean argitaratu ziren Etxamendiren obra narratiboaren horren bidez, idazlearen obraren aintzatespena markatzen da eta Eñaut Etxamendi kapital literario baten ontzailatzat jotzen da, publikoki.

Horrela, Etxamendiren obra narratiboaren azterketa kritikoak erakutsiko digu Ipar Euskal Herriko euskal literatura garaikidearen ekoizpen baten ezau-garri multzoa eta horiek eskuan, hausnarketarako bidea zabaltzen ahalko dugu: Etxamendiren narratibak zer miraila eskaintzen ote dio euskal sistema literarioari?

¹⁶ *Herriz-Herri* aldizkaria 1980tik 1991ra bitartean plazaratu zen, Ipar Euskal Herrian. Manex Erdozaintzi-Etxart izan zuen zuzendari, hasieran. Tokiko informazioa ematea helburu zuen. *Herriz-Herrik* Donapaleun (Nafarroa Beherea) zuen egoitza.

¹⁷ *Laminak* (1965) eta *Gizon saindu eta maite-min* (2011) eleberri kontsidera daitezke, nahiz ez diren sekula liburuan, ale bakarrean plazaratuak izan. Eleberri jotzeko arrazoiak dira: hurrenkera kronologikoaren eta formalaren aldetik, pertsonaia baten edo batzuen gorabeherak segitzen direla. Etxamendik dispositibo hori gutxitan baizik ez du erabiltzen. Bestalde, hogeita hamabi narrazioetatik luzeenetan dira, hirurogeita sei eta hirurogeita zortzi orrialderekin, hurrenez hurren.



1. PARTEA

**EÑAUT ETXAMENDI,
ERRURALITATEAREN IDAZLE**



SARRERA

Datozen hiru kapituluotan Eñaut Etxamendiren erruralitatearen idazkera argitaratzen ahaleginduko gara. Batetik, Etxamendiren ekai eta eraikuntza literarioak barneratuko ditugu. Bestetik, Etxamendiren «сказ» ahots narratzaileaz eta, urrentzeko, erruralitatean oinarrituriko mitografia alternatiboak eratzeko idazlearen asmo literarioaz ariko gara.

Eñaut Etxamendiren obra narratiboa osotzen duen ekai literarioa hiru elementu dituen hizkuntza literarioan azaltzen da: Nafarroa Behereko euskalkia, nekazaritza munduko hiztegia eta idazlearen hitzak birsortzeko joera. Bestalde, Etxamendiren ekai literarioan hiru gai dominante dauzkagu: XX. mendeko lehen erdialdean industrializatu gabeko Garaziko mendialdea, zentrala den amaren figura eta erlijioaren zama soziokulturala. Erran bezala, Etxamendiren obra literarioaren eraikuntza-printzipioak seinalatuko ditugu: oroitzapenen kontaera, alegorien sorkuntza eta Euskal Herriaren nola munduaren gaurkotasuna hunkitzen duten gaien trataera literarioa.

Bigarren kapituluan, «сказ» narrazioari interesatuko gatzazkio. Ahozko-tasunak eta munduarekiko erresistentzia emozionalak Etxamendiren narratiba gidatzen dutela erakusten saiatzen gara. Idazleak ezaguturiko mundu idiliko folklorikoa desegitean, Etxamendiren obra narratiboak geroaldi berriak asmatzeari ekiten dio.

Azken kapituluan, hain zuzen, Eñaut Etxamendik bideraturiko asmo literarioa arakutzen dugu. Horren ezaugarri formalak azalduz, idazleak herri-zapalkuntzaren poetika gorpuzten duela azaleratzen dugu. Horren oinarrian daude munduarekiko arrotzea eta trauma horri buru egiteko eraikuntza ideologikoa.



1. ETXAMENDIREN EKAI LITERARIOA ETA ERAIKUNTZA LITERARIOA

1.1. EKAI LITERARIOA AGERRAZTEN DUEN HIZKUNTZA

Etxamendik darabilen hizkuntza literarioa estandarizatu gabeko euskara da eta horrek hainbat gogoetagai sorrarazten ditu. Zentzu honetan, euskal literaturaren azterketan azken urte hauetan gairatzen jotzen zen euskararen erabilpen literarioaren inguruko ikerketa berriro irekitzen dugu.¹⁸

Historikoki, euskara ez beste Europako gainontzeko hizkuntza idatzi oro XVI. mendean abiatu ziren batasunerantz.¹⁹ 1960ko urteetan, Koldo Mitxelena euskararen ugaritasunaren eta batasunaren hurbila azpimarratu zituen. Hots, euskalkiek barietate geografiko eta historikoak osatzen dituzte. Baina Mitxelenaren ustez, aniztasunaren iturria hizkuntzaren batasunean dago.²⁰ Euskarak lotura estua dauka azaltzen den bere esparru geografikoarekin²¹ eta gaur, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a begiraturik²² gara konturatzen euskararen joritasunaz. Euskalkiak anitz diren bezala, euskal literatura ere ugaritasunean oinarritzen da eta ugaritasuna du abiapuntu. Koldo Mitxelenak

¹⁸ CASENAVE, Jon (2009). «Euskal literaturaren historia - Ikuspegi historiografikoa. L'histoire de la littérature basque en débat», *Lapurdum* 13: 85.

¹⁹ REY, Alain et alii (2013). *Mille ans de langue française: histoire d'une passion*. Paris: Perrin, I: 672.

²⁰ MITXELENA, Koldo. IKUS PAGOIA, Rosa Miren, PEILLEN, Txomin, DIEZ DE ULZURRUN, Pedro (1992). *Euskalki literarioak*. Bilbo: Labayru Ikastegia: 47.

²¹ AREJITA, Adolfo, ETXEBARRIA, Igone (2008). *Euskara eta Euskalkiak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: 40.

²² AREJITA, Adolfo, AURREKOETXEA, Gotzon, VIDEGAIN, Charles (2017). *Euskararen herri hizkeren atlas VIII*. AREJITA, Adolfo (Ed.). Bilbo: Euskaltzaindia: 756.

1968ko Arantzazuko Biltzarrean euskara diasistemikotzat²³ jo zuen.²⁴ Etxamendiren narratiba kokapen geografikoaren sailean dago, hau da, jatorri geografikoa salatzen duen hizkuntza-adierazpenean. Ondorioz, Etxamendiren narratiba diatopikoa dela erran genezake.

Baina euskararen diasistemaz harago, Aita Villasantek egiten zuen bezala, euskal sistema literarioen aniztasuna ere begiztatzen ahal dugu.²⁵ Ondorioz, Etxamendiren narratiba diatopikoak 1968ko Arantzazuko Biltzarrean aurreko egoerara garamatza, hau da, hizkuntza eta sistematizazio literario aniztasuna zen egoerara. Bestalde, Eñaut Etxamendiren ekai literarioa osatzen duen hizkuntza literarioaren aberastasuna hiru alorretan nabari da, nagusiki, hots, paisaiaren deskribapenean, landare izendegian eta nekazaritzako hiztegian.

Paisaiaren deskribapenean ari denean, Etxamendiren hizkuntza literarioa adierazgarritasun-karga handiz betetzen da. Normalean, paisaiaren agerpena testu literarioaren «incipit»ean jartzen du. Manera horretan, ingurugiroaz gain, idazleak narratzailea edota pertsonaia nagusia sustraitzen dituela:

Sant Etsira beilaz gindohatzin mendiz-mendi ene lagun Pagobeltzeta eta biak. Sant-Etsi Nabarran da urrun biziki, mendiez bertaldean. Han kapera batean Saindu bati otoitz egiten da eri haundiendako nihungo belagilek ezin senduarazizko erriendako.²⁶

Izendegiak adierazgarritasun berezia dauka, izan erreala ala asmatua. Demagun Pagobeltzeta narratzailearen lagunaren izena Iratiko Oriongo oiha-netik gertu den leku malkar baten toponimoa da eta Etxamendiren beste ekoizpen literariotan agertzen da. Sant Etsi aldiz, ikusi ahal izan dugun inongo mapetan ez dator. Horren haritik ondorioztatzen ahal da izena asmatua datekeela, nahiz eta kokagunea errealista izan: «Nabarran da urrun biziki»²⁷.

Paisiaiz harago, nekazaritza munduko hiztegiaren bitartez, Etxamendiren hizkuntza literarioak modu errealistan jorratzen du ekai literarioa:

²³ Linguistikari, diasistemak hizkuntza maila ezberdinak, hizkuntza estilo ezberdinak edo dialekto ezberdinak dituen egoera linguistikoa izendatzen du. Lau maila bereizi ohi dira belau-naldien, aro historikoen, kokapen sozialaren edota kokapen geografikoaren arabera.

²⁴ FERNANDEZ IGLESIAS, Arantzazu (2012). «La estandarización del euskera», *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca* 151-172. <http://dx.doi.org/10.5944/rllcgv.vol.17.2012.6031>

²⁵ *Ibid.*

²⁶ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Laminak», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 35-133.

²⁷ Pentsa daiteke *Laminak* idaztean Iratiko oiha-neko Elurretako Ama Birjinaren baseliza zuela Etxamendik idazgai.

Gure bordaldea «Antsolo»-n zen. Antsolo, etxetik oren bat bidean zen mendian. Gure etxetik herrira beste oren baten bidea bazen.²⁸

Ohargarri da behin eta berriz, gaztaroan ezagutu dituen bazterrak dakarziela idazleak eta haren hizkuntza literarioak manera bertsuan jorratzen dituenak, etengabe, ekoizpenetik ekoizpenera. Eñaut Etxamendik paisaiaren deskribapen literarioa errealismoaren bidez bakarrik ez, baita poetikotasunaren bidez ere lantzen ditu:

Muño polit bat zen, biribil eta gorrail matela goihena xuhail lepondo bat bezala, eta goizerri aldetik oihana besape bat bezala, oixe andere-bular legun kutuna ! Mendebaletik soegin eta Pagaltzetan zuen goi-laurdena, arpegi irritsu emazte ozena ! Sortaldetik begira, Oriune beltzaren pagadoi urruna, zer izarbel gau-birjina !²⁹

Hau da, zintzur, erroitz eta potxa terminoek geografiako nozioak adierazten badituzte: errekastoa, amildegia eta leize-ziloa, besteak beste, horien ondoan «muño» eztiak izan, badaude «biribil eta gorrail matela goihena xuhail lepondo bat bezala», «andere-bular» batekin bateragarriak. Paisaia pertsonifikatzen da eta munduaren ikuspegi antropomorfikoa nabari zaio idazkerari. Lirikotasunerako joera hori emendatzen da landareen mundura jauzi egiten duenean:

(...) onjo-lilia: oixe lili urdin pollita, urtzo-kolorea, iratze-pean idekitzen ditin bere ezpainak legun-legunik nola zerutik izar urdin bat... ta gero musu emaiten legun-legunik uzten pozoña.³⁰

(...) Heldu zena maiatza? Hori bizitzaren ardatza ! Ilarrearen lore urdina, urtzelarraren horia ! Leizor-liliak aharrosiz sabel hutsak bezala, eta amulagukulak bihez loditurik !³¹

Nekazaritzako hiztegiaren alorrean sartzen dugu ere industrializatu gabeko jendartearen eta horren bizi-maneren deskribapena egiten duen hizkuntza berezia, hots, alor lexikal zabala. Hiztegi horren lehen ezaugarria Etxamendi-

²⁸ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Elurra zikindurik», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 137.

²⁹ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Dartemalda», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 9.

³⁰ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Urtzuak aldatu urrian», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 25.

³¹ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Dartemalda», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 11.

ren obran hartzen duen hedadura nasaiarena da. Bigarrenik, deskribapen sinpletik hasi eta etnologikotzat jo daitekeeneraino iristen da. Adibide soiletan hasirik lehena, ondoko hau:

Eskualde hura hemengoz bertzelakoa zen biziki, mendi larrutu batzu, etxelar ttipi batzu, lurak gorri-gorria, mahasti anitz eta ardi-saldo merino ileak zikin-zikina uzta-leku idor batzuetan beren artzaina ondoan xakurrekin. Nihun ez hesiarik ez harretsirik gabe, jendeak mahats biltzen.³²

Noiztenka, ordea, Etxamendiren hizkuntza literarioaren alor lexikala zorrozten da eta nekazaritzaren edota artzaintzaren ezagutza ezak zail dezake ulermena:

Artzain xahar hori etzen beldur negu-neguan horrat gaindi, hain gora, elur baten hurriskuan jiteko, sorhoz-sorho: erreka ondoetan sorhoa heldu baita neguan, jiten dira Egurgin barna Erruzateraino sorhoka. Migelek holetan bazkak bilatzen zituen merkerik bainan hurrisku haunditan.³³

Aipaturiko Migel artzaina Iratiko Hartxilondon dago, mila metro inguruan. Artzainen udako egonlekua bada, Hartxilondo arriskutsu bihurtzen da neguan, elurteak direla eta. Haatik, narratzaileak adierazten duen eran, artzainak artaldearekin «sorhoz-sorho» ibiltzea lor dezake, betiere erreka bazterrean egonez, ezen oihaneko parte hori ez baita elurrez estaltzen zeharo. Bestalde, jakin behar da «bazkak bilatzea», lurrik gabeko artzainen urteroko kezka ohi dela: ardien alhapidea alokatzea, hain zuzen. Iratin neguan egonez, Migel artzainak alhapideak kitorik lortzen zituen. Haatik, haren eta artaldearen bizia jokoan ematen zuen. Hain zuzen, iraganeko bizimoduak deskribatzeko beharrezkoa den hiztegi berezia gaur egun ia galdua denez, irakurle ezjakina gal daiteke:

Noizbait heldu zen delako azaroko arratsalde iruzki hegozkoa: orgeri katau-sahetsak ezar eta «orgetxe» kilan alorrerutzen ginena. Auzoetarik ere norbait izaiten zen jinik. Krisk krask arto buruak saskirat: «erreguko» saskiak beta eta orgetxerat huts. Orgetxea betexe zelarik «marherak» artoz betetzen ziren: «sakak». Sakak orgetxearen gainerat eta jo etxerat.³⁴

Uzta-egoera eta kronologia uler badaitezke ere, «katau-sahetsak», «orge-txe», «erreguko saski», «marhera» eta «sakak» zeri dagozkien zehazki, nekez

³² ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Laminak», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 39.

³³ *Ibid.* 69.

³⁴ ETXAMENDI, Eñaut (2011) «Artoak», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 48.

dezake jakin Euskal Herrian arto-biltzea eskuz egin ez duenak.³⁵ Etnologiaren arloan gaudela erran daiteke, iragan denborako lantresna desagertuen berpiztea dagien testu literario garaikide baten aurrean.³⁶

Hau da, Eñaut Etxamendiren obra literarioan, berebiziko lekua osatzen du Garazialdeko mendiko biziaren errekreazio literarioak. Idazleak euskalkiaren eta laborantzaren alorreko hizkuntzaren bitartez islatzen du. Harago, Etxamendiren narratibak hitzak birgaitzeko joera erakusten du.

Izan ere, modernitatearen deskribapenak idazlearen hizkuntza literarioa hertsatzen baitu. Berritasunari –industrializatu gabeko jendarte nekazariari arrotz zaizkion hainbat lanbide, tresneria edo jazoera– hitz egokiez egitekotz, Eñaut Etxamendik usaiakoa duen lexikoaz gairi bilatzen du. Horretarako, maisuki baliatzen da euskararen baliabide linguistikoen oparotasunaz. Etxamendiren obra narratiboaren hizkuntza literarioak euskararen potentzialtasun guztiak erabiltzen ditu euskal hitz zaharrak gaurkotuz edota erdarazko hitzak euskarara moldatuz.³⁷ Hainbestearino non, Etxamendik birsorturiko zenbait hitz *Orotariko Euskal Hiztegia*n erreferentziaturik baitaude.

Hala nola, «Isilkariak» delakoak izendatzen dituen berba:

«Ixilkariak», erran nahi baita gordeka eta ixilka bizi eta ari zirela lanean beren Herri maitearen xutitzeko eta libratzeko.³⁸

Hala-hala, *Orotariko Euskal Hiztegia*k «ereduzkatu» forma onartu du:

Comparar. *Hire etsaiek onjo-liliari ereduzkatzen edo konparatzen haute*. R. Zuhañeta *Herr* 28-7-1966, 4.³⁹

Hots, *Orotariko Euskal Hiztegia*k euskal lexiko orokorrean zilegitzen du Etxamendik betebeharrak literarioetarako asmatutako hitz berria.

³⁵ Artoaren bilketarako tresneria, zurezko osagai desberdinez egin da: «katau-sahetsak» kasurako. Erregua berriz sistema metrikoaren aitzineko Euskal Herriko izari bati dagokio.

³⁶ Eñaut Etxamendik ez du letra italikorik ez letra etzanik edota azalpen nabarmenik erabiltzen, baina aliteritate linguistikoa bere gordintasunean zabaltzen du. Hiztegia gehitu izan du bere ekoizpen literarioen bukaeran, zenbait hitzen ulermenaren errazteko.

³⁷ Moldaketa horiek ezagun dira Etxamendiren obra osoan zehar, hots, ez doazkio ezin aroaldi literario zehatzi.

³⁸ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Laminak», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 80.

³⁹ EUSKALTZAINDIA. *Orotariko Euskal Hiztegia*.

Hitzen gaurkotzeko bi estrategia literario ditu Eñaut Etxamendik, bata bestearen muturrekoa izaki. Alde batetik, «ereduzkatu» eta bestetik, «konzomazioniak» bezalako hitzak genituzke. «Ereduzkatu» narrazioaren baitan dator. Ezen, euskararen lexikografiaren birtualtasuna barneratuz, goragoko erregistroa bilatzen duelako idazleak. «Konzomazioniak» bezalako hitza berriz, erdarakada ozena da, narrazioko pertsonaia batek errana. Eginmolde honen bidez, idazleak ahozko elkarriketa markatzen du. Eta bestalde, pertsonaiaren nortasuna konnotatzen du: Etxamendiren idazkeran, erdara erabiltzen duten euskaldunak ez ohi dira pertsonaia atseginak.⁴⁰

Euskal hizkuntza literarioa XX. mendeko modernotasunari hurbiltzeko eginahala preziagarria egiten du Eñaut Etxamendik, 1964 eta 2011 urteen artean argitaratu eta guk ikerturiko obretan zehar. Haatik, bi ahulezia nagusi atzeman dakizkioke: hitzen grafiaren batasun eza eta hitz zenbaiten adieraren anbiguotasuna.⁴¹

Azkenik, Eñaut Etxamendiren hitzak birsortzeko duen gaitasuna mendraturia ikus dezakegu zenbait kasutan. Halandaze, hitz batzuek esanahi anbiguoak baitute. Demagun, «urtzaroa». Etxamendik *Urtzoak aldatu urrian*⁴² narrazioan erabiltzen du, «urtzoen aroari» erreferentzia egiteko. Elhuyar hiztegiak «urtzaro» izen arrunta onartzen du.⁴³ Hitzaren oinarri etimologikoa ordea, ez dator «urtzo» hitzatik baizik eta «urtu» aditzetik.⁴⁴

⁴⁰ Hain zuzen, idazlea bi hizkuntza-alorren artean zatikaturik sumatzen da. Batetik, ama hizkuntza duen euskara. Bestetik, erdara, nerabezaroan barneraturiko hizkuntza.

⁴¹ «Sandwitxekak», «french-bobi», «valse-a», «txa-txa-txa» edota «bougy» hitzen artean irizpide ortografikoen batasunik eza agertzen da. Erdarazko «ch»-ren partez «tx» lehenesten da lehen adibidean eta hala-hala bigarreanean «french» idatziz, huts egiten da. Bestetan, erdararen –frantsesaren –eta euskararen sistema fonologikoak gurutzatzen dira hitz beraren idazkeran: «bougy» izena irakurri behar da [ˈbu] eta [ːgr] elkarren segidan, arau fonologiko ezberdinak erabiliz hitz bakarrean.

⁴² ETXAMENDI, Eñaut (2009). *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 23-31.

⁴³ Ikus: <https://hiztegiak.elhuyar.eus/eu/urtzaro>

⁴⁴ Idazlearen sormen-askatasunaren muga hunkitzen da «atze ororen harrokeria harro-atzerkia edo arrotzkeria» (ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Urtzoak urrian aldatu», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 30) bezalako moldaketa agerian gelditzen denean. Zentzu horretan, hiztegi literarioa aberasteko Etxamendiren proposamenek akatsak izan baditzakete ere, gardenetasuna ere aitortu behar ere zaie. Izan, idazleak bere bilaketan partaide egiten du irakurlea.

1.2. EKAI LITERARIOA OSATZEN DUTEN DOMINANTEAK

Laborantza industrialaren aitzineko Garaziko mendialdea, amaren figuraren zentraltasuna eta erlijioaren gaiak dira Eñaut Etxamendiren obra narratiboan ekai literarioa erakusten duten hiru *dominanteak*.⁴⁵

A) *Laborantza industrialaren aitzineko Garaziko mendialdea*

Eñaut Etxamendik ekai literariotzat daukan Garazikoari deituko diogu industrializatu aurreko jendartea, sinkronikoki aro industrialaren garai historikoarekin batera gertatu bazen ere, oraindik eskala handiko aitzinamendu teknikorik erabiltzen ez zuen nekazaritzaren eta jendartearen antolaketaren ordezkari zelako.⁴⁶

1842an sorturiko Ezterenzubiko herria Nafarroa Behereko probintzian da, Garaziko kantonamenduan, Donibane Garazitik hamar bat kilometrotan. Auzo-herriak ditu Eiheralarre eta Lekunberri, besteak beste. Errozate, (1.345 m), Okabe (1.456 m) eta Bagargi (1.327 m) mendiez inguraturik dago. Harana hertsia da, XX. mendera arte bidez ez baina xendrez komunikatua:

Ni oroitzen naiz, bide hori lehen aldikotz egin zelarik ene aitaxiren anaia bat zen mera Ezterenzubin. Hola egin zen bidea. Bide hura gudronaturik, hain zen hertsia oraino, ezen dinamitaz jauzi eginik harriak egina, astoan zoatzin emazteñoek eta kasu egin behar zuten harri gerendan kopetaz jo gabe. Hainbestearaino da hertsia. Ez zen oraiko bide departamentala segitzen. Behar zen inguratu Lekunberritik edo handik beste nunbaitik eta han ere, mendi-lepo batzuk pasaturik. Beraz, osoki bereiz zen beste lekuetatik, fisikoki.⁴⁷

Administratiboki herrizat onartua izan eta bederatzi urtera, 1851n, biztanleriaren goiena jo zuen Ezterenzubik, ia bederatziehun bizilagun izanik. Gerora, Ezterenzubiko populamenduaren apaltzea etengabea izan da, eta gaur egun ia erdia da.

⁴⁵ JAKOBSON, Roman. *Huit questions de poétique*. TODOROV, Tzvetan (Ed.) (1977). Paris: Seuil, (Points Littérature): 188.

⁴⁶ AGIRREAZKUENAGA, Joseba (1985). «Euskal Herriko historia ekonomikoa», in INTXAUSTI, Joseba (Ed.) *Euskal Herria Historia eta Gizartea*. Donostia: *Jakin*: 251.

⁴⁷ Eñaut ETXAMENDIREN lekukotasuna, 2013ko abenduaren 13an Bitiriñan (Nafarroa Beherea) egin genion elkarrizketan.

Eñaut Etxamendiren narratiban, mendia *dominantea* da ezen hamazazpi urtez segidan, 1964tik 1981era idatziriko narrazio guztiak mendian kokatzen direlako. Haria ez da eteten, idazle zohituaren arora arte. Hain zuzen, 2011n, Etxamendiren narrazioak mendia eta mendiko bizi iragana islatzen ditu:

Bortueri begira zagon lanhoak mendietan altxatzen zirelarik, eta hegoak gain haietarik ardi joare baten kulunka iheskorra helarazten. (...) Beti, beti bi mundu bazerabilzkitan gogoan: etxeko alor bazter, pentze, oihan, sasu ta erreka ttipi pollitak... eta bortxaz, gogoarekin borrokan, egin behar ziren eskolako lanak, latin versione, español gramatika, frantses literatur ta holako.⁴⁸

Etxamendiren hogeita hamabi ekoizpen narratiboren corpusean, hogeit obrak dute mendia *dominante*. Beraz, Etxamendiren narrazioen % 62,50 mendiaren erabilpen topikoaren aldera doa. Bestalde, mendiaren gaiak narrazioaren dinamismoan parte hartzen du eta, aldi berean, narrazioari forma ematen dio. Izan ere, kokagune geografiko zehatza eskaintzen dio narratibari, antolaketa sozial bereziaren adierazpenak baimentzen ditu eta obra narratiboa errealismoan sailkatzen du.

B) *Amaren figuraren zentraltasuna*

Etxamendiren ekai literarioak amaren figura oso garrantzitsutzat dauka. Etxamendiren narratibaren corpus osoa proportzionalki antolatzen badugu, amaren figura biografikoaren agerpena ia % 44 da. Amaren figura arketipikoak segida hartzen dio %22rekin. Azkenik, izan biografikoa ala arketipikoa, amarekiko gatazkaren gaia narrazioen % 16 ingurukoa da. Etxeak, uler bedi baserriak, ingurugiro soziokulturala arautzen du. Nahitaezko erreferentzia eztabaidaezina da ekonomiaren, nola legearen edo politikaren alorrean ere. Horrek etxeari esleitzen dio izate sinboliko pisutsua. Ezaguna da etxea jende izatearen adierazle dela, ezen ematen baitu «izana eta izena»⁴⁹.

Euskal baserrietan, etxeko jauna, izan ohi da autoritatearen erakuslea. Caro Barojaren ustez, haren ondoan dagoen etxekanderearen garrantzia ez daiteke gutxiets:

⁴⁸ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Gizon Saindu eta maite-min», in *Idazlanen Bilduma V*. Baiona: *Maiatz*: 187.

⁴⁹ Oroit «Sortetxeari», Fernando Aire «Xalbador»-en bertso ezaguna: «Munduko leku maitena/Zuri zor dauzut naizena/izana eta izena». Ikus: AIRE, Fernando «Xalbador» (1976). *Odolaren Mintzoa. Auspoa*: 81.

Cualquier persona que vaya a un caserío corriente notará, sin embargo, la armonía que en él reina en la repartición del trabajo y uso de la autoridad, pues si bien es cierto que el amo, el padre o cabeza de familia, ejerce en determinadas circunstancias una autoridad suprema, la de la «etxeoandre» no es menor en otros.

Este respeto por la mujer casada que tienen, no sólo los hijos y el marido, sino la gente en general, me parece una de las cualidades mejores que se aprecian en el País Vasco.⁵⁰

Caro Barojaren adierazpenetik uler daiteke «goi-autoritatea» bikoitza zela aitzinako baserrietan. Gure kasuan, Eñaut Etxamendiren ekoizpen narratiboa kronologikoki hartzen badugu, agertzen den familiako lehenbiziko figura ama arketipikoarena da:

Ene lagunaren ama eri handiarentzat ari ginen.⁵¹

Eta narratzailearen lagunaren ondoan beste pertsonaietan lehena, etxekanderea:

Etxe ttipi bateko etxekandereak eman zaukun etxe-ogi baten erdia azal lodi haundi batekin erran eta Sant-Etsirat gindohatzila.⁵²

Etxamendiren ama biografikoak semearen obra narratiboan hitza hartzen duen estreinako aldia *Ene lehen ganieta* ipuinean da. Auzoko lagunekin eta anaiarekin jostailu xumeen trukez truke, Etxamendi haurrak lortu du noiz-bait, ganibet baten eskuratzea:

Ganiet ttipi bat hexurrezkoa. Hexur xurigorritzkoa. (...) Etxeratu-ta amari erakutsi nakon. «Kasu-mak galdu gabe». Johan nintzan korrале gaineko askarat.⁵³

Bere laburrean, amaren begirunezko ahotsa senti daiteke. Semeak erakutsiriko aiztoak zenbat balioesten duen ohar dela erran daiteke. Horregatik, prebentziorako aholkua. Horrek haurrari erakutsi nahi diola batetik, zuhurki jokatzearen beharra. Eta bestetik, ezinbestez gerta daitekeenaren iragarpena: galduak betiko dira galdu.

⁵⁰ CARO BAROJA, Julio (1984). «De la vida rural vasca», in *Nosotros los vascos*. Donostia: Lur: 177.

⁵¹ ETXAMENDI, Eñaut (1964). Laminak. *Herria*.

⁵² ETXAMENDI, Eñaut, Laminak (1964). Laminak. *Herria*.

⁵³ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Ene lehen ganieta», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 13.

Amaren figura biografikoak nola ere amaren figura arketipikoak Etxamendiren corpus narratiboaren hogeita hamabi lanetatik hogeita batean azaltzen dira. Agerpen maiztasunaren ondorioz, obra narratiboaren ekai literariotzat jotzen ahal da. Areago, amaren figuraren zentraltasunak osotasun koherente eta konplexua ematen dio obrari, hiru irudi hauen bitartez: amaren zaintza-oroitzapenak, emazte baserritarraren lanbidea eta amarekiko gatazka.

Azpimarratu behar da amaren figura biografikoak Etxamendiren obra narratiboaren ia mende-erdiko hedadura hartzen duela, 1968tik 2011 artean zabaltzen baita. Zehazkiago, esku artean dugun corpusean, berrogeita hiru urtetan luzatzen da.

C) *Erljioaren tematika*

Laminak idaztean 29 urteko gizona zen Eñaut Etxamendi zahartzaroan abiatu dago 2002an, 67 urterekin *Euskal Herriatik Afganistanerat eskuthitz* eleberri laburrari heltzen dionean. Ekoizpen horrek Etxamendiren literatura-bidearen heldutasun aroa irekitzen du. Ordutik 2011 arte, osagai biografikoen erabilpenaz edo autofikzioaren muga, erlijio kristauaren inguruko tabuak apurtzen eta urteetan pilaturiko saminaren botatzen ariko da Etxamendi: *Ithogian ito* (2003) *Martxoko loreak* (2006) *Orbaizetako neskatxa* (2009) eta *Gizon saildu eta maite-min* (2010-2011) eleberrietan, hain zuzen.

Euskal Herriatik Afganistanerat eskuthitz eleberri laburrean, elkarriketa epistolarraren aitzakian, Afganistango eta Euskal Herriko erlijioen konparaketa egiten du narratzaileak, «burkaren» eta behialako «mantelaren» ustezko zilegitasuna azalduz. Gizonaren ikuspuntua goretsiz, ironiaz, elkarrengandik urrun bizi eta bi kultura bereizitako kide izanik ere, emazteen «gaitz»-etik libratzen dituen Jainko bat –zeinek berea– badaukate Omar Ben Abdulah Afganoak eta narratzaile euskaldunak. Narrazioak zentzu bikoitza lantzen du. Hizkuntza bokatiboaren erabilpenak komunikazio-harremana salatzen du eta bi gizonen arteko genero-elkartasunaren irudipen hurbila. Narrazioa antifrasean antolatuta dago, kontraktasunez, agerian uzteko hain zuzen bi erlijioek, kristauak zein mahomatarrak, etsai bera dutela laidoztatzen: emakumea.

Gisa horrez, narrazioa auzi etikoaren muinera ailegatzen da eta narratzaileak / autoreak pentsatzen duena adierazten du: kristautasunaren nola islamismoaren testu sakratuek gizonen kontzientzia gaitzaren aurreko erantzukizunetik libratzeko asmoz eraiki zuten zilegitasun-sistema salagarria da. Hots, idazle gisa, Eñaut Etxamendiren erlijio-gaiarekiko posizioa anbiguotasunik gabea da, bere

ibilbide literarioaren azken txanpan: erlijioa bat edo beste izan, monoteismoaren hegemoniarako zaletasuna gaitzesten du.

Euskal Herritik Afganistanerat eskuthitz eleberria eta haren hurrengo lauek ziklo bat osotzen dute. Honela, *Ithogian ito* eleberriak erakusten du ezkondu-rik baino seme apezgaia hilik maiteago lukeen ama: Mariaño.

Euskal Herritik Afganistanera eskuthitz eleberriari oihartzun egiten diote emetasunaren izate «labainkaria»⁵⁴ erakusten duten hitzok. Baina Etxamendi- ren narrazioan Omar Ben Abdulahk ama euskaldun bati utzi dio dogmatis- moaren ordezkari. Zentzu horretan uler daiteke, monoteismo kristauaren emazteak laidoztatzeko doktrina ez dela izan gizonak jendarteratua bakarrik, baina eta emazteek beraiek garraiatua ere. Lepoko baten aleak bezala, *Ithogian itho* eleberri laburrari harilkaturik doazkio *Martxoko loreak*, *Orbaizetako nes- katxa* eta *Gizon saindu eta maite-min* narrazioak ere.

Martxoko loreak narrazioan, osagai autobiografikoak ezin gorde ditzake Beñat pertsonaiaren erabilpen narratiboak. Horren gibelean, Eñaut Etxamendi- dik hemezortzi urtetan –amarekin eta apez-eskolako arduradunekin apaizgoa uzteko tirabira gorenean zegoela– bizi izan zuen amaren galtzea kontatzen du:

Atea idorki joitzen dio norbaitek: Seminarioko buruzagia!

–Berri txarra bada, Beñat, otoi, barka! Ezin nizaizu bestela mintza.

Beñat ahoa zabalik zagon, begiak ihurtzuria bezala:

–Ama!

–Bai!⁵⁵

Azpimarratu behar da halere, Eñaut Etxamendik gertaerok hirugarren aldiz fikzionalizatzen dituela: *Urtzoak*, *Ithogian ito* eta *Martxoko loreak* honetan, hain zuzen. 2006. urtea da eta hirurogeita hamaika urte ditu. Eta pentsa daiteke, hirugarren pertsonaren narratibizazioa aukeratuz, lehen pertsonan bizi izanda-koa barnetik eta xehetasunetan argitaratzea baimentzen diola bere buruari. Amarekiko Beñatek dituen sentimendu kontrajarriak Etxamendirenak izan dai- tezke. Autofikzioaren baliabideari esker, Etxamendik apez-eskolako esperien- ztiaren bortizkeria bitala eta psikologikoa euskal literaturara ekartzen du:

⁵⁴ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Ithogian itho», in *Idazlanen Bilduma V*. Baiona: *Maiatz*: 84.

⁵⁵ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Martxoko loreak», in *Idazlanen Bilduma V*. Baiona: *Maiatz*: 123-124.

Hamabost urte... Gorputz eta gogo, hego firfira batek ikar-arazten, amets-lore. Bainan, ispiluari begiratu eta, neure begien soto zokoan herio-mina bezalako bat: «kartzela huntarik noiz eta nola elkiko ote hiz?» Bizitik kanpo, mundutik bazter.⁵⁶

Presio doktrinarioaren bizipen intimoa ere kontatzen du:

Gauaz ofean, logela hotz burdinduan, burua estalgien pean jarri nintzan, frangotan egiten nuen gisarat: herriko laguneri ta etxeko anai-arreberi pentsatzen. «Zeren orduan ikusten baititut ene barneko bazter zoragarriak loratzen». Nigarra jiten zen, iturritik ura bezala. Beharritan musika pollit trixte bat...⁵⁷

Honela, *Euskal Herritik Afganistanera eskuthitz* eleberritik *Gizon saindu eta maite-min* eleberrira, gradazio baten asmoa suma daiteke. Batetik, ama zenaren oroitzapen minduarekiko baketzea idatzirik uzteko gogo. Bestetik, Ipar Euskal Herriko apaiz-eskoletan zazpi hamarkada lehenago jazotako en salatzeko helburuan kontzentratzea, eleberririk eleberrira. Zilegi da pentsatzea Etxamendiren eleberrietan agertzen diren seminarioko apaiz erakasleak ezagunak direla, ezen famatuak eta euskal kulturaren izen handikoak izan, badirelako. Era berean azpimarratu behar da Eñaut Etxamendik izen propiorik ez salatzeko lan narratibo berezia egiten duela, izenak aldatuz, goitizena asmatuz, fraidetxearen izenik ez emanez, eta beste.

1.3. ETXAMENDIREN OBRA LITERARIOAREN ERAIKUNTZA-PRINTZIPIOAK

Hiru osagai dauzkagu Eñaut Etxamendiren narratibaren eraikuntza-printzipioetan: alegorizazioa, oroitzapenak eta gaurkotasunaren aipamenaren errekurso literarioa.

A) *Alegorizazioa*

Etxamendiren obra literarioaren corpusean, alegorietan sailka daitezkeen lau ekoizpen aurkitzen ditugu. *Laminak* (1964) eta *Azken elurra* (1974) elebe-

⁵⁶ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Orbaizetako neskatxa», in *Idazlanen Bilduma V*. Baiona: *Maiatz*: 153.

⁵⁷ *Ibid.* 159.

riak dira. *Urtzuak aldatu urrian* (1966) eta *Lipu belarra: negu-lorea* (1983) prosazko olerki luzeak dira. Atal honetan, alegoriak Etxamendiren narrazioa eraikitzeke dituen berezitasun eta funtzioak erakusten saiatuko gara *Laminak* (1964) eleberriaren bitartez.

Garrantzitsua da 1964an *Laminak* atalka agertzen hasten delarik, Eñaut Etxamendi idazle hasiberria dela konturatzea. *Laminak* zein *Urtzuak aldatu urrian* izengoitiz plazaratzen ditu: Rafael Intzaurreta lehena eta Rafael Zuhañeta bestea. Pentsa daiteke ziurtasun-eskasiak anonimotasunera bultzatzen duela. Zer ziurtasun-eskasiak, baina? Ipar Euskal Herriko jendartea trantsizioan badago ere, Elizak botere handia dauka eta kulturaren sarturik dago «sentsu antropologikoan». ⁵⁸ Apaiz-eskolatik apaiztu gabe atera ikasle ohiak nola egin zezakeen idazlearen bizi publikoa? Izengoitia atakatik jalgitzeko aterabidetzat uler daiteke. Bestalde, maila biografikoan ezin ahantz daiteke Eñaut Etxamendik 1947tik 1958rako ikasketa-urteak Belokeko fraideen edo Tolosako Purpan Ingeniaritza Eskolako Jesuiten eskolan iragan zituela. Sortetxean ikasketak ordaintzeko adina dirurik ez, baina gaitasun handiko ingeniari gaia nabarmendurik, eskolako zuzendaritzak tratu berezia proposatu zion. Horrek halako zor materiala –ikasketez gain Eñaut Etxamendik ikasketak ordaintzeko zaintza-lanak egin behar izaten zituen ikastetxean– baina ere morala ematen dio fideltasuna baliotzat daukan Ezterenzubiko semeari. Soziologiako Bourdieuren hiztegiaren ⁵⁹ esan genezake Eñaut Etxamendi Elizaren eta haren eskolako instituzioaren botere sinbolikoaren menpean dagoela.

Laminak eleberria osatuko zuen osotasunaren lehen alea 1964an ⁶⁰, *Herria* astelehenak eskaini orrietan argitaratu zuen Eñaut Etxamendik. Modu orokorrean, Eñaut Etxamendiren narrazioak alegoriarako gaitasun eta joera nabariak dauzka. *Laminak* narrazioaren kasuan, alegoriaren indarra doinu errealistaren eta sinboloen bidez lortzen du:

Sinbolismoa ere subkontzientean sartzen da (barne munduko irudi enblematico horiek, denboraz kanpoko ingurunean kokatuak, ametsetakoak, ikuskizun liluragarri eta oposizio-mundu bati dagozkionak dira, irudimen logiko bati baino

⁵⁸ ITÇAINA, Xabier (2012). *Euskaldun fededun. Errepublikaren oroimen urratuak*. Baiona: *Elkar*: 89.

⁵⁹ BOURDIEU, Pierre (2001). *Langage et pouvoir symbolique*. Paris: Fayard: 423.

⁶⁰ Argitalpena puskaka egin zen, 1964ko urriaren 8tik, 1965eko urtarrilaren 21a bitartean, hamahiru emaitzetan. Emanaldi bakoitzean, «Ixtorio mixterio» goi titulua zetorren, hizki larriz idatzirik eta azpimarraturik, *Laminak* tituluaren gainean. Eleberriaren agertaldi bakoitza bukatzeko, ezizenez izenpeturik zegoen: Rafael Intzaurreta.

areago). Mito eta errito inizatikoekiko interesa sortzen da eta inimizioen etapak islatzen dituzten alegorien adibideak eskaintzen ditu literaturak.⁶¹

Definizio honi jarraikiz preseski, *Laminak* elaberrian Eñaut Etxamendik agertzen duen «barne munduko irudi enblematiko»-ak ezagutuko ditugu. Pagobeltzeta laguna eta narratzailea aurkezten dituen narrazioa iragan bururatuan idatzia da. Bi adiskideak Sant-Etsi izeneko beila-lekura doaz, erromesaldian. Orduan, Bas-Haran-Saro herrialdearen izatearen berri jakiten dute eta erabakitzen dute hartaratzea. Gidari berezia behar dute eta mendian zazpi egunez ibili. Zazpigarren egunean, Bas-Haran-Saro agertzen zaie.

Herrialdearen irudikatzea hiru deskribapenetan jorratzen du *Laminak eleberriaren* narrazioak: deskribapen fisikoa, humanoa eta Bas-Haran-Saro herrialdearen misterioa.

Bas-Haran-Saroko lehen ikuspegiak Garaziko mendialdeetara hurbilazaten du, paisaiaren aldetik. Alta, Etxamendiren narratibak usatuaren kontra, paisaiak pizten duen narrazioaren lirikotasuna horretan bururatzen da:

«Tokian gara» erran zuen.

Herrialde xurien gainean arranoak bazabiltzan inguruka. Xendra txar bati behera jeutsi ginen etxe multzo baten arterat. Plata gisako zabal baten erdian gizon baten hezurak tente zutik alanbre batzuek josirik!⁶²

Lekuen deskribapen fisikoari gaina hartzen diote baina, gune horretan agitzen diren izugarrikeria makabroek. Doi-doia jakiten da malda batetik «jautsi» behar dela Bas-Haran-Sarotaratzeko eta bertan, «plata gisako zabala» dela, hots, zeharo ordokia. Baina nolako jendeak bizi ote dira Bas-Haran-Saron? Nor ote dira hango biztanleak? Narrazioak honela dio:

Gure izialdura jabaldu zitzaukun ikustearekin gu bezalako jendeak Bas-Haran-Saron eta gu bezala mintzo.⁶³

Eta laster, jendartearen antolaketa sozialaren berri ematen du:

⁶¹ ALTZIBAR, Xabier (2008). «Alegoria», in *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia: 34.

⁶² ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Laminak», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: Maiatz: 43.

⁶³ *Ibid.* 45.

Bas-Haran-Sarotarren artean ardi-saldo haundienak zituztenak Laminek eginak zituzten Azti.⁶⁴

Azpmarragarri da alegorizazioaren ulermenerako baliokidetze-sistema nekazaritzaren alorrean oinarritzen dela. Bas-Haran-Saro baina, zeharo herri misterioitsua da. Hara heltzeko baldintza bereziak behar dira:

(...) jenderik ikusi gabe ibili behar.⁶⁵

Eta narrazioak ongi erakusten du zer inguru mehatxugarria den Bas-Haran-Saro:

(...) labetei baten hegatz hegian bi metretan arrano bat finkaturik eni so begi-begirat ! Moskoak xixtatu behar zautala kopeta iduri, buruko min ubel bat lotu zitzautean bekainetan.⁶⁶

Bas-Haran-Saroko bitxikerietan aurrera, narrazioak seinalatzen du herriak bi hizkuntza dituela, eginkizun eta jende-klase bereziari zuzenduak bat edo bestea:

Bas-Haran-Sarotarrek bazuten beren mintzaira, baina bertalde bazen Laminek mintzaira bat.⁶⁷

Hots, ulertzen da mailakatze soziala hizkuntzaren bitartez gorpuzten dela. Eta horrek hain zuzen, injustizia egoera baten azalpena ekartzen du. Hau agertzen da narrazioak Bas-Haran-Saroko iragana kondatzen duenean:

Bekatu orisinala. (...) Zuela zenbait mende, arbasoak elgarren artean tira-biraka eta aharran hasi omen ziren. Ez elgarren laguntzetik gelditu bakarrik baina elgarri kalte egiten hasi. Orduan Jainkoak hitzeman urka-bilurra estekatu zaien lepotik: Jainkoak bekatu hortaz gaztigatzeko igorri *Laminak*.⁶⁸

Hau da, Bas-Haran-Saro ez ei da beti izan narratzaileak eta haren laguna Pagobeltzetak ikusten duten bezain okaztagarria. Lehen, egoera idilikoan bizi zen, baina biztanleen erruz hura desagertu zen. Balioen apurketa lagundu

⁶⁴ *Ibid.* 51.

⁶⁵ *Ibid.* 41.

⁶⁶ *Ibid.* 43.

⁶⁷ *Ibid.* 54.

⁶⁸ ETXAMENDI *Ibid.*, 57.

zutenez, Jainkoaren zigorra jasan behar izan zuten eta Bas-Haran-Saro higuin-garria bihurtu zen. Alegiaren gisan, *Laminak* «beste gauza batez mintzo» da.⁶⁹ Honela, Eñaut Etxamendiren narratibak agertzen duen barne munduko irudi enblematikoetan, alegoriak nazio-askapenaren aldarria egiten du:

Bainan zorigaitzez Laminendako, Bas-Haran-Sarotarrak etziren holakokeriez izitzen: etzietena bada Laminek berek har-arazia usaia herioari soegiteko, leizafineri eta arranoeri jartzeko? *Ohartu gabeen, berek apailatuak zituzten beren etsaiik zailenak.*⁷⁰

B) *Oroitzapenak*

Memoriaren lanketa Eñaut Etxamendiren narratibako eraikuntza-printzipio garrantzitsua da. 1968. eta 2011. urteen artean ekoitzi dituen sorkuntza literarioak kontuan harturik, 32 narrazioetatik 24tan oroitzapenen kontakera daukagu. Hain zuzen, Etxamendiren narrazioak bi maneratan landu ohi ditu oroitzapenak: modu autobiografikoan edota, idazleak memorian mantendu dituen noizbait entzundako gertakizunak jorratuz eta narratibizatuz. Oroitzapenak ekai literario bihurtzeko Etxamendik duen maneran eboluzio gardena ematen da. Haren narrazio gehienak oroimen biografiko saminarean alorrean hasi eta bukatzen badira ere, haien aurrean idazleak duen jarrera animikoa eta, ondorioz, literarioa aldatzen doa, denbora iragan ahala. Honela, «gau-borrok»⁷¹ erauntsi ondoren, idazlearen sentipenak zoritzen eta baketzen dira. Oroitzapenen aurrean tristura eta injustizia sentimendu bera izan arren, erreakzioa jabalduagoa da, Etxamendiren azken ziklo literarioaren bukaeran (2002-2011). *Urtzoak* eleberri labur autobiografikoan, azaltzen da lehen aldiz haurtzaroko apurketaren kontakizuna: amak semearen apaizgaitegira joateko «baia» eskuratu baitzuen:

Sekulan orhoituko niz: lo-alditik jeik eta gertatu zen delako «baia». Gero, atsaldaskariaren gizoneri eremaiterak igorri ninduen potta haundi bat emanik. Kanporatu eta hurrats egitean lurra oinez ez nuen seinditzen.⁷²

⁶⁹ ALTZIBAR, Xabier (2008). «Alegoria», in *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia: 35.

⁷⁰ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Laminak», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: Maiatz: 96.

⁷¹ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Urtzoak urrian aldatu», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: Maiatz: 27.

⁷² ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Urtzoak», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: Maiatz: 68.

Etxamendiren narratiban ohikoa da oroitzaren printzipioak mendi eskualdeko biziaren, jendeen, landaretzaren eta animalien ekai literarioa eraikitzea. Sentsualitatea usain eta gustuen bidez agertzen da:

Zama ideki nuelarik ! Usain bat moxkorgarria aitak hil urtzo bat han bazen amak erra arazirik. Geroztik urtzokiak badauka enetzat Jinkozkotasun bat osoa. Zalveteko urtzoa...

Urtzoki hura jatean, jaten nituen gure sorlekuko mendi hegi gora eta pagadoi beltzak. Aldiz leihoko burdin geheta artetik ageri ziren apheztoki hartako mendixka txar hitsak... Urtzoki harekin Behobiko hegoa heldu zitzauntan erraien barnerat. (...)

Bazen ere ukan nuen zama xarmant hartan untzi ttipi batean ezti beltza: Anaia Attinek Antsoloko oihanean harrapatu bas-erlearen ezti ! (...) Ezti haren ezti ! Agerre Saroko hegia hartan, ikusten nuen, bai eta Attondoko potxak, Iru-pile, Darteko oihan hegaletan, Antsoloko borda eta... Ezti haren ezti !⁷³

Etxamendiren narratiban memoria autobiografikoaren eraikuntza-prinzipioa kantuekiko formalki loturik aztertu behar da. Kasu horretan dagoen lehen kantua ama zenduaren oroitzapenez egin da: *Tiki-taka*. Onomatopeiak astoaren urratsaren soinua erakutsi nahi du. Izan ere, amaren eta astoaren arteko harremana denboraren eta *Menddiburua* etxaldearen gorabeheren markatzaile baita. *Dartemalda* ipuina Etxamendi gizon gaztea sortetxe hustura itzultzen deneko kontakizuna da:

Astori etzen... Lopebeltzerat sogin eta hango ariak, behorak eta zinur-oskiak ere arrotz. Sogin nuen Harri-Kotorretako maldarat: auto bat goiti bazoan bere tarranta irringarriekin... Bainan? Otar malda hartan ikusten dut asto bat. Bat bakarrik. Lehengo ihauteriak hegoan...? Jarririk Dartemaldako Larrean astoari so... Etxeratu eta, gaua. Jarri nintzan zoko batean, oro lokartu zirelarik, paperrarekin eta arkatzarekilarik eta hasi: *Tiki-taka, tiki-taka. Ibilki da astottua goizik...* Zenbat nigar musika nota batean...⁷⁴

*Orbaizetako neskatxa*⁷⁵ eleberriarekin, Etxamendiren narratibak memoriaren erabilpen literarioaren goia jotzen du. Ordura arte hango eta hemengo narrazioetan

⁷³ *Ibid*, 74.

⁷⁴ ETXAMENDI, Eñaut (2011) «*Dartemalda*», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 16-17.

⁷⁵ Eleberriaz gain, *Orbaizetako neskatxa* kantu bat ere bada, Etxamendi eta Larralderen kantagintzan ezagunenetarik.

utzi dituen harizko firuak batzen dira bertan eta ehunaren osotasuna preziatzera uzten dute. Narrazioa lehen pertsonan idatzia da eta narratzaile intradiegetikoaren izenik ez dugu. Hau da, uler daiteke idazlea ez dela kontakizunaren anonimotzeko gogoz ari eta aldiz, kontaktutakoa bere egiten duela. Ezen adierazi beharrak zama handikoak baitira. Autobiografikotasun osoan, Eñaut Etxamendik kontaktzen du Graxiana Gueçaimburu adoratzen zuen amak nolako mina eragin zion, apaizgaitegira bideratuz lehenik eta Orbaizetako neskarengandik urrunaraziz, ondoren. Hain zuzen, neskatxa horri esker, Etxamendi idazleak buru egin ahal izan zion Eneko Irigorrieta –hau haatik, fikziozko izena delarik– apaiz-eskolako buruaren jazarpen psikologiko ikaragarriari lehenik, amaren heriotzak sorturiko fideltasunaren urratzearen kulpabilitateari ondotik eta bizi berri baten aurkitzeari, azkenik. Izariz gaindiko kemen horren emailea nor eta, *Orbaizetako neskatxa*.

Ohartzen gara Eñaut Etxamendik ekai literariotzat jorratu izan duela haren baitako oroitzaren adierazgarritasun narratiboa. Baina jabetu behar da memoriaren jarioa zenbateraino eta zein maisuki menperatzen duen. Batetik, denboran urruntzera utziz. Amaren lehen oroitzapen narratibizatua 1973koa da. Amaren galtzearen lehen agerpen literarioa, 1982koa. Eñaut Etxamendik ez du bere sufrikarioa ez bere negarra gordetzen.⁷⁶ Bai aldiz, amaren heriotzaren inguruan harilkatu zen drama. Korapiloa Etxamendiren zahartzaroan askatzen hasten da. Bestetik, oroitzapenak gertatu ziren urteetatik urrunago, eta idazlearen memoria-lana barnerago sartu da xehetasunetan, arrailduretan. Zauria hondoraino sendatzearen behar terapeutikoa asetzen balu bezala.

C) Gaurkotasunaren aipamena

Iraganak hunkia baina ere, zegokion munduan bizi izan da Eñaut Etxamendi. Hots, gaurkotasunari loturik, hainbat eztabaida segitu eta elikatu ditu, kultura, ekonomia eta politikaren munduan. Modu agerian ala ez, Etxamendik gaurkotasunaren erabilera literarioa behin baino gehiagotan egin izan du. Baina zertaz ari gara «gaurkotasuna»-z hitz egitean? Eta horrek nola eraikitzen ote du Etxamendiren narratiba?

Gaurkotasuna izan daiteke soilki, ekoizpena gaurkotasunean erroturik izatea. Sail honetan adelatu ditugu lau lan: *Frantxix* (1984), *Félicie* (1997), *Laberintoa* (1998) eta *Euskal Herritik Afganistanerat eskuthitz* (2002). Baina

⁷⁶ Oroit: «Zenbat nigar musika nota batean». «*Dartemalda*», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 17.

gaurkotasunak eraikuntza-printzipioa betetzeak erran nahi du ekoizpena idatzia izan zeneko gaurkotasun politiko-sozialaren edo kulturalaren oihartzuna entzun daitekeela narrazioan. Eta hain justu, kasu horretan daude Etxamendiren narratibako zazpi obra hauek: *Laminak* (1964), *Urtzuak aldatu urrian* (1966), *Elurra zikindurik* (1968), *Azken elurra* (1974), *Lipu-belarra: negu lorea* (1983), *Urtzoak* (1984) eta *Gilentegiko Gilen* (1987).

Multzo hau kontuan hartzen badugu, gaurkotasunaren erabilpen narratiiboak ondorio garrantzitsuak ditu. Denboran egindako kokapenez gain, euskal jendartearen orduko gorabeheren berri ematen du. Zenbait aldiz, narratzailearen ikusmoldea ez bada idazlearena salatzeraz datorrela.

Azken elurra hautatu dugu ikerketa-atal honen paradigmatzat. *Azken elurra* (1974) eleberriak egunkari baten itxura dauka. 1965eko azaroaren 15etik 1966ko azaroaren 11ren artean gertatzen da. Pertsonaia nagusiak Begoña Irargorri eta Goñi Araneta dira, hauen aita-amak eta Begoñaren ahizpa bat. Aipagai nagusia Euskal Herritik Frantziara lanera joandako eta herrira itzuli ez diren emazte gazteen izatea da.⁷⁷ 1965eko azaroaren 15ean, Goñik eta Begoñak maitasun hitza eman diote elkarri. 1966ko azaroaren 11n, berriz, bikotea galdurik, errautsirik, Goñi bakarrik doa Kaliforniara: Euskal Herriko azken elurra ikusiko du. Tarte horretan, Begoña lanean hasi zen, lehenik Donibane Garazin, gero Baionan. Haren azken arrastoa Bordelen galdu zen. Goñi Amerikaratzeko zorian, inork ez zekien Begoña non ote zegoen. Haatik, Goñik bazekien paraxutista batek bortxatu zuela eta haurdun zegoela.

Narrazioak *Azken elurra* eleberria eraikitzeke hainbat maneratan erabiltzen du gaurkotasuna: egunkariaren forma literarioa hartuz, bai eta ekonomia eta politika alorreko 1960ko urteetako datu eta gertakari errealetan oinarrituz. Narrazioa egunkariaren moduan idatzirik izateak gaurkotasunaren efektua sortzen du. Urte bateko epean, Begoñaren eta Goñiren biziak iragaten dira, unerik une:

1965- AZAROAREN 15

Goñi, bazkazko ardiak aintzinean, heldu zen bideari behera. (...) ⁷⁸

1966- MAIATZAREN 5-a OSTEGUNA

Gauerdi zen. Begoña bere ganbara txarrerat igarana zen. ⁷⁹ (...)

⁷⁷ *Azken elurra Eskual Herritik galdu nextatxeri* dio *Azken elurra* eleberriaren paratestuak.

⁷⁸ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Azken elurra», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 31.

⁷⁹ *Ibid.* 113.

1966-AZAROAREN 11-a OSTIRALA

Azken eguna.

Goñik johan behar zuen Pariseerat beste 30 bat mutiko gaztekin.⁸⁰

Azken elurra-n, artzain-munduaren ondoan Begoña dagoen hiria agertzen da eta euskal politika garaikidea ere:

1966- URTARRILAREN 4-a Asteartea

(...) Enbatako gazte eskolatu bat mintzaldi baten egiten ari zen. «Bai, arras behera joanak gira ! Lantegirik ez dugu hemengo Eskual-Herrian eta urte oroz bi mila eskualdun gazte badohatzi deabruetan barna, ahal duten tokietarat bizipideketa ! (...) Ez ! Ez ! Dautzuet ! Ez dira gauzak behin betikotz hola eginak, mendiak eta itsasoak bezala ! (...) Denek bertan NAHI BALINBADUGU, izanen da ESKUADI azkar, sano eta libro ! GORA ESKUADI !»⁸¹

Ez dira eiki, guk azpimarratzeko gogoz eginak: *Azken Elurra* eleberrian hizki larriez datoz hitzak. *Enbata* 1963an⁸² abiatu zen, hau da, *Azken elurra* eleberriak markatzen dituen urteak baino bi lehenago. «Eskuadi» izenaren hautua eginik, *Enbatak* Frantziako estatutik berezi nahi lukeen Ipar Euskal Herriari izatea aitortzen dio. «Eskuadi»k oihartzun egiten die Hego Euskal Herrian 1960ko urteetan abertzaletasunak zerabiltzan «Euskadi» ala «Euzkadi» izenei, hain zuzen.

Etexamendiren narratibaren gaurkotasunarekiko loturan, Ipar Euskal Herriko populamenduaren emigrazioaren gaia dugu. Honela, *Azken elurra*-n egiten den *Enbata*ren eskupaperaren edukiaren birjasotze literarioa eta GETIS taldeak 1970ean Behe Pirinioetako departamenduan buruturiko inkesta bat datoz. Ohar gaitezen, hurrenez hurren:

Urte guziz Donibane ta Uhartan den beno geihago jende badoha. Ta nola higatzerat anitzak gaixoak? Zenbat donado Ameriketan? Zenbat neska zeikaturik bazterretan? (...) ⁸³

⁸⁰ *Ibid.* 219.

⁸¹ *Ibid.* 37.

⁸² «1963: Enbatak Aberri Eguna antolatu zuen Itsasun, abertzale mugimenduaren oinarritzko gertakaria izan zen Ipar Euskal Herrian.» Horrela zion 2013ko uztailearen 20an Eusko Ikaskuntzak antolatu «Duela 50 urte: Enbata Iparraldeko abertzaletasunaren iturria» jardunaldiaren aurkezpenak. Ikus: LARRASQUET, Jean Michel (Ed.) EUSKO IKASKUNTZA, MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTOA. *Duela 50 urte: Enbata Iparraldeko abertzaletasunaren iturria*. Baiona: Eusko Ikaskuntza; Manu Robles-Arangiz Institutoa.

⁸³ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Azken elurra», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 36.

L'émigration qui touche particulièrement les jeunes concerne en premier lieu les filles. «Dans la tranche d'âge de 20 à 25 ans, il ne reste dans nos villages qu'une fille pour deux garçons, souligne l'enquête d'Eskualdun Gazteria⁸⁴ de mai 1969. Rien d'étonnant à cela: si, dans le département des Basses-Pyrénées, sur 100 femmes de plus de 15 ans en 1968, 33 travaillent (35 dans l'État français), c'est entre 20 et 24 ans que le taux d'activité féminine est le plus fort (61%).⁸⁵

Enbata mugimenduko kideak «eskolatuak» direla dio *Azken elurra* eleberriko narrazioak. Hain zuzen, ikaskuntza eta gazteen prestakuntza profesionala, horra 1960ko urteetako Ipar Euskal Herriko gaurkotasuneko beste griña bat. Adibide bat ematearren, ikus dezagun 1965eko urtarrilaren 7ko *Herria* astekariaren iragarki hau:

GARAZIKO GAZTEENTZAT: «Stage d'éveil professionnel». Laborantxari ohartzeko bilkurak, 20 urtez petikako gazteentzat. DONAZAHARREKO laborarien eskolan, Urtarrilaren 16-etik haste, bortz ebiakoitzez (9 orenetarik arratsaldeko 5-ak artio) (...) Izenak igor: Responsables M.R.J.C-Ecole de Mayorga Saint-Jean-Pied-de-Port.⁸⁶

Arazo ekonomikoen deskribapenaren bidez halaber, 1960ko urteetako gaurkotasunean giotzen du *Azken elurra* eleberriko narrazioak. Kasurako, Lapurdiko Hazparne edo Zuberoako Maule herri industrializatuen lantegi-hesteak:

ESKUALDUNAK ! Zaitte hola-hola hortzez iguzkirat. Juduer desertuan bezala Jainkoak igorrikoren dauzkitzue mana eta kallak. (...) Egizkitzue epizeria eta ostatu ederrak:

–Iholdiko kantonamenduak zortzi urtez galdu ditu 300 jende.

–Garazi-Baigorrik 15.000 jendetarik 1.600.

⁸⁴ Eskualdun Gazteriari buruz, hona Peio Iralourren (Donazaharre, 1947) lekukotasuna: «Euskaldun Gazteria était véritablement alors un mouvement d'église. Son secrétariat était pris directement en charge par la Maison Diocésaine de Bayonne; l'aumônier du mouvement était choisi par l'Évêque; le passage de témoin d'une génération de jeunes à une autre était contrôlé par l'Église.» 1968ko Frantziako Maiatzak kinperrez gora igorriko zuen zuzendaritza erlijiosoa eta Euskaldun Gazteriak elizarekiko harreman laxoagoak bideratuko zituen.

⁸⁵ LOUGAROT, Gisèle (2008). *Pays Basque Nord: Mai 68 en mémoires*. Donostia: Elkar: 28.

⁸⁶ *Herria* astekaria, 1965/01/07, 754. alea. Eskertu nahi ditut Peio Jorajuria, *Herria* astekariko kazetari eta arduraduna bai eta Maixan Brément, *Herria* astekariko idazkaria, *Herriako* artxiboak ireki zizkidatelako 2013ko udan.

–Atarratzeko kantonamenduan kilometra karratuko 10 jenderik ez da.

–Maulen 500 langile lanik gabe gelditu dira.

–Bokaleko burdin-olha kendua izan da...

–Ahazparden 200 langilek lana galtzen dute.

Zoazte guziak Pompidouri eskermilen bihurtzera ilabete ondarrean: faltarik ez gero!⁸⁷

Egiazko datua da 1967an, Hazparneko zapatagintza industriak azken hatsa izan zuela.⁸⁸ Orduan *Basque-Éclair* egunkarian ari zen Jean-Baptiste Dirassarek honela idatziko zuen Hazparneko 1967ko maiatzaren 10eko manifestaldiaren kronika:

(...) la population d'Hasparren a magnifiquement répondu à l'appel. (...) Les Hazpandars ont admirablement montré leur détermination à agir dans un élan de fraternelle solidarité.⁸⁹

Azken elurra eleberriak Georges Pompidouren aipamena eginez, gaurkotasunean deblauki errotzen du narrazioa arrazoi bat baino gehiagorengatik. Batetik, Pompidou De Gaulleren lehen ministroa izan baitzen 1962. eta 1968. urteen artean. Kointzidentzia kronologikoa dago beraz *Azken elurra* eleberria 1965 eta 1966 artean iragaten denez.⁹⁰ Baina bestetik, Pompidouren irudiak De Gaullerena islatzen du, haren laguntzailea izan zelako 1944. urtetik hara. Beraz, zeharka, biek Bigarren Mundu Gerlatik ateratako gizar-tea islatzen dute eta horren piztaile izanen diren tentsioen adierazgarri dira. Azkenik, jakin behar da 1967ko hauteskundeetan, De Gaullek Ipar Euskal Herriko hautesleen gehiengoa eskuratu zuela. Hazparden adibidez, bozen % 69 bereganatu zituen. Atharratze, Biarritze eta Baiona Ekialdea izan ziren De Gaulleri gehiengoa esleitu ez zioten kantonamendu bakarrak. Bi urte beranduago, Georges Pompidouk izanen zuen De Gaullek izandako sostengu elektoral.⁹¹

⁸⁷ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Azken elurra», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 165.

⁸⁸ LOUGAROT, Gisèle (2008). *Pays Basque Nord: Mai 68 en mémoires*. Donostia: Elkar: 135.

⁸⁹ *Ibid.* 136.

⁹⁰ Ondotik, Georges Pompidou Frantziako lehendakari izan zen 1969tik 1974ra. Ezaguna da Frantzia modernizatzeke azpiegitura-plangintza handiak jarri zituelako martxan. Nekazaritza ere modernizatzen lagundu zuen, besteak beste teknologia fitosanitario berriak sartuz.

⁹¹ LOUGAROT, Gisèle (2008). *Pays Basque Nord: Mai 68 en mémoires*. Donostia: Elkar: 229.

Azken elurran, narrazioak kitzikatzen ditu hain zuzen, De Gaulleren eta, ondotik, Pompidouren politiken segitzaile diren euskal hautetsiak. Hau da, Etxamendiren narrazioa guztiz partidista da: frantses estatuaren politikarekiko kritiko den ikuspegi abertzalearekin lerrokatzen da.



2. ETXAMENDIREN «СКАЗ» AHOTS NARRATZAILEA

Hizkuntza gaitasun fisikoa da lehenik eta behin: hiztunek ahoskatzen eta hitzez airatzen dute. Hitz egin, nola? Hitz egin, zertarako? Hizkuntza funtzionala izan daiteke, komunikazio tresna hutsa. Edo, iruditeriaz, irudimenaz eta bestez jantzia:

Erdaraz ez dakien euskaldunakaz izketan ibili ezker, esakera oso politak entzuten yakez. Esakerok euren artean, euskerearen erraietan sortu izan dirala uste izan leike, erderatik etorri barik, eta augaitik atzegin andiz batuten doguz entzuten doguzanak.⁹²

Preseski, herriaren «erraietan» ikertzen hasi zen hainbat jakitun Europa osoan, XIX. mendean. Frantzian, Paul Sébillot izan zen «folklore» hitza lehenetsi zuena, herrikoitasunaren ezaugarriak izendatzeko. Sébillot-i ere zor zaio, 1881ean atzematen den «ahozko-literatura»-ren terminoa.⁹³ Herri zein ahozko-literatura, biek ere hizkuntzaren jokaera den sorkuntza estetikoa dute abia-leku.⁹⁴ Hain zuzen, *сказ* delakoa hizkuntzaren ahalmenaren ezagutza bikainean oinarritzen da.⁹⁵ Izan ere, *сказ* kontzeptuak hainbat ondorio ditu: ahozkotasunaren munduarekin, oralitatearen narratibizazioarekin eta ahozko

⁹² Kirikiñoren hitzak. KALTZAKORTA, Jabier (2001). «Euskal fraseologia: historia, oinarriak», *Euskera*: 73-87. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/11645.pdf>

⁹³ BELMONT, Nicole (2014). «Couvrez ce conte que je ne saurais voir», *Cahiers de littérature orale*: 75-76. <http://clo.revues.org/1844>

⁹⁴ BAKHTINE, Michail (1977). *Le marxisme et la philosophie du langage. Essai d'application de la méthode sociologique en linguistique*. BOURDIEU, Pierre (Ed.) Paris: Les Éditions de Minuit: 205.

⁹⁵ HODEL, Robert (2008). «Le Skaz et les structures génériques de l'énoncé», in GERY, Catherine (Ed.) *Autour du Skaz*. Paris: Institut d'Études Slaves: 129.

diskurtsoaren imitazioarekin loturik dago. *Кказ* herrikoitasunean jaiotzen da –idatzia ez den hitzaren adierazpen-esparru eta sorburuan– eta horren iturrira heltzeko nahia azaltzen du.

Honenbestez, *каз* edo ahozkotasanaren Etxamendiren narratibizazioa hiru partetan azalduko dugu. Lehenik, Etxamendiren hizkuntzarekiko loturaz ariko gara, azpimarratuz Etxamendiren narrazioaren egitura estetikoak bat egiten duela ekai literariotzat daukan ingurumen soziala eta kulturalarekin. Jarraian, Etxamendiren narrazioak euskal etnografia, mitologia eta irudi erlijioso nahiz mentalak nola ustatzen dituen ikertuko dugu. Ohartuko gara azkenik, Etxamendiren *каз* ahots narratzailea norbanakoaren eta komunitatearen denbora batzen diren gunean pizten dela.

2.1. MUNDUAREN PERTZEPZIO SINESTESIKOA

Eñaut Etxamendiren euskararekiko lotura bikoitza da, gutxienez. Batetik, euskara ama-hizkuntza bakarra izan zuen, sei urteak arte. Ondotik, Ezterenzubiko eskolan frantsesa ikasi zuen. Segitzeko, Belokeko fraidetxean hamabi urtetan sarturik, irakaskuntza klasikoan eskaintzen ziren latina eta greko zaharra. Idazleak bizi izan zuen haur-denborako elebakartasunak Etxamendiren narratibaren nolakotasunean ondorio zuzenak izan zituen:

En cualquiera de nuestras poblaciones hoy bilingües que no lo fuesen hace treinta o cuarenta años [gerra aurrekoak dira hitzak], escójase una familia de la clase normal, en la que los padres pertenezcan a la generación *netamente euskaldun* y los hijos a la del período de transición; y anótense, lápiz en mano, las palabras y formas verbales, giros y modismos, que, en abundando en el lenguaje de los primeros, *no los usan ya* (aunque *los entiendan*) los segundos.⁹⁶

Mokoroaren hitzok testuinguruan ezarriz, argi dago Hego Euskal Herri industrializatu eta elebidundua erlatiboki konparatu behar zaiola Nafarroa Behereko mendialdeko baserri inguruari. Azken horretan, kanpoko eraginik bazen ere, eskualdea elebakarra zen eta bereziki familia elebakarrak ziren.⁹⁷

⁹⁶ ESNAL, Pello (2001). «Ortik eta emendik: euskal lokuzio eta fraseologia baino ere harago»: *Euskera*: 138. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/11640.pdf>

⁹⁷ Ezterenzubitik herri gotorrik hurbilena Donibane Garazi da. 1930ko urteetan euskalduna zen. Donibane Garazira etorritako kanpoko eraginak Baionatik edo Donapaleutik jin zitezkeen. Maila apalagoan, Luzaidetik edo Iruñetik. Horien gurutzatzeko abagunea Donibane Garaziko astelehenetako merkatua ohi zen.

Hau da, Eñaut Etxamendi euskara komunikatzeko idatzi gabeko hizkuntza nasaia zuen ingurugiro sozial eta kulturalean hazi zen.⁹⁸ Jaiotzez nekazaritza mundukoa zen Marcel Jousse apez jesuitak zehazki esplikatu zuen fenomenoak:

(...) ils [nekazariez ari da] ne savaient peu-être pas décliner «rosa, la rose», mais ils savaient les différentes espèces de blé, d'avoine, ils savaient les différentes espèces de mauvaises herbes. Ils avaient pour les désigner de jolis noms⁹⁹, de ces noms qui sont faits pour être mis en poèmes comme nous le faisons dans nos civilisations livresques. Tout cela vit à pleine sève, à pleine terre, à plein ciel, et c'est cela qui fait la vraie pédagogie de l'homme vivant et concret en contact avec les choses.¹⁰⁰

Liburuetatik urrun izanik ere, ingurumenaren pertzepzioak mundua eza- gutzen laguntzen du. Ezagutza hori pedagogiaren alor oso bat da eta horren emaitza «gauzeekin harremanetan den jende bizi eta konkretua» da. Jousseren arabera, ahozkotasunean oinarrituriko zibilizazioko amek zentzuen sinestetikotasuna¹⁰¹ dastatzeko eta, ondorioz, munduari zentzu guztiak dastaturik, manera jorian irekitzeko aukera eskaintzen baitiete seme-alabei. Beraz, sinestesian oinarrituriko ikaskuntza-prozesuak norbere buruaren eta berdin, jendea inguratzen duen munduko kide denaren kontzientzia berezia hartzen laguntzen du. Ondorioz, munduarekiko ikuspuntu eta jarrera berezia garatzen laguntzen du. Era berean, ahozkotasuna lehenesten duen zibilizazioan, sozializazioa modu berezian egiten da.¹⁰²

Etxamendiren narratibaren orientazio tematikoak Garaziko base- rri-mundu industrializatu gabea, amaren zentraltasuna eta erlijiotasuna dira. Ez zitekeen horien presentzia hain nabaria Etxamendiren obran, idazlea ez balitz ingurumenaren pertzepzio sinestesikoan hazi, ez balitz euskararen bere sozializazioa idazkera gabeko nekazaritza munduan mamitu. Edo, baikorki erranik, Etxamendiren narratibaren egituraketa estetikoak herrikoitasunean sustraitzen baita, bat dator idazlea sortzen ikusi zuen zibilizazioarekin.

⁹⁸ GOODY, Jack (1978). *La raison graphique. La domestication de la pensée sauvage*. Paris: Éditions de Minuit: 254-255.

⁹⁹ Hona besteak beste, Etxamendiren narrazioetan azaltzen diren *onjo-lili*, *urtzo-lili*, *urri-lore*, *urtzalili*, *lipu-belar*, *urtzabelar*, *leizor-lili*, *amula* eta beste.

¹⁰⁰ BEAUPÉRIN, Yves (1994). «Au confluent du style oral et du style écrit, un découvreur, Marcel Jousse: sa vie, son œuvre, son actualité», *Euskera* XL: 99.

¹⁰¹ *Ibid.* 94.

¹⁰² BAKHTINE, Michail (1977). *Le marxisme et la philosophie du langage. Essai d'application de la méthode sociologique en linguistique*. BOURDIEU, Pierre (Ed.). Paris: Les Éditions de Minuit: 211-212.

Zenbait ezaugarrik¹⁰³ suposatzen dute ahozketasunaren mundutik datorren esaldia osakera berezikoa dela, erritmikotasun, hiztegi eta iruditeriaren erabile-raren aldetik. Paradoxikoa dirudien arren, Etxamendiren narratiba ahozketasunetik etorritako esaldi idatziek osatzen dute. Hots, idatzizko ereduari jarraikitze-ko partez, ahozketasunaren mundutik datorrenari fidel zaio.¹⁰⁴ Etxamendi idazleak idazteari ekiten dio haur-denborako pedagogia sinestesikoaren denboran jasotako ezagutzekin, memoriarekin eta gorputzeko «gestikulazio orokorrekin»¹⁰⁵. Nonbait, idazkeraren eraikuntza-kodigo berriak asumitzen ditu. Honen argitze aldera, hona Etxamendiren narrazioaren adibide batzuk:

Bidean gure astoak usnatzen zuelarik beste batek busti lekua, izterrak zabal-tzen zituen ere sudur mizpirak ikaratzuz plazerrez, Dartemaldako ote-lore horiñoak begitaratzen baitzizkion.¹⁰⁶

Inondik ere, aukeratu dugun zitazioa esaldi luzea da. Pentsa daiteke beraz, idazlea kokapen espazialean dagoela, idatziaren estrategia literarioari zilegi dagokion eran. Haatik, ohartzen bagara estrategikoki kokaturik dagoen kako-txari, orduan gureganatzen dugu Etxamendiren esaldi idatziak narratzaile inprobisatzaileak menperatzen duen hatsaren ikuspegitik pentsatua dela. Zehazkiago, arnasaldi batez lerrakeenaren kalkoan pentsaturik. Erritmoaren aldetik, kulunkatze hirukian gaude.

Bestalde, Joussek¹⁰⁷ aztertu bezala, oralitatearen alorrean sorturiko esal-diak pentsamenduaren balantzari batzen dio esaldiaren zabua eta biak gorpu-tzaren balantzatzek dituzten sustengatzen. Ikus dezagun biribiltze hori nola gauzatzen duen Etxamendiren narrazioak, Eñaut Etxamendi haurra zeneko hurrengo pasadizo honetan. Oilategian oilo koloka egunero eskapatzen zela eta, azeriak janen zuela beldurrez, amak manatu zion oilanda segi eta haren habia harrapa zezan. Umeak nola ez, berehala egin:

A! Noizbait gelditzen da, harat eta hunat begira. Ni halgan gorderik, axeria bezala. Bazen zuhar matxarde haundi bat oihan hegalean, bide hegiko alanbre ziz-

¹⁰³ LEKUONA, Juan Mari (1982). *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein: 116-117.

¹⁰⁴ BEAUPÉRIN, Yves (1994). «Au confluent du style oral et du style écrit, un découvreur, Marcel Jousse: sa vie, son œuvre, son actualité», *Euskera* XL: 97.

¹⁰⁵ *Ibid.*

¹⁰⁶ ETXAMENDI, Eñaut (2011) «Dartemalda», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 11.

¹⁰⁷ JOUSSE, Marcel (1925). *Le Style oral rythmique et mnémotechnique chez les Verbo-moteurs*. Paris: Gabriel Beauchesne: 242.

takadunetan. Haren unkuak ortkobi bat egiten zuen, eta oiloa ezbaietan egonik, krik ! Harat sartzen da.

«La ! - egin nuen- uai badiakinat nun hizan amaso !»¹⁰⁸

Erran daiteke hauraren pentsamenduaz gain, narrazioak oilandaren buruaren berri ere ematen duela. Esaldiak bataren zein bestearen kulunkaren arabera eginik daude: laburrak eta moztuak dira, gorde eta gordagia atzematea nahi ez duenak egin dezaketen keinuen imitazioan.

Etxamendiren narratiba ahozkotatasunaren ezagutzei ere lotzen zaie eragile –ekile –ondorio¹⁰⁹ ahozkotatasunaren egituraketa hirukoitzari:

Hortakotz ginen Garazin jendeak, Hegoa fal-fal jitearekin Iratitik behera, arno edanik bezala gogoak kalapitan jartzen.¹¹⁰

Ama kantuz bidian... Maldetan karrusa bera utz eta lasterka gibeletik, eskuak elgar joz... Luzia baita bidia Izpuratik Ezteintzuirat.¹¹¹

Beleak? Elurrean han beleak ttitta beltz hek? «Ez !!! Gizonak !». Gizonak palekin elur bazterten. (...) «Heldu giela helduuu Frantxuuaa !!!».¹¹²

Ahozko-literatura kalifikatibo bakar batez zehaztu behar balitz, dudarik ez «organikotasuna» egoki litekeela. Ezen ahozko-literatura organismo baten gisan funtzionatzen ikusten baitugu, haren baitan, hari loturik, haren izatetik hainbat fenomeno ematen eta eratortzen direla.¹¹³

Laburbilduz, Eñaut Etxamendi ahozko-literaturaren eta idatzizko literaturaren ezagutzen gurutze-bidean kokatzen da. Ondorioz, oralitatearen errekurtsuak ekoizpen literariora ekartzean, bide jatorra urratzen du, polilogian ari dela.¹¹⁴ Horri deituko diogu Etxamendiren Ahotsa.

¹⁰⁸ ETXAMENDI, Eñaut (2010). «Gilentegiko Gilen», in *Idazlanen Bilduma III*. Baiona: *Maiatz*: 30.

¹⁰⁹ JOUSSE, Marcel (1925). *Le Style oral rythmique et mnémotechnique chez les Verbo-moteurs*. Paris: Gabriel Beauchesne: 242.

¹¹⁰ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Urtsuak aldatu urrian», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 27.

¹¹¹ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Nolakoa hatsa zien ohoit niz», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 23.

¹¹² ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Gizonak» in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 29.

¹¹³ POULIN, Isabelle (2008). «Qui dit ça? La question du narrateur de Leskov à Calvino», in GERY, Catherine (Ed.) *Autour du Skaz*. Paris: Institut d'Études Slaves: 195.

¹¹⁴ PRIVAT, Jean-Marie (2000). «À la recherche du temps (calendaire) perdu. Pour une lecture ethnocritique», *Poétique* 123: 301.

2.2. ERRESISTENTZIA EMOZIONALA BIDERATZEN DUEN AHOTSA

Etxamendiren narratibaren Ahotsa *каз* kontzeptuarekin batera oralitatean sustraitzen bada ere, oroitu behar da eraikuntza literarioa dela.¹¹⁵ Eta zertarako eraiki, ote, ahozkotasuna mimatzen duen narrazioa? Idazleak begiztatzen eta bizi duen munduaren errealitatea arakatzeko beharra izan dezake.¹¹⁶ Bestela ere, zama ideologikoa agertzeko nahia izan dezake eta oralitatearen narratibazioak xede horretan lagun lezake.¹¹⁷ Orokorki, ekoizpen literarioa oralitateak eta idatzi gabeko munduaren ezagutzak bikoizten dituenean, egoera ezegonkorrean ohi dago idazlea, biografikoki, animikoki eta kulturalki. Kasu horretan dira nekazaritzako euskal girotik jalgitako jende «ikasiek»:

Nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros. Es una de las más fatales quiebras del vascuence, que toda cultura que se ingiera ha de ser forzosamente extraña y desviadora. Y, sin advertirlo, acabamos con otro contenido que no el puramente vasco en nuestra alma. Es entonces cuando iniciamos un período de reincorporación, a costa de una lucha y vencimiento casi ascéticos. Todo bersolari, por el contrario, es un triunfo de su alma vasca sobre la maraña de instigaciones adversas, e incluso un predilecto del euskera aún entre el pueblo humilde de donde emergió. Quizás fuimos compañeros de juegos en la infancia, pero llegó una hora en que nos separaron caminos que a nosotros nos vaciaron el alma y a ellos se la colmaron. No quisiera ofender a nadie con asertos que a mí, el primero, me contristan. Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*. Cuando hojeo ahora algunos de nuestros libros euskéricos, siento a veces la frialdad y languidez más delatoras de la falta de vida.¹¹⁸

Aurreko aipuek bi motatako oharrak sorrarazten dituzte. Batetik, oralitatea mundutik datozen eta «ikasi» bilakatzen diren eragileek egokitze-unea bizi ohi dute eta, ondoren, sormen intelektual nahiko modu bateratsuan lerrokatu ohi dira. Alabaina, eskola handiek finkatu eredu erabiltzen dutelako. Bestetik, jende «ikasiek» jarduera intelektualaren monopolioa berenganatzen dute eta jatorrizko haien jendarteko aitzindarien elitean sartzen ohi dira.

¹¹⁵ LEPALUDIER, Laurent (2006). «What is this voice I read? Problematics of orality in the short story», *Journal of the Short Story in English*: 19-28. <http://jsse.revues.org/799>

¹¹⁶ BELMONT, Nicole (2014). «Couvrez ce conte que je ne saurais voir», *Cahiers de littérature orale*: 75-76. <http://clo.revues.org/1844>

¹¹⁷ *Ibid.*

¹¹⁸ ZAVALA, Antonio (1996). *Auspoaren Auspoa I. (Itzaldiak/Conferencias)*. Auspoa Liburutegia. Oiartzun: Sendoa, 1. alea: 34.

Baina jatorrizko jendarteetan «erresistentzia emozionala» pitz daiteke. Franz Boasen ustez, «suntsiketak» baizik gaindi ez dezakeen erresistentzia emozionala, hain zuzen.¹¹⁹ Objektiboki, jatorrizko bizimoldea arautzen duten «elkarketa emozionalak» haiek baino indartsuago daitezkeen aldaketa ekonomiko edo politikoeak erauzi beharra, hots, bortizkeria sinbolikoaren mekanismoa xehatzen du Franz Boasek. Ezen, elkarketa emozionalek ohiturazaletasuna errotzen baitute jendarte primitiboetan. Boasen ikerketa jendarte arkaikoei dagokie, hots, etnografiak deskribatu ohi dituen jendarteei.

Mircea Eliadek sentimendu erlijioso eta profanoa aztertzean, jendarte arkaikoen eta Europako jendarte kristau zenbaiten arteko baliokidetasuna goraiatu zuen. Eliaderentzat, alabaina, europar nekazaritza mundu kristaua arkaikotasunean sailkatzen delako.¹²⁰ Lévi-Strauss-engana ere jo daiteke, «arkaikotasunaren» hautu kontzeptualaren argitze aldera. Izan ere, Lévi-Straussek zehazten duelako bereizketatik harago, elkarbizitza dagoela pentsaera *primitiboaren* eta *ez-primitiboaren* artean. Hau da, pentsaera hezigabearen eta heziaren artean.¹²¹ Beraz, Levi-Straussen eskutik, ontzat eman daiteke Eñaut Etxamendiren ekoizpen literarioa ondu zen idazkerarik gabeko mundua ohiturazalea dela, modu hezigabean azaltzen den pentsaeraren ondorio dela. Bestela erranik, pentsakizun ohiturazalea, primitiboa, arkaiko, basa edota nekazaritza kristauaren alorrekoa modu baliokidetean erabil daitezkeen kontzeptuak direla. Pentsaeraren berezko izatea baino horren aldia seinalatzen dutelarik, alabaina. Hots, ez ditugu kontzeptuok modu esentzialistan ez eta kulturen eta zibilizazioen hierarkizazioan kontuan hartzen baizik eta modu konparatibistan, kulturen eta zibilizazioen arteko parekidetasunean.

Hain zuzen ere, Etxamendiren narratibak mundu «ohiturazalea» azaltzen du, «erresistentzia emozionala»k elikaturik. Nonbait, Antonio Zavalak azaldu bezala, Eñaut Etxamendi ere, bi munduren elkarketa gunean dago. Eñaut Etxamendik kultura eta ezagutza idatziak menperatzen ditu. Baina memoria kolektiboak suspertzen du eta gai da orduan urradura biografikoa eta sozio-kulturala ekoizpen literarioa bihurtzeko. Aukeratuko duen forma narratiboa alegoriarena izanen da, mundu ohiturazaleak zituen balioei egokien erantzuten diona izanez.¹²² Horrela uler daiteke Etxamendiren narratibak alegorikotasun profetikoa lantzea. Ezen doinu horrek baimentzen baitu mundu ohiturazaleari «atzeak» zein «arrotzak» zaizkion jendeak mugarri ezagunetan

¹¹⁹ BOAS, Franz (1938). *The mind of Primitive man*. Toronto: The Mac Millian Company: 250.

¹²⁰ ELIADE, Mircea (1987). *Le sacré et le profane*. Paris: Gallimard: 19.

¹²¹ LEVI-STRAUSS, Claude (1962). *La pensée sauvage*. Paris: Plon: 263.

¹²² ZUMTHOR, Paul (1993). *La mesure du monde*. Paris: Seuil: 146.

sartuz interpretatzea.¹²³ Erran daiteke Eñaut Etxamendi utopia literarioan errefuxiatzen dela erresistentzia emozionalaren bidez, bere Ahotsaren bila.¹²⁴

2.3. «SUNTSITUTAKO IDILIOA» ABIALEKU, GEROALDI BERRIA IDAZGAI

Literatura Terminoen Hiztegiak honela definitzen du *idilioa*:

(grek. *eidyllion*, lat. *idyllium*, irudi txiki edo laukitxoa)

Landako gorabeherez eta artzainen amodio kontuez diharduen konposizio poetikoari deritza idilio. Amodiozko gertakizun edo istorioari ere deitu ohi zaio horrela.¹²⁵

Beraz, idilioa gaiaren eta formaren aldetik eredu literarioa da, baina ez bakarrik. Idilioa ere izen arrunta da: «Maitemindu biren arteko maitasun harremana».¹²⁶ Lerrokatze semantikoaz, *idilio* hitzaren adiera amodio egoeratik harmoniara iragan da.¹²⁷

Bakhtinen kontzeptuan, «idilioak» egoera baketsuaz eta harmoniatsuz haragoko esanahia bereganatzen du eta munduaren interpretaziorako giltzak ematen ditu. «Suntsitutako idilioaz»¹²⁸ bi zentzutan hitz egiten du. Batetik, Europako literaturaren korrante historikoa da. Bestetik, kapitalismoari ihardesteko manera literarioa da.

Etxamendiren narrazioetan idilikotasunaren zantzuak hiru gai nagusi dira: ama, etxea eta herria. Etxamendiren idilioak denbora iragan bururagabea jorratzen du eta laborantzako munduaren ziklikotasunari orpotik jarraikitzen dio. Hona hemen amarekiko idilioaren Etxamendiren irudi literarioa:

Orhoitarazten zauzta noizbaiteko denborak, oraino ttipiago nintzaneko denbora batzu, amarekin goxoki lo-egiten nueneko denbora zerbait...¹²⁹

¹²³ *Ibid.* 274.

¹²⁴ GOODY, Jack (1978). *La raison graphique. La domestication de la pensée sauvage*. Paris: Éditions de Minuit: 193-194.

¹²⁵ IGERABIDE, Juan Kruz (2008). «Idilioa», in *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia: 399-400.

¹²⁶ *Ibid.*

¹²⁷ CNTRL. «Idylle». <http://www.cnrtl.fr/definition/idylle>

¹²⁸ BAKHTINE, Michaïl (2004). *Esthétique et théorie du roman*. Paris: Gallimard: 374-375.

¹²⁹ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Ene lehen ganieta», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 11.

(...)

Amaren usin goxoaz ohoit niz... bisaian hunki nindielaik. (...) emazte gazte eder bat, larru mehe xuri bat, lepo legun bat, bilo pollitak ttuttulan bildurik...¹³⁰

(...)

Gero, atsaldaskariaren gizoneri eremaiterat igorri ninduen potta haundi bat emanik.¹³¹

Amaren ondotik, etxeak dio sendia osoari egonkortasun materiala eta emozionala esleitzen. *Menddiburua* etxeari bakea eta betierekotasuna dario:

Eta lasterka, erreka ondoari behera, etxeke borda gibelerat juan nintzan. Han bazen otsanda sagartze bat, pean, sagarrak eroririk zauzkana. Boneta sagarrez bete nien eta etxerat jin, ama biziki kontent baitzen.¹³²

(...)

Urte hartan gure etxean ogi-joiteak ibiakoitz arratsalde batez izan ziren. Goizean auzoan arizanak ginen. Biharamuneko hitzarturik ginen eskualdeko gazte andana bat Irabiarat bestaz joaiteko. Ibiakoitz-arratsa izaitearekin bazagon jendea berant gure etxean kantu irrirtzinaka, berdin dantzan, adinetakoak musean.¹³³

(...)

Euria «pekoaz-gainka» zurrustan. Bortaañetik aita so zakua bizkarrean. Iñharak erauntsipean inguruka korralean «ttuit, ttuit, ttuit...» aitaren arpegia kasik hunkiz. Aita bazohan euri turrustaren pean arteiko borta-añekoaren idekizterat: iñharek arteiko zoladuran baitzituzten kabiak...¹³⁴

Herriaren egoera idilikoa garbiki agertzen da *Azken elurra* eta *Elurra zikindurik* eleberrietan. Horietan, herriko harmoniaren ziurtatzailea eliza da. Ezen bilgune eta komuniogunea eskaintzen baitie herritarrei:

Herri guzia bero-beroa, elizan zagon kantuz ari, aldarerat beiran, gozo handiengan. Mezak aurpegiak jabaltzen zituen eta batzuk besten alderako gintuen kezkek eta bekaizgoak ahanzten zitzaizkigun. Gure herria komentu bat bezain

¹³⁰ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Nolako hatsa zien ohoit niz...», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 23.

¹³¹ ETXAMENDI, Eñaut(2011) «Urtzoak», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 68.

¹³² ETXAMENDI, Eñaut (2010). «Gilentegiko Gilen», in *Idazlanen Bilduma III*. Baiona: *Maiatz*: 27.

¹³³ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Aurora», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 165.

¹³⁴ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Artoak», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 39.

ezi eta garbi zagon igande goizetan, alegera ta kartsu komentu bat besteburukari bezalaxe...¹³⁵

(...)

Elizan, bi dangetan, sartzen ginen. Han berriz herria bere trenpean seindi zen kantuz. Elgarrekin baiginen.¹³⁶

Azkenik, denboraren ziklikotasuna arautzen duen mundu idilikoaren erakusgarri, behin eta berriz errepikatu keinuek betikoak eta betirako eginak diruditela:

Etxetik Antsolorat, Antsolotik etxerat johaiten zen urtea sasoiñetik sasoiñerat.¹³⁷

Lot gatzazkion orain, suntsiduraren ideari, Eñaut Etxamendiren biziaren hainbat datu biografiko esanguratsu aintzat hartuz. Bi multzo handitan banatuko ditugu, urradura eta suntsiketa bereiziz.

Urradurarekin zerikusia dutela, Etxamendik jasan behar izan zuen min fisikoaz ariko gara: haurra zela osteomieltis gaitzak jo zuen. Bai eta, urradura moralaz ere: Etxamendik apaizgaitzarako joatea zigortzat bizi izan zuen eta horren gainera amarekiko gatazka oso garrantza suertatu zitzaion. Bigarren atalkatzean, berriz, mendialdeko euskal jendarte nekazariaren desagertzeraren gaia barneratuko dugu.

Larria izan daitekeen eritasuna izateaz gainera, osteomieltisa oso mingarria da.¹³⁸ Osteomieltisak joa denaren bizia salbatzekotan, berehala artatu behar da antibiotikez erietxean, oso epe luzean. 1940ko urteetako Ezterenzubi herri txikian, osteomieltis gaitza tragedia bilaka zitekeen. Osteomieltisaren beste ezaugarria kronikotasuna da. Hain zuzen, horrek urrunduko zuen Etxamendi edozein ofizio arruntetik eta apaiz-ikasketetara bidatuko. Kontuan hartzekoa baita alabaina, Eñaut Etxamendiren gatzaroan, laborari ala artzain izateko osagarri fisiko oneko gizona behar zela. Horrela, Ezterenzubiko herriko eskolan 7 urtetan hasirik, ikasgoan gaitasunak erakutsirik, aita-amek Eñaut Etxamendi gaztea apaizgaitzarako on jo zuten. Beloken sei urte iraganen zituen, 1947tik 1953rat.

¹³⁵ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Azken elurra», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 37.

¹³⁶ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Elurra zikindurik», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 147.

¹³⁷ *Ibid.* 139.

¹³⁸ ENCYCLOPÉDIE MÉDICALE. *Ostéomyélite*: <https://www.bioam.fr/encyclopedie-medica-le/osteomyelite-causes-symptomes-traitements>.

Orduan, Etxamendik urrako morala bizi izan zuen. Apaizgaitegian ez laketurik ere, amaren borondate zurruna bete behar zuen. Urrako horretaz preseski, bost ipuin ala eleberri dauzka Etxamendiren obra literarioak. Lehen-bizikoa baina, 50 urteetara hots, gizon zoritua bihurtzen ari zela baizik ez zuen plazaratu. Seinale dudarik gabe, barne-urrako itzela zitekeela:

Buruileko azken goiz hura... Aitak baliza haundia bizkarrean, ni gibeletik. Gaztaiña-haundiaitan behera juan ginen. Gohonetxeko Errekako zubian iragan. Eskola parrean hango usainak heldu zitzaizkitan beste mundu batetarik, leize baten harainditik. Hango jantza-kantuak hilerrietako musikekin nahasten zitzaizkitan orai. Oriuneko pagadoia ixilik, etzen tiroik. Bizari adio sekulakotz.¹³⁹

Urrunago, honela deskribatzen du Etxamendik Belokeko fraidetxeko bizia:

Gehiegi minartuko nuke gaur araino toki hartako lehen egunak idatzi behar banitu. Hitz batez erraiteko: bi bizi hasi ziren behala enetzat: bat zen hango harat-hunat eta antzerkia, bestea ene gogoan naukena. Hango bizi hotz kiretsa, eta gogoko oihan hegodun, neskatx bilo usaindun, erreken amentsa. Hango leiho burdindun, othoitz erdaldun eta gizon emagabedunen bizi traketsa, eta gure Behobiko goizalde doñudun, oihan urtzodun eta irasail bestadunen irrintzin elhotsa.¹⁴⁰

Idilioaren ikuspegi soziokultural eta politikoaren suntsiketa aletzekoa dugu orain. Oroit bedi, XX. mendeko 60ko urteetako Ipar Euskal Herria aitopenik gabeko Frantziako eskualdea zela. Gerla zibiletik jalgi eta diktadurapean bizi zen Hego Euskal Herriaren ahaide historikoa ere bazela, izan. Iparraldeko jendetza urritzen ari zen, milaka gizon eta emazte gazteek erbesterako bidea hartzen zutelako, lan bila. Kultura mailan, frantses kultura zen adierazpen eredu nagusia. Orduko modernotasun beharrak apalesten zituen euskara eta honen baitako unibertsoa. Sistema ideologiko horrek folklorizatuko edota zokoratuko zituen euskararen eta euskal kulturaren adierazpenak. Azkenik, politikaren alorrean, urte haietako gertakari inarroslea egituraketa kolonialaren gainbehera izan zen.¹⁴¹

Etxamendik «suntsitutako idilioa» ahots bereziaz lantzen du eta utopia literarioa bideratzen. Horretan, denbora eta espazioa gurutzatzen dira eta kro-

¹³⁹ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Urtzoak», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 69.

¹⁴⁰ *Ibid.* 73.

¹⁴¹ Frantziak besteak beste, Indotxinako gerla (1946-1954) edota Aljeriakoa (1954-1962) bizi izan zituen, deskolonizazio politikoa onartu aurretik.

notopia¹⁴² deritzona sortzen dute. Etxamendiren kronotopia mundu ohitura-zalean bermatzen da. Bestela erranik, Etxamendiren kronotopia dei diezaiokegu mundu ohitura-zalearen edo idilioaren agerpenari. Idilioaren kronotopia aldagabeari ematen dio lehentasuna eta norbanakoa kolektiboaren barnean sartzen du. Ondorioz, Etxamendiren narratiban denbora biografikoa eta kolektiboa elkartzen dira. Hau da, Etxamendiren narratiba sustrai folklorikoak dituen literatura da.¹⁴³

Hona Etxamendiren kronotopiaren adibide bat *Ene lehen ganieta* (1973) ipuinean. Etxamendi haurrak harmonika jotzen du. Akzio xume hori egitean, Alemanian preso diren osabaz eta auzoaz oroitzen da. Beraz, historiak, senidetanunak eta auzokidetasunak bat egiten dute mundu ohitura-zalean bizi den haurraren mundu-ikuskeran:

Goizetan iratzarri nintzaneke harmonika hartzen nuen eskuetan, so egiten nakon alderdi guzietarik, ahoratzen pollikiño eta doi-doi ufatzen: zer soñu-nigar ezta! Berriz ere ufa... eta hor orhoitzen nintzan iragan egunez: Mañex-Haundia eta Otto gerlarat joan aintzin etxe-inguruetan zirelarikako egunak.¹⁴⁴

Denboraren eta lekuaren batasunak musika jotzearen gertakaria komunitate osoa hunkitzen duen gertakizun ilunarekin lotzen ditu. Harmonikak kronotopia azpimarratzen du eta *Mañex-Haundia* eta *Otto* gerlak urrundu zitueneko denbora goratzen da kolektibitate sozialaren esparrura. Denboraren batasunak eta gertakarien auzokidetzeak alabaina, sozietatearen baitako harreman organikoa erakusten baitute.

Nolako hatsa zien ohoit niz... (1981) ipuineko pasarte hau ere, zentzu horretan doa:

Gure eskolako errientsa, nexka gazte bat, jin zen ere ikusterat: ostuak Baxa-Xaharreko oihanetan eroriak zirela eta ardiak axuri-iten ari... «eskolako leihotik zien antxiak ikusten txit».¹⁴⁵

Eskolako andereñoa Izpurako erietxera osteomielitisak joa den ikasle eriaren bisitatzeraz etorri da. Bere mintzoaren bitartez, narrazioak denbora kolektiboa

¹⁴² Bakhtine, Michail (2004). *Esthétique et théorie du roman*. Paris: Gallimard: 237.

¹⁴³ *Ibid.* 351.

¹⁴⁴ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Ene lehen ganieta», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 11-12.

¹⁴⁵ ETXAMENDI, Eñaut(2009). «Nolako hatsa zien ohoit niz...», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 23.

azalerazten du. Azpimarratzekoa da Etxamendiren narratibaren ezaugarri den Garaziko euskalkiak kolektibotasunaren nortasuna berresten duela. Eta denbora kolektibo horrek du laguntzen osteomiELITISak erasoturik sendatzen ari den mutilaren denbora biografikoa neurtzen. Areago erran daiteke, Etxamendiren kronotopoak ospitalean den mutiko eriaren denbora biografikoa narratibizatzen lortzen duela, denbora kolektiboa erakusten duen dialogizazioaren bitartez. Eta konturatzen gara kronotopizazioa ez dela lekuak –Ezterenzubiko mendialdeak– baina mundu-ikuskerak ohiturazaleak egina. Hots, Etxamendiren kronotopoen gurutzatzen diren denborak beti berak badira –norbanakoaren denbora biografikoa eta komunitatearen denbora– lekuak ez duela halako garrantzirik.



3. MITOGRAFIA ALTERNATIBOA ERAIKITZEKO ASMO LITERARIOA

Orain arte ikusitakoarekin, uler daiteke Eñaut Etxamendiren obra narratiboa nostalgiak narratua dela, nonbait, *malenkoniaren inbentarioa*¹⁴⁶ egiten duela. Haren obra literarioak duen edukiaren eta doinuaren garapena modu diakronikoan begiztaturik, aldaketa agertzen da hasierako narrazioetatik bukaerakoetara. Dekantazioaren ondoren, heldutasun-aldirantz egindako ibilbidean, alegoriaren esentzialismo kutsutik iraganik, utopia lirikora heltzen da Etxamendiren narrazioa. Profetaren jarreran izatetik alabaina, himnoaren idazkeraren indarra izateraino iristen da.¹⁴⁷

Abiatzeko, Etxamendiren narratiba hausturak zeharkatua ez ezik, haustura du idazkera eragile eta indar berezi horren emaitza narratiboaren tasunak azaldu behar dira. Ondotik, idazlearen jarreran hitzaren eta ekintzaren arteko lotura arakatuko dugu. Azkenik, Ezterenzubiko Basa-Sagarre auzoaren garrantzia aztertuko dugu, Etxamendiren narratibaren habia dela jotzeraino.

3.1. ZAURI INTIMOAREN INTERPRETAZIO POLITIKOA EDO HERRI-ZAPALKUNTZAREN POETIKAREN ERROAK

Etxamendiren corpus narratiboa bi haustura-epizentroyen –amarekiko amodioaren eta mundu ohiturazalearen hausturaren– inguruan egituratzen da. Eñaut Etxamendiren mundu intimo orekatuaren haustura-epizentroa

¹⁴⁶ CHAMOISEAU, Patrick (1997). *Ecrire en pays dominé*. Paris: Gallimard: 22.

¹⁴⁷ *Ibid.* 346-347.

hautzaroren bukatzarekin batera, zerrenda kronologikoan koka daiteke: apaizgaitegirako eman baimenarekin gertatu zen, 1947an. Etxamendik hamabi urte zituen eta ordura arteko denbora antolatua, urtaroez eta etxaldeko lanek ziklikoki errepikatua, tupustean birrindu zitzaion. Narrazioen ondoan –Eñaut Etxamendik berak aitortu zigun elkarrizketa batean– amaren galtzea, apaizgaitegiko esperientziak eta etxearen husteak «marka» eragin ziotela bizi osoan:

Ama zendu zen eta izugarri andeatu zen familia guzia. Barreatu zen gure familia. (...) Beloken izugarriko presioa jasan behar ukan nuen, nahi baitzuten apez nindadin eta fraile. Hori izan zen, kasik urtebete borroka bat, «*psychodrame*» bat, izugarri gaiztoa, izugarri bortitza. Eta hor ikusten nuen: ni han, nihauren bizia nehorat ezin egin, noraezean, eta etxea, familia, eskutik joaten ari. Pentsatzen dut hortatik oraino ere, bizi guztian marka hori ekarri izan dudala.¹⁴⁸

Bestalde, Etxamendiren narrazioko bigarren haustura-epizentroatik Euskal Herriko kronologia historikoan dago, Bigarren Mundu Gerraren ondoko modernotasunak baserrien hustea ondorioztatu zuelako. Eñaut Etxamendiren kasuan, amaren herioak bizkortuko zuen mendiko euskal sozietatean martxan zegoen migrazioaren fenomeno:¹⁴⁹

Bi anaia johanik Ameriketarat, aita etxean hiru gazteenekilan zagon. Urte batzu juan ziren. Euskal Herritik urrun nintzan. Letrak segitzen zauztaten arrebek.¹⁵⁰ (...) Bi arrebak gero Californiarat juan ziren. Anaia gaztena soldado. (...) Anaia hori ere Ameriketarat juan zen.¹⁵¹

Hots, orenen buru, Eñaut Etxamendiren Ezterenzubi *Menddiburua* sortetxean, ez zen inor bizitzen geldituko:

Anaia gaztena soldado. Afrikarat hunek igorri zautan letra hau: «Gaur, igandia, etxerat jin nuk aita bera delakotz. Ollaskua in diakoat. (...) Juan nizalaik etxetik (...) Dartemaldako parretik etxiari so'in diakoat azken aldi batez: xakurra hasi duk lepua luzaturik etxa giletik hurubiaz. Gure etxiak, han bera, hutsik, iduri zikan xori-kafia zahar bat abandonatuik. (...)»¹⁵²

¹⁴⁸ ETXAMENDI, Eñaut. 2015eko abuztuaren 20an Bitiriñan egindako elkarrizketan.

¹⁴⁹ ARRIZABALAGA, Marie Pierre (2002). «Les héritières de la maison au Pays Basque au XIXe siècle», *Lapurdum* 7: 37-55.

¹⁵⁰ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Dartemalda», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 14.

¹⁵¹ *Ibid.*

¹⁵² ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Dartemalda», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 14.

Bigarren Mundu Gerra bukatu bezain laster, Europako estatu askok, Frantziak barne, herriko nekazaritzaren berrantolatze eta nekazaritzaren emankortasuna ugaltzeko modernizazio plangintzak jarri zituzten abian.¹⁵³ Produktibitatea emendatzearekin batera, nekazaritzaren modernizazioak baserritar eskulanaren desegitea ekarri zuen eta, ondorioz, baserritarrek lanbidea aldatu eta ekonomiako bigarren ala hirugarren sektorera jotzea.¹⁵⁴

Denbora iragan ahala, Etxamendiren ibilbide literario hasierako (1965-1973) doinu alegorikoa aldatu eta herri-zapalkuntzaren poetikara zuzentzen da, «askapen borrokaren helburuak eta metodoak»¹⁵⁵ argituz doazkion bezala. Helburu terapeutikoan, hauskortasunetik atera eta bere buruaren jabe izateko ibilbide katartikoan doa.¹⁵⁶ Bestalde, Etxamendiren kronotopiak erakutsi bezala, norbanakoari jazotzen zaiona komunitateari gertatzen zaionarekin hertsiki loturik bizi du. Horrela, kultura zapalduaren memoriaren aldarrikatzeak ondorioak ditu bere burua menperatutzat duenaren «oreka psikoafektiboan».¹⁵⁷ 1973tik aurrera, Etxamendiren narratibak jabaltze-aroa abiatzen du. Oroimenaren pisuak malenkonia dorpean sarrarazten badu ere askotan, doinu literarioa ez da bortizkerian bermatzen. Horrek frogatzen du jatorrizko kultura ahuldurik daukan herriak oso beharrezkoak dituela intelektualak eta idazleak, norbanakoaren eta herriaren berezitasun biziak ohartarazteko eta kontzientzia harrarazteko.¹⁵⁸

Hortaz, Eñaut Etxamendik zauri intimoari irakurketa politikoa eransten dio. Idazle engaiatuaren gisa, bere baina ere inguratzen duen herriaren sanotasun psikoafektiboaren onetan, herri-zapalkuntzaren poetikaren erroak manera segituan eta kontzientean lantzen ditu. Etxamendiren obra narratiboaren osotasuna kontuan harturik, gaiaren ikerketa literarioa ekoizpenetik ekoizpena barneratzen jarraitzen du. Baserriko munduak bizi duen ezinegonean kontzentratzen da. Bidean, euskal errealitatearen mitografia alternatiboak¹⁵⁹ erai-

¹⁵³ COUTIN, Pierre (1949). «La population agricole en France», *Bulletin de la Société française d'économie rurale*: 18-25. http://www.persee.fr/doc/ecoru_1146-9374_1949_num_1_1_1142

¹⁵⁴ LAURENT, Claude (1969). «L'évolution de la population active agricole», *Économie rurale*: 215-234. http://www.persee.fr/doc/ecoru_0013-0559_1969_num_79_1_2046

¹⁵⁵ FANON, Frantz (2002). *Les damnés de la terre*. Paris: La Découverte & Syros: 227-228.

¹⁵⁶ RICOEUR, Paul (2000). *La mémoire, l'histoire, l'oubli*. BADIOU, Alain, CASSIN, Barbara (Ed.). Paris: Seuil: 147.

¹⁵⁷ FANON, Frantz (2002). *Les damnés de la terre*. Paris: La Découverte & Syros: 311.

¹⁵⁸ CHAMOISEAU, Patrick (1997). *Ecrire en pays dominé*. Paris: Gallimard: 173.

¹⁵⁹ NANDY, Ashis (2007). *L'ennemi intime. Perte de soi et retour à soi sous le colonialisme*. Paris: Fayard: 33.

kitzen ditu, irakurleak hunkitzeko eta herri-zapalkuntzari narrazio literarioaren bidez buru egiteko.

3.2. HITZA DELARIK EKINTZA

Eñaut Etxamendi idazle gazte abiatzen denean, sumindurik dago alderdi biografikoan zein ideologikoan. Munduarekin bakeak egiten joaten bada ere, injustiziaren aurrean, oldarraren beharra sentitzen duenean, hitzaren indarrak baliatzen da ekiteko. Ezin da ahaztu Etxamendi idazten hasten denean, Europak nahiz munduak oso giro politiko, ideologiko eta kulturala polarizatuak bizi dituela. 1961etik aurrera, Berlingo harresiak munduaren bikoiztasuna irudikatzen du: bloke sobietikoa Sobietar Batasunak gidatua eta bloke kapitalista Estatu Batuek egina. 1962an, Aljeriak lortzen duen independentziak ia zortzi urteko gerrilla-gerlaren garaipena ematen dio FLN Aljeriako alderdi sozialista eta nazionalistari. 1965ean, Estatu Batuetako armada Vietnamen sartzen da, Ho-Chi-Minh komunistaren indarren geldiarazteko, eta hamar urte iraunen duen gerla ikaragarria hasten da. Europan, Pariseko Maiatzeko Iraultzak markatzen du 1968ko urtea. Bigarren Mundu Gerlatik aitzina, Afrikako eta Asiako herriak independentzia eskuratuz joaten dira, deskolonizazio-mugimenduen bitartez. Eta Espainian, Franco hiltzen da 1975ean, hogeita hamasei urteko diktaduraren ondoren.

Euskal literatura berreraikitzen ari den urteetan sartzen da Eñaut Etxamendi narratibara eta zenbait elementutan harekiko bereizten bada ere, bat egiten du orduko mugimendurekin, literaturari esleitzen dion funtzioa dela eta:

(...) dentro de un trabajo de recuperación nacional y cultural.¹⁶⁰

Franco hil aurreko urteetan, Europa eta mundua inarrosten duten uhin politiko eta sozialetan barneratzen da euskal jendartea ere, bereziki Hego Euskal Herrian. Euskal idazleek ekai literariotzat hartzen dute pil-pilean dagoen errealitatea eta, era berean, esparru soziokulturalaz jabetuz doaz, ildo ideologiko berrietan.¹⁶¹ Euskal Herriko 1960ko urteetako euskal idazlea konprometua edo engaiatua dago, hainbat alorretan.¹⁶² Europan, engaiamendu etiko

¹⁶⁰ LASAGABASTER, Jesús María (1984). «Literatura y vida literaria», in *Euskal Herria, Errealitate eta Egitasmo*. INTXAUSTI, Joseba, (Ed.) Donostia: Jakin: 427. (2. alea).

¹⁶¹ *Ibid*, 429.

¹⁶² *Ibid*, 429.

eta politikoaren teorizazioaren muina Frantzian dago, Jean-Paul Sartre, Simone de Beauvoir edota Albert Camus bezalako filosofoen eskutik. Tes-tuinguru horretan, neutraltasunik ez baizik eta alderdiaren hautatzea erabaki-tzen du artista, idazle eta intelektual askok.¹⁶³ Sartrek burgesiaren parte dela aitortzen du, baina injustiziaren desegiteko gogoak «Iraultza» eskatzen duela zilegitzen.¹⁶⁴

«Iraultza» termino polisemikoa bada ere, proletarioren klase-borrokaren emaitzatzat jotzen ohi da, XIX. mendean Europan jazo ziren langileen erre-bolten segidan. Iraultzaren paradigma 1917ko Errusian gertaturiko sobieten altxamendua da. XX. mendearen erdialdetik hara 1989an Berlingo harresia erori arte, lexiko politikoak erabili ohi duen terminoa da «iraultza» eta zabal-duraz, esparru politikotik kulturalera iragan-erraza da:

Poetak sortzen du Iraultzaren testu liturgikoa, salmodia. Gaztea erraz da iraultzazale. Poeta erraz da iraultzazale.¹⁶⁵

Hautuaren askatasun erradikalean sinesten duten filosofo frantsesek baina, urrun botatzen dute konpromisoaren edo engaiamenduaren beharra, indarkeriaren aurreko norbanakoaren ardura etikoa hunkitzeraino. Bortizke-riarekiko Camusen jarrera zeharo esanguratsua da. Injustiziaren eta menpera-kuntzaren ez onartzeak muturreko erantzuna eskatzen du:

Erantzunik baldin bada, bitartegabeko biolentzian datza; menperakuntzaren erresponsible zuzen eta nabariak ez dute gupidarik espero behar, beren boterea deuseztatu arte bederen. Biziarekiko begiruneak ezin geldiarazi gaitzake, zeren eta historiaren kanpoko etika soil batek menperatzaileen bizitza errespetatzea ezagula agintzen badigu, inobilismoan eror bait gintezke, eta horrela menperatuek pai-ratzen duten etengabeko hilketa, amaigabeko sarraskia, iraunaraziko bait genuke. Tragedia, benetan, zorigaitz latza zaigu hauta gogorren behar hau, baina bazterre-zinezko aukera: gehiengoaren libertatea lortzeko menperatzaileen suntsitzera garamatzen biolentzia onartu egin behar dugu. Eta gupidagabeko mundu hone-tan ez da aukera goxorik.¹⁶⁶

¹⁶³ SARTRE, Jean-Paul (1985). *Qu'est-ce que la littérature?* VI. Argitalpena. Paris: Gallimard: 71-72.

¹⁶⁴ *Ibid.* 263. or «(...) un écrivain peut et doit se ranger du côté de la révolution s'il est prouvé qu'il n'y a pas d'autre moyen de faire cesser une oppression».

¹⁶⁵ AZURMENDI, Joxe [LAZKANO MENDIZABAL] (1974). «Poeta gaztea Iraultza bila», *Anai-tasuna*: 272: 9.

¹⁶⁶ LOPEZ ADAN, Emilio «Beltza» (1980). «Sartre Camus-en aurka, edo Iraultza eta Erre-bolta», *Jakin*: 194.

Borroka armatuaren gaiaz harago, Europako joera ideologiko nagusiaren haritik Euskal Herrian ere, marxismoak harturiko eztabaidetan, hizkuntza sar-tzen zen: euskal nortasuna –hizkuntza emaile– eta nazio-askapen borroka gogoeta-gaietan:

Euskerarik gabe euskaldun ez gerala esanda ere, zergatik euskaldun irauten alegindu bear dugun galde diteke. Diteke, eta galdetzen da. Zergatik oparitu bear zaizkion ideal oni ainbeste neke. Izan ere, batek baiño geiagok atera dit zerako au: euskal izatea galtzarekin ez gera izate gabe geldituko, beste izate berri bat gure-ganatu dugu. (...) Ez da naikoa, niretzat, nai duenak nai duenerako eskubide duela esatea. (...) Nik, marxista izan gabe ez ditut oso ongi konprenitzen obliga-zioen luze-zabala berdintzen ez dituzten eskubideak. Kapritxoak sortzen dituen –edo oiñarritu, nai bada– eskubideak ez dute batere balio, bearrak sortzen ditu eskubide giardunak benetakoak.¹⁶⁷

«Zergatik eta zertako euskaldun?» ez da galdera erretorikoa. Kezka baten isla da: Euskal Herrian euskal nortasuna duen eta horren adierazpena ukatzen zaiola sentitzen duen jendea izan, badago. Kezkari gehi, irudi erromantikoa-ren kutsua ere badago: euskaldunek euskaldun izateko dituzten traba guztien gainetik irauten dute, nortasunaren teman. Azkenik, sakrifizioaren ideia topa-tzen dugu: euskaldun izaten lortzeko, eskubidea den hori lortzeko «dena eman behar da»¹⁶⁸.

Ekitea «poesiaren muina» edo «hizkuntzaren baitakoa»¹⁶⁹ izanez, Etxa-mendiren hizkuntza poetikoak narratibari gaitasun ekintzailea esleitzen dio. Hizkuntza horrek baina, munduaren ikuskera batek gidatzen ahal du. Etxa-mendiren kasuan, azpiraturik nabaritzen duen herriaren eta kulturaren aldeko aldarria egiteko gogoak, preseski.

Eñaut Etxamendiren biografian aitatu dugu, kolaboratu eta parte hartu izan duela Euskal Herriko askapen nazionalaren borrokan. Baina engaiamendu horrek zer emaitza ekartzen ote die idazleei? Emaitzarik ekartzen ote die batere? Chamoiseau-rentzat, ekoizpen literarioak «kolpea» edo ukal-dia jotzen du irakurleengan.¹⁷⁰ Idazleak proposaturiko eta irakurleek asma-turiko irudimenen hartu-emanen energia sortzaileak pizten dira eta horiek

¹⁶⁷ AZURMENDI, Joxe (1967). «Baina zergatik eta zertako euskaldun?», *Zeruko Argia* (1967ko ilbeltzaren 29a): 3.

¹⁶⁸ Oroitu Estepan Urkiaga «Lauaxeta»-ren bertsoen aurrekaria: «Dana emon biar yako matte dan askatasunari» *Mendigoxaliarena* (1935) olerkian.

¹⁶⁹ WISMANN, Heinz (2012). *Penser entre les langues*. Paris: Albin Michel: 89.

¹⁷⁰ CHAMOISEAU, Patrick (1997). *Écrire en pays dominé*. Paris: Gallimard: 300.

azpiratua den herri bateko idazlea eta bere irakurleak «aliatzen» ditu. Bitartekaritza-zereginen, idazlea «erresistentzian» sartzen da. Zentzu horretan, aurkakotasunak laguntzen du.¹⁷¹ Lehen ikuspegian, idazteak xede artistikoa dauka, hizkuntzaren aberastasuna lagun, estetikotasuna helburu. Baina komunikazio ekintza ere baita, manera horretan ekintzailea da.¹⁷² Eta gertatzen da ez dela irakurlea aldatzen den bakarra –irakurleak urri izan ohi direnez gainera– baina zenbait balio sinbolikoren esanahia. Bidenabar, «parte hartze poetikoaz», baita idazlea «irudimenaren gerlari» bilakatzen ere.¹⁷³

Azkenean, askapen nazionalaren edota herri azpiratuaren aitortzaren aldeko borrokan izan den herriko idazle asko bezala, Eñaut Etxamendik mitografia alternatiboak eraikitzen kausitu du hizkuntza ekintzailea, enuntziatio jarrera eta apaletsiaren goreseteko nahikeria literarioak bilduz.

3.3. BASA-SAGARRE, OHANTZE LITERARIOA

Basa-Sagarre Ezterenzubiko auzoa, herriko plazatik hego-mendebalde-rantz dago. Frantziako IGN erakunde nazionalak ordea, ez dakar haren izenik ezoin mapatan ere. Basa-Sagarrerren onomastika dela eta, finkatu gabea dagoela erran behar dugu.¹⁷⁴ Diakronikoki begiraturik, Eñaut Etxamendiren obra literarioan bi modu desberdinetan idatzirik agertzen da: «Baxa-Xaharre» erabiltzen du lehentze, *Elurra zikindurik* (1973) narrazioan eta berantago, «Basa-Sagarre» *Artoak* (1983) eleberri laburrean.

Lehen agerpenean, idazleak Basa-Sagarrerren deskribapen orografiko eta humanoa egiten du:

Gure xokoa Baxa-Xaharre deitzen zuten. Hamalau etxe baginen bost mendi mazeletan.¹⁷⁵

¹⁷¹ WISMANN, Heinz (2012). *Penser entre les langues*. Paris: Albin Michel: 89.

¹⁷² CHAMOISEAU, Patrick (1997). *Écrire en pays dominé*. Paris: Gallimard: 301.

¹⁷³ *Ibid.* 302-303.

¹⁷⁴ Euskaltzaindiaren Toponimia atalean, *Basaburu*, *Basajaunberro*, *Basakaitz* edo *Basaran* irakurgai dira. Bestalde, 1.166 metro gorako «Baxa» izeneko mendi baten izena irakur dezakegu, Nafarroan, Artzibarren, baina Basa-Sagarrerik ez dator.

¹⁷⁵ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Elurra zikindurik», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 137.

Bigarreanean, gorazarrea eskaintzen dio:

«Basa-Sagharre» ezagutuko lukeenak askiko luke bere bizian munduan maita ditaizken ederti guzien asmatzeko eta maitatzeko.¹⁷⁶

Nola jakin «Baxa-Xaharre» eta «Basa-Sagharre» bat eta bera direnik? Bada, bien artean, idazleak Basa-Sagarreren deskribapena jarraitu izan duelako, beste zenbait auzo-etxeren izenak salatuz:

(...) sogiten nuen Baxa-Xaharre alderat: Indartia, Arrosagaraia, Muñhoñoenia... iruzkitan.¹⁷⁷

Hain zuzen, kartografia zerbitzuek zerrendaturik daude aurreko toponimoak, Ezterenzubi Menddiburua etxearen auzoan.

«Munduan maita ditaizken ederti guzien asmatzeko eta maitatzeko» leku-tzat jotzen duen hiperboleak bi esanahi ditu, gutxienez: Basa-Sagarrek Eñaut Etxamendi inspiratzen du eta munduko edertasunaren kontzientzia zein munduko edertasunaren izaria neurtzeko erreferentzia ematen dizkio. Aldi berean, Basa-Sagarrek seinalatzen du non kokatzen diren Etxamendiren inspirazio literario eta irizpide estetikoak. Hau da, Basa-Sagarre Etxamendiren proiektio literarioaren habia dateke. Baina zehazki, zer da Basa-Sagarre? Bada-kigu idazleak deskribaturik, hamalau etxe eta inguramen bat direla. Bestela erranik, hamalau baserri eta Garaziko mendialdea:

Mendiz inguraturik da dena. Urkulu ganga gorena Orbaizetan; Erruzate bigarren ganga Ahezkoako zedarritan; Darte, Iturranburu, Zuhañeta¹⁷⁸, Muñhoño, Zirritu. Zazpi ziren haundiak. Gero bazituzten «umeak» beherago: oro matela, kopeta, lepo, lepondo, besape eta besondo, bai ta ere azpi, ixter eta belauñ koxkor.¹⁷⁹

Basa-Sagarre mugaldean da, Urkulu (1.419 m) mendiak Hegoaldetik zedarritzen eta Aezkoarako pasabidea egiten diola. Ikuspegi geopolitikotik beraz, Basa-Sagarre Frantziaren eta Espainiaren, Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren edota Nafarroa Beherearen eta Nafarroa Garaïaren

¹⁷⁶ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Artoak», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 31.

¹⁷⁷ *Ibid.* 31.

¹⁷⁸ Oroitu *Urtzuak aldatu urrian* (1966) Rafael Zuhañeta izenpetu zuela Eñaut Etxamendik, *Herria* astekarian argitaratzean.

¹⁷⁹ ETXAMENDI, Eñaut. (2011). «Artoak», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 34.

arteko gurutzabidean dago, Iratiko aldean. Hizkuntzaren aldetik, garaztarren eta aezeraren arteko kidesunean borobiltzen da.

Etxamendiren irudimen literarioan mendiek «umeak» egiten dituzte eta, jendeetan edo animalietan gertatzen den bezala, haiek txikiago izaten ohi dira. Mendi apalagoek gorputz-atala guriak osatzen dituzte, gehienez, «belaun kokor» bat edo beste, izan ezik. Hau da, Etxamendiren naturaren ikuskera antropomorfitikoa da. Areago, sentsuala ere da: gorputz-atalen metaketan aurrerago eta gorputzaren plazergune sentiberagoak aipatzen ditu.

Mendiak jendeekin eta sentsazioekin parekatzen baditu, ez da harrizkoa Etxamendiren irudimen literarioan Basa-Sagarre bertako biztanleen orainaren eta iraganaren, gaurkotasunaren eta memoriaren adierazle izatea. Basa-Sagarrek izan ere, Etxamendiren kronotopia batzen baitu. Basa-Sagarren gertatua jendei nahiz ingurumenari gertatua izanen zaio, arrastoa jendeen nola bazterren memorian geldituko da. Hau da, Basa-Sagarre orainaz eta lehengoaz mintzatzen da. Oralitatearen munduan, idatzirik ez baina ingurumena da irakurgai eta oroimenarentzat, euskarri mnemoteknikoa. Mendia demagun, hildako herritar baten oroitarazle izan daiteke:

«Darte»rat buruz heldu ginen eta, Arrauko xendra xardekatik ez urrun, ametz ondo bat ederra bazen, bakarrik larrean, larre-otteen kantuen behairi. (...)

–To, hortxeko ametz horrek, Batixtaren beste hordago’at ohoitarazten diaxu...

–Ah ba?.¹⁸⁰

Azken batean, Basa-Sagarrek Eñaut Etxamendiren geografia poetikoa osatzen du. Denboraren zaurien markak batean zein bestean ere eragiten dute, bien arteko harremana sinbiotikoa baita:

Belarrak eta liliek lehenagoko usain bera zuten. (...) anitz zuhaitz ezagutzen nituen oraino, baina beste asko ez-ezagunak, ni juanez geroztik larrituak. Gero juan nintzan eliza-biderat: haltzak eta otsa-laharrak jinak bidexka pollitean. Hargatik peldo eta asta-belarren usaina lehengoaren zen. Errekaren azantza ere bai. Harri urdin izerdiz ihintzuak ere bai. Baina eskola ñimiñoa, peña ondoan hamalau etxetako gizonek egina, hantxet, hutsik eta ixilik... Gure larrazketako bas-onjo azpi-oxkarratuak galduak.¹⁸¹

¹⁸⁰ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Batixta Handia eta beste...», in *Idazlanen Bilduma V*. Baiona: *Maiatz*: 41.

¹⁸¹ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Dartemalda», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 15.

Ezen, Basa-Sagarre ez baita lekua, ez bada ingurumena. Augustin Berque frantses teorialariaren definizioan kideasun «traiektiboak»¹⁸² dago jendearen eta lurraren artean. Ikuspegi traiektiboak ingurumenaren izate oro –izan jende, mendi, animalia edo beste edozein izate– intimoki elkar loturik daudela jotzen du. Etxamendiren narratiban Basa-Sagarreko ingurumenak sortzetik hiltzeraino batzen ditu bere baitako izateak oro. Basa-Sagarre, alabaina, bere baitan bizi den beste ingurumen oro bezala, «umetokiaren parekoa»¹⁸³ baita.

Etxamendiren narratibaren kronotopo esanguratsua den amaren zentraltasunak sakontasun berezia hartzen du, beraz. Izan ere, Basa-Sagarren jendeak amaren baina eta ingurumenaren ume ere direlako sentimendua onartzen badugu, orduan ama biologikoak ingurumenaren pareko dira, orobiltzaileak. Ezin dugu une honetan neurtu gabe utzi, Basa-Sagarreko ama-seeak semearen fraidetzeko ikasketak zirela eta, bizitako eztabaida lazgarria. Apaizgaitegira bidalirik, ingurumenarekin kide izatetik semea deserrotzen da. Amari ulertarazi nahi dizkio bere ezinbiziak eta instituzio eklesiastikoari onarrarazi bertan segitzeko ukoa, baina entzungor daude biak ere. Preseski, buru egiten laguntzen duena Basa-Sagarreko ingurumenaren oroimena eta bertan Orbaizetako neskatzarekin bizi ahal izateko grina dira. Ama hiltzen denean, gainbehera gertatzen da. Izan ere, munduaren ikuskera amniotikoa errausten delako. Semea ez da apaiztuko eiki, baina Basa-Sagarren egitekoa zuen «écoumène»k gidaturiko bizia suntsitu zaio. Zauri latz hori gehitu behar zaio beraz, Basa-Sagarre Eñaut Etxamendiren obra literarioaren ohantze izateko arrazoia.

Horrela ulertzen da Etxamendiren narratiban Basa-Sagarre munduaren hasiera eta bukaera ere direla. Eta sortzetik heriotzarainoko gidari, leizeetan bizi den izate femenino bat dela:

Andere Xuri, ile-urreduna, zeru-begi, eztitasuna... Ontasun guzien AMA !
ARROSA, altzoan zaukan. Bere ganat eremana nintzan, Haren ezpainek elhe bizidunak idazten zituzten. Heriotzaren xoradurak inguratzen gintuen biak eta ARROSA hunki nuen.

Neure baitaratu nintzalarik, goiztiria, gorri-urdin, elkitzen ari zen mendien gainerat eta artizarra oraino kliskaka Orreaga aldetik. ITHURRI-ZARRE deitu

¹⁸² BERQUE, Augustin (2014). «Mésologie, de milieu en art», in MUSÉE DÉPARTEMENTAL DE SARTÈNE. *Conférence inaugurale*. Musée de Sartène: Sartène. <http://ecoumene.blogspot.fr/2014/06/taxus-baccata.html#more>

¹⁸³ BERQUE, Augustin (2010). «Logique des lieux de l'écoumène», *Communications*: 18-19. <http://www.cairn.info/revue-communications-2010-2-page-17.htm>

gunean nintzen, etxetik doi bat urrun mendian. Tokia deitzen zuen gure aitak HURBURU, baina Attittok deitzen omen zuen ANDERIAIN-ITURRIA...¹⁸⁴

Errealismo magikoaren erregistroa hunkitzen duen pasarte honetan, emazteak nortzen duen mendiko leize bat dakusagu. Narratzaileak luzaro bilatu ondoren, lortu du «musik-ama» eskaintzen dion Anderearengatzea.

Zer gordetzen ote da «musik-ama» neologismoaren gibelean? «Musik-ama» ez dagokio soilki melodia ederraren bila dabilen abeslariari, baizik eta munduaren kontzepzio traiektiboa duen eta horren erabilpen literarioa egiten duen euskal idazleari. Hots, Etxamendiren narratiba euskal sinesmen zaharren sustraetatik irakur daitekeela ez da dudarik:

(...) se trata de una concepción del mundo como «cuerpo femenino» concebido como envolvente bajo la ley mágica de la simpatía generalizada. Esta «simpatheia» de todo con todo a través de una misma energía cósmica que pone en relación los diferentes reinos –vegetal, animal y humano–, está bajo los auspicios de Mari que es la encargada de lograr un equilibrio entre las fuerzas.¹⁸⁵

Hau da, Basa-Sagarrerik eta harekiko harreman sinbiotikoaren kontzientziarik ez balitz, Etxamendiren utopia literarioa ez liteke. Nola interpretatu eta zer leku eman ote, sinesmen ez-arrazionalen arabera sentitzen duen eta horren arabera irudimen literarioa gorpuzten duen euskal narratzaileari.¹⁸⁶

¹⁸⁴ ETXAMENDI, Eñaut (2011). «Arrosaren Jauregia», in *Idazlanen Bilduma IV*. Baiona: *Maiatz*: 166-167.

¹⁸⁵ OSÉS, Andrés and MAYR, Franz-Karl (1980). *El matriarcalismo vasco: reinterpretación de la cultura vasca*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea: 73.

¹⁸⁶ SPIVAK, Gayatri Chakravorty (2011). *Nationalisme et imagination*. Paris: Payot: 21.



2. PARTEA

**EÑAUT ETXAMENDIK ZER LEKU DU
EUSKAL LITERATURAN?**



Orain arte Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren inguruan aletu ditugun oharrak perspektiban jarri nahi ditu lan honen azken parteak. Ondoko hau da egiten duen galdera: euskal literaturan zer leku bereganatu ote du Etxamendiren narratibak? Auzia literaturgintzaren zein idazlearen ibilbide literarioaren aldetik kontsideratu behar denez, ikuspegi historiografikoaz gainera ikuspegi etikoa eta biografikoa ere kontuan hartu behar dira.

Batetik, euskal literaturak historian zehar ezagutu duen baserriaren imajinarioarekiko dituen antzekotasun eta desberdintasunetan zehaztu beharra dago Eñaut Etxamendiren Naturaren Poetikaren kokapena. Halaber, herrikoitasunaren kontzeptuan Etxamendiren narratibak zer leku duen azpimarratu. Hala, euskal literatura garaikidearekin alderaturik erazagutuko da Etxamendiren narratiba.

Bestalde, hainbat ezaugarri ezin bereziago dituen Eñaut Etxamendiren bizia eta figura aztertu behar dira, dagokien testuinguru historiko, geografiko, politiko eta soziokulturalean emanaz. Hain zuzen ere, Etxamendiren *ethos* literarioa osatzen baitute ukazioaren indarrak, militantzia politikoko aroak eta idazkera *deszentratua* lantzeko joerak.

Bukatzeko, bere traiektoria literarioan Eñaut Etxamendik lehenetsi izan dituen hautu adierazgarriak erakutsi eta ikertu behar dira. Horrela agertzen baita, idazleak egindako aukeren eta Etxamendiren narratibak euskal sistema literarioaren baitan duen kokatzearen artean harremanik badagoela, izan.



1. ETXAMENDIREN NARRATIBA ETA NATURAREN POETIKA

1.1. BASERRIKO IMAJINARIOA EUSKAL LITERATURAREN HISTORIOGRAFIAN

Baserritarraren euskal literaturako pertsonaiaren estreinako agerpena Juan Antonio Mogeleg egin zuen, *Peru Abarca* klasikoarekin, 1802an. *Peru Abarcak* baserria eta bertan gauzatzen den bizitza goresten baditu, Mogeleg euskal literatura apologetikoa lantzen du, garai hartako tradizionalismo moralean eta sozialean oinarriturik.¹⁸⁷ Mende bat geroago, Txomin Agirrek *Garoa* (1907) argitaratu zuen. Mogelen antzera, Agirre apaiz idazleak nekazaritzako giroaren estereotipo bertsuari jardun zuen. Orokorrean, XIX. mendeko idazleek euskal baserria bilakatu zuten espazio eta ekai literario, ohiturak azpimarkatuz:

Mendietan, baserrietan, itsasertzeko herrietan bizi diren pertsonaia hauek askatasuna, kristau-fedea, bakea, leialtasuna etab, maite dute; fikzioaren denbora gizon hauek balore hauei nola dauden atxikiak erakusteko erabiliko da, narrazioaren denbora ahalik eta bihurtzeko txikiarekin horretara eremanaz.¹⁸⁸

Beraz, XIX. mendeko euskal literaturan imajinario berezia hedatzen da, ideologia fueristaren ondorio.¹⁸⁹ Ipar Euskal Herriaren kasuan, Elizaren

¹⁸⁷ ORPUSTAN, Jean-Baptiste (1996). *Précis d'histoire littéraire basque*. Baigorri: Izpegi argitaletxea: 124-126.

¹⁸⁸ TOLEDO LECETA, Ana (1988). «Kostunbrismoa eta herrialdeetako nobela: euskal nobelaren sorrera», in *Euskal Mundu-Biltzarra II Congreso Mundial Vasco-Euskal Literatura*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: 70.

¹⁸⁹ JUARISTI, Jon (1998). *El linaje de Aitor*. 2. edizioa. Madrid: Taurus argitaletxea: 343.

irakaskuntza-zentroen bitartez barreiatu zen. Ideologia tradizionalistak eraikitako emaitza literarioa euskal baserriaren idilikotasunean gelditzen da. Honen errealitate sozial eta ekonomiko gatazkatsuen arrastoak literatura-genero azpiratuetan atzemanen dira –bertsolaritzan eta bertso-papere-tan¹⁹⁰–. Ohiturazko eleberriaren ildo narratiboa geldian egon zen XX. mendean ere. 1936an, gerla zibilak jo zuen Hego Euskal Herria eta ondoren, Francoren diktadurak. Lizardik, Aitzolek, Lauxetak edota Orixek 1930eko urteetan landu zuten Pizkundera bortizki itzali zen. Gerra ondoko euskal idazleek ordea, iraganera begira idatziko zuten, eredu zaharkituetan harrapaturik:

La guerra (...) no provocó como lo hizo al menos en alguna medida en la literatura española, o lo hará en la francesa en el 45 la guerra mundial, una autocrítica que obligue al escritor a reencontrarse ante la realidad y ante el propio lenguaje o ante las técnicas de escribir desde la nueva situación humana, existencial y cultural, creada por el enfrentamiento bélico. La literatura vasca, cuando, en el principio de los 50 y a duras penas reinicia su andadura, lo hace desde una voluntad claramente restauracionista y manteniendo una estricta fidelidad a la ortodoxia ideológica y literaria de la etapa anterior.¹⁹¹

Ohiturazko eleberriaren imaginario ideologizatu eta euskal naziotasunaren aldarria euskal literaturan nagusitu ziren, luzaroan. 1960ko urteetan aldiz, ortodoxia horren aurka altxatu zen euskal literatura modernoa. Honek atzera-koitzat joz, arbuia zuen tradizio literarioa:

Esa de algún modo inevitable «iconoclastia» de la nueva novela no ha respetado siquiera algo que en la tradición narrativa anterior era sin duda una aportación válida a la formación de una prosa narrativa vasca: desde una estética realista, la expresividad y la plasticidad de las descripciones, el dominio y la viveza del diálogo, la incorporación del lenguaje coloquial, etc (...).¹⁹²

Ikus dezagun lehenik, Eñaut Etxamendiren narratibak zer lotura mantendu duen eleberri erruralaren imaginario tradizionalarekin. Osagai formalak alde batetik eta estetika literarioa bestetik bereizten baditugu, parez pare bi koadro lortzen dira:

¹⁹⁰ *Ibid.* 37-38.

¹⁹¹ LASAGABASTER, Jesús María (1984). «Literatura y vida literaria», in *Euskal Herria, Errealitate eta Egitasmo*. INTXAUSTI, Joseba, (Ed.) Donostia: Jakin: 429. (2. alea).

¹⁹² LASAGABASTER, Jesús María (1984). «Literatura y vida literaria», in *Euskal Herria, Errealitate eta Egitasmo*. INTXAUSTI, Joseba, (Ed.) Donostia: Jakin: 429-430. (2. alea).

| Osagai formalak | Baserriko imajinario tradizionala | Etxamendiren baserriko imajinarioa |
|------------------------|-----------------------------------|------------------------------------|
| Ohiturazaletasuna | BAI | BAI |
| Kutsu ideologikoa | | |
| Doinu didaktikoa | | |
| Kristau-fedea | | |
| Euskal nortasuna | | |
| Bukolikotasuna | BAI | EZ |
| Doinu moralista | | |
| Idealizazioa | | |
| Patriarkalismoa | | |

Ohartzen gara Etxamendiren ekoizpen literarioak, baserriaren gaia harturik ere, eleberri erruralaren imajinario tradizionalari leporatzen zaizkion kutsuetako batzuk ez dauzkala: bukolikotasuna, doinu moralista, idealizazioa eta patriarkalismoa, besteak beste. Alde horretatik, Etxamendiren narratiba literatura-genero azpiratuetan agertu izan den alor errealistatik hurbiltzen da.

Bigarren koadroari begiratu, ohar bat baino gehiago jalgitzen da. Lehenik, suma daiteke Lasgabasterrek salatzen zuen 1950eko urteetako tradizio literarioaren apurketa ikonoklastarik ez dela gertatu Etxamendiren ekoizpenean. Hau da, Etxamendiren narratiba bi modutan hedatzen da: euskal tradizio literarioarekiko fidelki hainbat osagitan, haatik bereizirik, beste zenbaitetan.

| Osagai estetikoak | Baserriko imajinario tradizionala | Etxamendiren baserriko imajinarioa |
|--------------------------------|-----------------------------------|------------------------------------|
| Estetika errealista | BAI | BAI |
| Deskribapenen adierazkortasuna | | |
| Elkarrizketen bizitasuna | | |
| Hizkuntza kolokiala | | |

Fidelki, baserriko imajinario tradizionalarekiko segidan, Etxamendiren narratibak hizkuntza literarioaren aberastasun eta malgutasuna mantentzen jakin du, bere berezitasunekin, hau da, euskara hizkuntzaren erabilera ez akademiko, guztiz araugabea eginez. Baserriko ingurumenaren, denbora ziklikoa-

ren eta jendeen bizimoduen tratamendu literarioa errealismo handiz egiten du, baina ikuspegi zehatza dauka: bizitako esperientzia eta oroimena.

Doinu didaktikoa baino askoz ere polemikoago badarabil Etxamendiren narratibak eta ez dago moralismoan. Kristau fedea eta euskal nortasuna –Etxamendiren kasuan, XX. mendeko bigarren erdialdeko euskal naziotasuna– lan-tzen baditu ere, Etxamendiren narratiba ez da patriarkalismora ez eta idealizazio hutsera lerratzen.

Azkenik, bukolikotasunean ez aritzeak baimentzen du, ezbairik gabe, Etxamendi baserritar idazletzat jotzen. Izan ere, Eñaut Etxamendi laborari seme gisa idazten duen eta goi mailako ikasketak dituen sortzailea baita. Bestela erranik, Juan Antonio Mogel, Txomin Agirre edota Jean Barbier edo Jean-Baptiste Elizanburu ez bezala, Etxamendi baserriko munduarekiko ahaidetasunean eta ahaidetasunetik idazten du.

Ondorioz, agertzen da Naturaren Poetikan sailka daitekeen Eñaut Etxamendiren narratiba autobiografikoa berritasuna dela euskal literaturaren bidean. Zentzu horretan, Etxamendik aparteko tokia dauka euskal literatura garaikidean.

1.2. ETXAMENDIREN NARRATIBA ETA «BASERRI-LITERATURA»

Baserriliteraturaren lehen agerpenak Antzinatean izan ziren eta XVI. mendeko Europa humanistan laborantzako tratatu ugarien bidez zabaldu ziren, Gutenbergen moldiztegiaren teknologiaren eraginez.¹⁹³ Laborantzari buruzko Antzinateko testu literarioak Europan zehar hedatzen direnean, eza-gutza enpiriko batzuez harago, irakurleria eratzen da eta eredu literario bat esportatzen da. Baserriliteraturak didaktikotasuna eta berehalakotasuna helburu ditu.¹⁹⁴ Liburuaren argitalpena errazturik, baserriliteraturaren salmenta hiriz hiri egiten da saretze antolatutaz. XV. eta XVI. mendeetan irakurtzeko gaitasuna demokratizatua ez izanez, jendarteko goi-mailako pertsonak baizik ez dute baserriliteratura jasotzeko aukera.¹⁹⁵

¹⁹³ BEUTLER, Corinne (1973). «Un chapitre de la sensibilité collective: la littérature agricole en Europe continentale au XVIe siècle», *Annales. Économies, Sociétés, Civilisations*: 1280. http://www.persee.fr/doc/ahess_0395-2649_1973_num_28_5_293420.

¹⁹⁴ *Ibid.* 1282.

¹⁹⁵ Euskal Herrian, Jean-Pierre Duvoisin izanen da XIX. mendean agertzen den baserriliteraturaren ereduari segitzen dion idazlea. Duvoisinen inimizio-eleberriaren hurkoa baino

Laster baina, fikzioak eraginen dio baserri-literaturari. Europako lurja-beendako literatura didaktikoa izatetik, baserri-literatura baserritarrak agertzera iragaten da, hauek pertsonaiak bilakaturik. Orduan, haien izendatzeko terminoaren eta horren karga konnotatiboaren gaia berriz azaltzen da.¹⁹⁶ XIX. mendetik aurrera, «nekazari» hitzak eboluzio nabarmena biziko du Europako jendartearen nola ere literaturan. Alemanian, kutsu ezezkorreko *bauer* izenari *ackermann* edo *landmann* hitzak kontrajarriko dizkiote Grimm anaiek, kontzeptua zentzu nobleagoz jantzirik.¹⁹⁷ Frantziako errepublikazaleek, haatik, nekazariaren mantsotasuna arbuiatu izan ohi dute eta «nekazari» baino «hazle» deitu ohi dituzte.¹⁹⁸ Euskal Herrian, Camarero Nuñez nekazaritzako ingeniari gazteak trufa gaitzat dauzka baserritarrak «Berrichukeriak» izeneko atalean, Gipuzkoako Nekazaritza hamabostekarian.¹⁹⁹

Ororen buruan, «baserritar» terminoaren onarpena zentzuz aldatu eta maila konnotatiboan balioztatzen hasi zen, XX. mende hasieran. Frantzia, sektore katoliko sozialak «herriko jendea den nekazariaren izen ederra» goretsi zuen.²⁰⁰ Mende erdia lehenago, Alemanian, Austrian, Belgikan eta Herbehereetan gertaturik zen aldaketa. Lurjabe handiek *Bauernvereine* eta *Boerenbond* izenez deitu zituzten haien elkarte boteretsuak. Behialako *bauer* laidoztatuak herri katolikoaren askatasuna lortzeko oinarri soziala bilakatu ziren, independentzia ekonomikoa eta aberriaren lurraldearen garapena gogoan.²⁰¹

gehiago, atalkako aletze xehe baten agerpena da: zein diren nekazariaren onak eta gaitzak, zer lur-mota noiz erabili behar duen, abereei zer eta nola janarazi behar zaien, hots, nekazaritzan eta abelzaintzan segitu beharreko urrats tekniko guzti-guztiak. Ikus: DUVOISIN, Jean-Pierre (1858). *Laborantzako liburua edo bi aita semeren solasak laborantzaren gainean*. Baiona: André Lemaigre moldiztegia.

¹⁹⁶ Paul Sébillot frantses etnologoak nekazari populamenduaren estigmatizazio soziala Erdi Arotik dokumentatu zuen. Ikus: SEBILLOT, Paul (1907). *Le Folklore de France. Le peuple et l'histoire*. Paris: Librairie Orientale et Américaine: IV. liburukia: 508.

¹⁹⁷ *Ibid.* 74-75.

¹⁹⁸ BARRAL, Pierre (1966). «Note historique sur l'emploi du terme «paysan», *Études rurales*: 72-73. http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/rural_0014-2182_1966_num_21_1_1265

¹⁹⁹ BERRIOCHOA AZCARATE, Pedro. «Panchiku», un baserritarra de comienzos del siglo XX. Un acercamiento hacia la cosmovisión y la vida cotidiana del labrador guipuzcoano. *Sancho el sabio* 34. zk., 2011: 107. Berriochoren ustez, bi irudi kontrajarrien arteko tentsioa adierazten da bertan: nekazari langile nekaezina, kristau zintzo eta jatorraren, eta bestetik *barregarri* den nagitasunak gainditzen duen izpiritu gutxiko laborariaren irudia.

²⁰⁰ BARRAL, Pierre (1966). «Note historique sur l'emploi du terme «paysan», *Études rurales*: 75. http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/rural_0014-2182_1966_num_21_1_1265

²⁰¹ *Ibid.* 74-75.

1930eko urteetan, Errusia sobietikoko idazleek eta literatura-kritikariek eztabaida literario eta ideologikoa bururaino eramane zuten baserri-literatura zehazteko. Horrela, idazle nekazaria haren datu biografikoetatik ezagutu zuten: baserrian jaiotakoa eta hezitakoa, hain zuzen.²⁰² Literatura-kritika sobietarrarentzat bestalde, idazle nekazariak «mundua ikusteko manera berezia» eta «psikologia errurala» badauzka, eduki ere: «baserriko jabe txikien psikologia», zehazkiago.²⁰³ Oso testuinguru historiko eta ideologiko xehean kokatu beharreko aipamena bada ere, kutsu ideologikotik deslotuz, ohargarri da soziologiatik harago bereizten direla baserri-literaturak dituen munduarekiko «ikuskerak» eta «psikologia». Hortaz, «baserri-literatura»k zentzu osoa bereganatzen du eta osagai dituen alderdi soziologiko eta estetiko bereizietatik begiratzen ahal zaio, azterketa literarioa helburu.

1.3. ETXAMENDIREN NARRATIBA ETA HERRIKOITASUNA

Adostu dugu Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren aitzindaritzat euskal eleberririko ohiturazalea eman daitekeela, nahiz horren mugak gaintzen dituen. Batetik, ezaugarri formal eta estetikoek bereizi egiten dute. Bestetik, aro kronologikoak ziklo baten amaieran jartzen du. Eta Etxamendiren narratibak errealismo eta zama autobiografiko nasaiak dauzka. Ondorioz, Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren kalifikatzeko, baserriaren osagaiaren alorrean segitzen dugu, herri-literaturatik hurbilduz, haatik:

Badu zer ikusirik herri-literaturak baserriarekin. Baserrikoa da, baserriarren artean erabilia, zabalkunde tokiak direlarik baserriak, auzoekin egiten diren biltzarren bidez, edo/eta sagardotegiak, ostatuak, jendeen elkarretaratzei esker.²⁰⁴

²⁰² POLONSKIJ, Vladimir (1929). «Проблемы литературы. Ково и наконец считать крестьянским писателем? (Literatur-Problema. Nor da azkenean, idazle baserritarra?)». *Novyj Mir* 10: 182. In: NIQUEUX, Michel (1987). «Le débat sur la définition de "l'écrivain paysan" dans la presse périodique soviétique (1928-1930) et ses conséquences», in *Cahiers du monde russe et soviétique* 28: 196. www.persee.fr/doc/cm_r_0008-0160_1987_num_28_2_2111

²⁰³ NIQUEUX, Michel. (1987). «Le débat sur la définition de l'«écrivain paysan» dans la presse périodique soviétique (1928-1930) et ses conséquences», *Cahiers du monde russe et soviétique*: 196. www.persee.fr/doc/cm_r_0008-0160_1987_num_28_2_2111

²⁰⁴ HARITSCHELHAR, Jean. (2008). «Herri literatura», *Literatura Terminoen Hiztegia* https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=herri+literatura

Baina herrikoitasuna kontzeptu labainkorra da.²⁰⁵ «Herri»aren nozioa etnografiaren alorrean atzematen da lehenbizi, «herri-kulturaren» auzokide eta ikergai folklorikoarekin loturik. Baita ere, «kultura herrikoia»ri loturik. Hau da, terminoak bi norabide hartuko ditu.

Lehenak herriaren iraganarekin du zerikusia –ondarearekin, diakronian– eta bigarrenak herriak sortzen duenarekin –sinkronian-. Euskal folklore-ondarearen bulkada XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran Europako uholdearen eskutik iritsi bazen Euskal Herrira, ordukoak dira kontzeptuari izendatze egokia topatzeko euskal terminologiako lehen bilaketak. Resurrección Maria Azkue «folkloriko» izenondoarekin ezeroso zegoenez, frantsesaren eredia hartu zuen eta «herrikoia» hobetsi zuen.²⁰⁶ Herriaren ahotik entzundakoa goستن zuen, Europar tradizioan kokatuz.²⁰⁷ Horrela, herriak egina bilakatzen da herriaren arimaren erakusle. Lotura horrek literaturaren ekoizpena hunkituko du. Euskal literaturaren Pizkundeko bultzatzaileek herrikoitasuna aldarrikatu zuten. Hala nola, *Aitzinako oituren piztutzea* bere artikuluan, Joxe Ariztimuño *Aitzolek*:

Alako errikutsua daramate... Eta onelako olerkiak eta onelako idazlanak bear ditugu. Irakurleak eta euskaltzaleak gure bertso zail eta idazlan ezin entendizkoaz aspertu ditugu. Geok ere, idazleak, azkenez nekatzen ari gara.²⁰⁸

Estepan Urkiaga *Lauaxetak* nahiz *Aitzolekin* herrikoitasunaren inguruko eztabaida kritiko publikoan ibili, beharrezkotzat zeukan herri-literatura, «arrazaren sentimendu primitibo»tzat jotzen zuela.²⁰⁹

Herrikoitasun kontzeptuaren objektibazioa nahasia bada, kontzeptuaren «definizio inplizitoen koerentzia partzialetik» datorke.²¹⁰ Harago, Etxamendiren narratibaren herrikoitasunean eragiten duen beste elementua herri-litera-

²⁰⁵ DEREZE, Gérard (2005). «De la culture populaire au patrimoine immatériel», *Hermès, La Revue*: 47-53. <http://www.cairn.info/revue-hermes-la-revue-2005-2-page-47.htm>

²⁰⁶ AZKUE, Resurrección María (1959). *Euskaleriaren jakintza. Literatura popular del País Vasco*. 2. edizioa. Madrid: Espasa-Calpe, 1. alea.

²⁰⁷ ETXEBARRIA, Igone, KALTZAKORTA, Jabier (2009). *Herri literatura*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: 12.

²⁰⁸ KORTAZAR, Jon (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbo: Desclée de Brouwer: 74.

²⁰⁹ KORTAZAR, Jon (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbo: Desclée de Brouwer: 106-107.

²¹⁰ BOURDIEU, Pierre (2001). *Langage et pouvoir symbolique*. Paris: Fayard: 135.

turaren egituraketa eza izanen da.²¹¹ Azpimarragarri da alabaina, euskal literaturan herri-literaturak duen egituraketarik eza eta horren deskribatzeko «hari narratibo»rik eza.²¹²

Hain zuzen, euskal literaturaren historiografian herri-literaturaren esparruaren aberastera dator Etxamendiren narratiba. Horren islatzeko «hari narratiboa» Kulturala Azterketen bidez lor daiteke²¹³. Ondasun herrikoien analisirako emandako tresnei esker, kritikari soziologoak jo dezake kultura herrikoia adierazpenak batasun sinbolikoa osatzen duela eta izate autonomo edo beregaina dela. Edota, kultura herrikoia balio menderatzaileen peko dagoela, heteronomiak gaina hartua.²¹⁴ Hautu kontzeptual batek zein besteak arriskuak dauzka. Lehen hautuak populismoan eta bigarrenak legitimitate orokortzailean erortzea ekar lezake. Erlatibismo kulturalaren traba ere, saihestu beharra dago.²¹⁵

Zehazki, Etxamendiren narratibak modernitateak baztertzen dituen nekazarien errealtatea du ekai literario.²¹⁶ Hain justu, Nafarroa Behereko Bigarren Mundu Gerraren ondoko nekazarien egunerokoa eta aldaketa sozioekonomikoaren aurreko haien ezinegona. Hitz batez, Etxamendiren narratibak nekazari-tzako euskal munduaren tragedia isila kontatzen du. Zentzu horretan, Eñaut Etxamendiren obrak –kulturalaren mailakatze sinbolikoan behe-mailan den adierazpena izanki– literaturaren dominozentrismoa²¹⁷ ukatzea erabakitzen du.

²¹¹ RETOLAZA, Iratxe (2010). «Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idazleak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta», *Euskera* (2010, 2) 55: 953-976.

²¹² *Ibid.*

²¹³ BAETENS, Jan (2005). «La culture populaire n'existe pas, ou les ambiguïtés des Cultural Studies», *Hermès, La Revue*, 42: 70-77. <http://www.cairn.info/revue-hermes-la-revue-2005-2-page-70.htm>

²¹⁴ GRIGNON, Claude, PASSERON, Jean-Claude (1985). «Symbolisme dominant et symbolisme dominé», *Enquête: 2*. <http://enquete.revues.org/38>

²¹⁵ *Ibid.* 10.

²¹⁶ Ohartarazi behar da kultura herrikoia ordea, ez dela baseritarren eskusibotasuna. Hiri ere adierazpide kulturala, soziala edota artistiko herrikoia sorkuntza-eremua da.

²¹⁷ GRIGNON, Claude, PASSERON, Jean-Claude (1986). «Dominocentrisme et domino-morphisme», *Enquête: 1-26*. <http://enquete.revues.org/42>

2. EÑAUT ETXAMENDIREN ETHOS LITERARIOA

Grezia klasikoko bizi publiko nahiz politikoan ezin landuagoa, «*ethos*» kontzeptua filosofikoki ikertua eta eztabaidatua izan da, mendeetan. Gaur, uste zabalak onartzen du publikoaren, entzuleen edo beste jende-multzoren aurrean hizlari edo pertsonaia publiko batek lortzen duen itxura dela «*ethos*» delakoa. Izan daiteke «*ethos* naturala» –landu gabea–, edo, alderantziz, hartzailearengan eragiteko asmoz jorratua. *Ethosak* diskurtsoaren harrera baldintzatzen du. Hain zuzen, igorleak lantzen duen *ethosak* hartzaileak igorlearengan daukan konfiantza du finkatuko. «*ethos* literarioa»ri deituko zaio idazleak bere jarrera eta ibilera literarioan, irakurleekiko harremanean zein bizitza publikoan dituen posizio-hartzeetan eta besteetan hedatzen duen bere buruaren irudiari.

Eñaut Etxamendiren *Ethos* literarioa hiru aldagaien bidez azaltzen dela pentsa daiteke. Lehena, «ukazioaren indarra» edo Eñaut Etxamendik kontraktotasunari aurre egiteko erakutsi izan duen kemen handia. Segidan datoz idazlearen militantzia politikoko urteak eta haren idazkera *deszentratua*, hots, arau normatibotik aldendua mantendu izan duen posizioa.

2.1. UKAZIOAREN INDARRA

Eñaut Etxamendiren *ethos* literarioaren ezagutzeko gure egitasmo kritikoa alderdi biografikoari lotuko zaio une batez. Izan ere, Eñaut Etxamendik bizi izandako hainbat pasadizok azaltzen duketelako haren nortasuna eta ukazioa bereganatzeko ahalmena. Gure erranak Etxamendik berak batetik eta, beste-

tik, haren lehengusua den Marcel Etxehandik eskaini ziguten solasaldi banatan oinarritzen ditugu.²¹⁸

Oroitu behar da, hasteko, Ezterenzubiko herriak kokagune geografiko eta naturalak osaturiko paisaiaren eta etxaldean antolaketa berezia dauzkala.²¹⁹ Haren oroitzapenetan, Eñaut Etxamendik «etxalde nîmiñoak, batzuk hektarea bat lur eta behi pare bat»²²⁰ aletzen ditu. Hots, XX. mende hasierako Ezterenzubiko mendialdeko ingurumena barkagaitza zen. Jendeak etxeetan eta auzotik auzora elkar lagunduz bizi ziren, ez baziren erbesteratzen: «Argentina edo Uruguairat».²²¹ Dena dela, nekeziak nekezia, aldaketarako joera uzkurak izan ohi dituzte euskaldunak, nahiz egokitzapenerako gaitasunak landu.²²² Ipar Euskal Herriko euskaldunen ohituren mantentzeko nahikundea ahaidetasun-sistemari, intsumisioari eta kontrabandoari esker mantendu bide ziren Estatuak inposaturiko zuzenbide positiboaren aurrean.²²³ Bere narrazioan, Etxamendik Euskal baserriaren aldaketarako uzkurtze arkeotipikoaren gaia lantzen du, bizipen pertsonaletan bermatuz:

Euskal Herria izugarri gibelatua zen. Konparazione eskolan, izaten ahal nituen 15 urteko mutikotan inskribituik 28. Baina ez nituen sekulan 28ak ikusten! Astelehenetan²²⁴ lehenik eta bat ez zen nehor ere izaten. (...) Gero, arto-biltze zutela edo iratzetako behar zutela lagundu edo ixtorio. Oroitzen naiz lehenbiziko artikulua Herrian eginik, eskolatu behar zela. Orduan zanpa-zanpa ari ziren Afrikako eta kolonia izandako lekuak denak beren independentzian (...) oroitzen naiz erranik: «ikusten dituzue beren burujabetasuna hartzen ari dutela lehenagoko koloniak eta gu bezain gibelatuak zirenak! Nolaz, Frantziak horiei burtsak pagatu eta eskolak egiten dizkielako eta hola dituzte orain beren ingeniadoreak eta beren administrazioa... eta euskaldunak egoiten balin bagara eskolarik gabe?»²²⁵

²¹⁸ Eñaut Etxamendirekin bi elkarrizketa argitaragabe grabatu ditugu. Lehena 2013ko abenduan eta bigarrena 2014ko abuztuan egin genituen. Atal honetan lehen elkarrizketa dugu erabiltzen. Marcel Etxehandirekin, berriz, Beloken mintzatu ginen 2015eko agorrilean.

²¹⁹ LUR ENTZIKLOPEDIA (2004). «Baserria Errejimen Zaharrea», *Atlas Historikoa*: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-luredir/eu/contenidos/articulo/c0201/eu_d0201012/0201012.html

²²⁰ 2013ko abenduan Bitiriñan (Nafarroa Beherea) egindako elkarrizketan erranak.

²²¹ *Ibid.*

²²² MARQUER, Paulette (1963). «Contribution à l'étude anthropologique du peuple basque et au problème de ses origines raciales», *Bulletins et Mémoires de la Société d'anthropologie de Paris*: 1-240. http://www.persee.fr/doc/bmsap_0037-8984_1963_num_4_1_6257

²²³ BIDART, Pierre (2003). «Héritage, dynamique et tension au Pays basque français», *Ethnologie française*, 33: 445.

²²⁴ Eñaut Etxamendi Donibane Garazin irakasle zen urteez ari da. Astelehenetan izaten da hango merkatuko eguna.

²²⁵ 2013ko abenduan egindako elkarrizketan erranak.

1960ko urteetako Ipar Euskal Herrian, herriaren hezkuntzan fede izatea eta ideia horren aldeko aldarria egitea ez bide zen errazki onarturiko gauza. Inarrosi beharreko lehen joera herriarena berarena izanki eta:

Jendeek usaia zuten hanbestetaraino burua apalik ibiltzeko apaizekin, eta jendarmeekin, eta soldadogoarekin, eta Aljeriako gerlarekin, guztiarekin, eta guk holako gauzak errateaz ... harritzen ziren!²²⁶

Eñaut Etxamendik deskribatzen duen egoera hitzik gabe dagoen eta eska-tzen zaion guztia jasaten duen herriarena da. Ohartzen ahal da Eñaut Etxa-mendi injustizia ez onartzekoz bazterrak astintzeko prest dagoen jendea dela.

Eta Etxamendiren ukaziorako gaitasunak helduaroan ez ezik, gaztaroan ere garatu zirela azaldu behar da. Horretarako lagungarri izanen dugu Marcel Etxehandi²²⁷ fraide beneditarraren –Eñaut Etxamendiren lehengusuaren– lekukotasuna. Ikusi dugun bezala, Etxamendi gogoz kontra joan zen Belokera eta ikastea gustuko bazuen ere, ez zuen apaiztu nahi izan. Eñaut Etxamendik Beloken egindako ikasketa urteez, Marcel Etxehandik honela zion:

Eñaut ez zen gure etxerako²²⁸ egina. Hura beste gisa batekoa, dohain handi-koa zen. Familiar nortasun handiko jendeak ziren eta familiak hazi zuen, giro aberatsean. Eñautek barneko karra zuen, barnetik senditzen zuen herriko kultura, jendea, lurra. Iratiko arrazakoa zen. Nola sar lau murruren artean? Zartatuko zuen. Hobe zuen gazterik aterarik, nahiz borta zabalik den ateratzeko nola hala sartzeko.²²⁹

Elipsiaz eta eufemismoz beteriko Marcel Etxehandiren azken hitzek ez dute estaltzen ahal Eñaut Etxamendiren inguruko guztiek gogoan atxikitzen dutena:

Neke da funtsa zuzenaren aipatzea. Beroan bero, usu desbideratzen da jen-dea. Ni orduan soldado nintzen, ez nuen hurbiletik ikusi. Bakarrrik dakit guduka izan zela. Soldadogoatik itzultzean, Kattalin lehengusua [*Eñaut Etxamendiren arreba gehiena*] kurutzatu nuen autobusean. Lur jota zegoen. Autobusean erabili genituen solasa luzeak.²³⁰

²²⁶ *Ibid.*

²²⁷ Marcel Etxehandi (1932, Eiheralarre). Haren eta Eñaut Etxamendiren bi amak ahiz-pak ziren.

²²⁸ Hots, Belokeko apaizetxerako.

²²⁹ Aita Marcel Etxehandirekin egindako elkarrizketa, 2015eko agorrilean.

²³⁰ *Ibid.*

Eñaut Etxamendik apaizgoa utzi nahi izateak eta horrelakorik ezin egiteak ikaragarriko borroka sortu zuen Eñaut Etxamendiren baitan lehenik, Etxamendiren eta amaren artean ondotik, Etxamendiren eta arduradun eklesiastikoen artean, azkenik. Apaizek Etxamendiren ama eta arreba zaharrena presiopean jartzen zituzten, haien aldera bermatu eta semea edo anaia apaizteraino bultza zezaten, kosta ahala kosta. Ezin ahantz daiteke noizko urteak ziren: Etxamendi Belokera sartu zen 1947an eta handik jalgi 1953an.²³¹ Urte hartan ama hil zitzaion, apaizteko edo laiko gelditzeko eztabaida zuritu gabea zutela. Hiru urte lehenago, Etxamendik «Orbaizetako Neskatxa» ezagutu zuen eta horrek eman zion erabakian irmoki jarraitzeko adina indar:

Ene gaztaroko izar-bidea ta betirako libertateraren sumendia Orbaizetako Neskatxak piztu zautan. Anitz zor dakot betiko.²³²

Ulertu behar da hamabost urte zituela, Eñaut Etxamendi gai izan zela amaren nahikeriaren kontra bazen ere, bere erabakiaren onarraz arte borrokatzen. Nahikoa indar izan zuen apaiztxetik joaten utzi nahi ez eta hiru urtez, xantaia psikoemozionala egiten zion zuzendaritza eklesiastikoaren eraso antolatuei aurre egiteko. Konturatu behar da hautu horren defendatzeko bakar-dade osoan zela, bai apaiz-eskolan bai eta familian ere.²³³ Azkenik, ama zendu zitzaionean ere, Etxamendi gazteak beharrezko kemena atzeman zuen bere baitan, kulpabilizazioak ez zezan ito.

2.2. MILITANTZIA POLITIKOKO URTEAK

1955ean, baxoa²³⁴ gairitu eta, Eñaut Etxamendi Nekazaritza Ingeniaritza eta Zientzia Politikoak ikastera joan zen Tolosara (Okzitania). Han egon zen bi karrerak segitzen, 1959ra arte. Urte hartan Senegalera, Saint Louis ibaiaren ondora, joan zen lanera, ezkonberri. Senegalen bi urte iraganik, Britainiara bidali zuten nekazaritzako eskola pribatu batera, irakasle. 1963an Euskal Herrira

²³¹ Urte horietako Belokeko apaiztxeko artxibategian agiririk ba ote zen galdegin dugunean 2015ean, erantzun izan zaigu «deus ere» ez dela gelditzen urte haietatik. Ikasle izandakoen «nota-boletirik, ez argazki bihirik» ez dagoela jakinarazia izan zaigu, malurusk.

²³² ETXAMENDI, Eñaut (2011). *Idazlanen Bilduma V*. Baiona: *Maiatz*: 182.

²³³ Horretan, Etxamendiren irmotasuna konpara daiteke diktadurak edo poliziak atxiloturiko eta torturatuturiko jendeen lekukotasunak azaltzen ohi duenarekin, ziegatik kanpoko izate maiteak edo ideala politikoak ez men egiten lagundu dituela diotelarik.

²³⁴ Hots, Batxilergoa Hego Euskal Herrian.

itzuli zen bizitzera. Orduan *Enbata* mugimenduan hasi zen: Ximun Haran, Jakes Abeberry, Christiane Etchalus, Jean-Louis Davant edo Daniel Landart ziren, besteak beste *Enbata*ko bultzatzaile. Garaziko eskualdean, Manex Goienetxe militanteetan zen, ere. *Enbata* Bordeleko ikasleen taldea izan zen lehenik, agerkaria ondotik eta alderdi politikoa bihurtu zen nonbait. Hain justu, 1963ko apirilaren 15eko Aberri Eguna garrantzitsua izan zen *Enbata*rentzat. Itsasun, Ximun Haran eta Julen Madariagak «Itsasuko Hitzarmena» aitortu baitzuten, alderdia bilakatuko zenaren zedarrri ideologiko-politikoak finkatuz:

Egun, 1963ko Aphiirilaren 15an, ABERRI egunean, Lapurdiko Itsasun landatu dugun arbolaren pean bildurik, huna zer jakinarazten dugun:

GUK EUSKALDUNEK, Zer giren:

–Lurraren, Arrazaren, Mintzaiaren, Ohiduren aldetik HERRI bat eta bakar bat gira. Iragan demborako eta egungo Nahiaz NAZIONE bat gira. Naturaz eta Istorioaz DEMOKRAZIA bat gira. (...) Jakin arazten dugu: Gure NAZIONE guhaurrek gobernatu nahi dugula. Bertze Herriari gure Eskual Herria NAZIO-NETZAT onhar araztera oldartuko girela. Horrela BAT eginen da Eskual Herria eta gure ABERRIARI bizia eta segida emanen diogu.²³⁵

2013ko uztailaren 20an Baionan «Duela 50 urte: *Enbata* Iparraldeko abertzaletasunaren iturria»²³⁶ hitzaldiko bere erranetan, honela oroitzen zen Eñaut Etxamendi, *Enbatan* hasi zeneko arrazoiez:

Etsaiek begiak ideki dizkigute. Nik Estadoa hastio nuen. Osoki. 14eko Gerla, 40eko gerla egina zuten gure etxeok. Zientzia politikoetan ikasi nuen nahi bada, egoera alda daitekeela. Lekuko garapena lantzen Senegaleko Deltan eta Britainian ikusi nituenak Euskal Herriarekin pareztatzen nituen: populua, laborantza, lur puxkilatuak... Bietan, nire lankideek euforia bizi zuten intelektual eta profesional mailan. Niretzat Garazira etortzea leizea izan zen. *Enbata*koek errealitatean oinarrituriko diagnostiko ezezkorra egin zuten. Publikoak bazekien, inkonzienteki bada ere, katastrofea hurbil zela. Hortatik heldu zitzaigun haren etsaigoa. Bestalde, kostakoe [Enbatako militante gehienak Lapurdiko hiri girokoak ziren] ez zuten jakin laborariendako erretorika egokia atzematzen.²³⁷

²³⁵ «Itsasuko Ageria», 1963ko apirilaren 15ean Enbatak inprimarazi esku-orria.

²³⁶ ETXAMENDI, Eñaut, DAVANT, Jean Louis (2013). «Duela 50 urte: Enbata mugimenduko militanteen lekukotasuna», in LARRASQUET, Jean Michel (Ed.) EUSKO IKASKUNTZA, MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTOA. *Duela 50 urte: Enbata Iparraldeko abertzaletasunaren iturria*. Baiona: Eusko Ikaskuntza: Manu Robles-Arangiz Institutua.

²³⁷ *Ibid.*

Hiru dira Eñaut Etxamendik aleturiko aipamenetan barnera daitezkeenak: *Enbata*ko militanteen politikagintza berria, *Enbata*rekiko biztanleen ikuspuntua eta azkenik, nekazaritza munduaren eta *Enbata*ren arteko harremana. Lehenik, oroitu behar da 1960ko urteetako Ipar Euskal Herriko jendarte hertsia eta autarkikoan, *Enbata*ren etorrera astindu bat izan zela, kultura politikorik ez zenez gero.²³⁸ Ezin begi-bistatik gal daiteke ere, 1960ko urteetan Ipar Euskal Herrian euskara debekatua zela eskolan, euskal kultura apaletsia jendartean eta horrek gainbehera soziokulturala laguntzen zuela.²³⁹

Enbata mugimenduaren politika jendarteratzeko modua berria ez ezik, ikaragarria ere zen nekazal herrietako hainbat biztanlerentzat. Haien ikuspuntutik, *Enbata*koak bazter-nahasleak ziren.²⁴⁰ Hala ere, beste euskaldun zenbaitek begiak irekitzen dituzte *Enbata*koen hitzaldiak aditu ondoren. Horiek euskal nortasunaren defentsan hasiko ziren kulturaren, nekazaritzaren, ekonomian edota ere politikan.²⁴¹

Azkeneko utzi dugu nekazaritzaren eta *Enbata* mugimenduaren harremana. 1973an, *Enbata* aldizkariko irakurleen zenbakiak²⁴² jatorri soziologikoaren arabera ikertuz, ikusgai da gehiengo zabala soldatapeko langileek (koadro izan ala ez), % 32ko ordezkari zarekin, osatzen dutela. Ondoren, merkatariak % 16 dira, Eliza % 11 eta profesio liberalak % 9 dira. Laborarientan, berriz, % 6 da *Enbata*ko irakurle. Goraipatzekoa da sei urte lehenago, 1967ko hauteskundeetan, Zuberoan, arrakasta erlatiboa erdietsi zutela Kristiane Etxaluz eta Arño Hegiaphal *Enbata*ko hautagaiek. Jean Pitrau CDJA sindikatuko laborariaren militantziari eta hark sustraitzen lagundu oinarri sozialari esker, *Enbata* nekazari gazteen sostengu elektoral eskuratu zuen.²⁴³ Hala ere, oldar hori laster akitu zen eta nekazariak haien aldarrikapenak lortzeko sindikalgintzaren bidea hartu zuten.

²³⁸ ETCHEVERRY-AINCHART, Jon (2013). «À la source de l'abertzalisme d'Iparalde», *Enbata*. <http://www.enbata.info/articles/a-la-source-de-labertzalisme-diparralde>.

²³⁹ *Ibid.*

²⁴⁰ MALHERBE, Jean-Paul (1980). «Le nationalisme basque et les transformations socio-politiques en Pays Basque nord», in BIDART, Pierre (Ed.) *La nouvelle société basque. Ruptures et changements*. Paris: L'Harmattan: 70.

²⁴¹ LOUGAROT, Gisèle (2008). *Pays Basque Nord: Mai 68 en mémoires*. Donostia: Elkar: 302.

²⁴² *Ibid.* 76.

²⁴³ PAN MONTOJO, Juan, PRO RUIZ, Juan (1985). «La question nationaliste en Soule», in BIDART Pierre (Zuz) (Ed.) *Ibilbide zozialak, ideologiak eta ekintza kulturalak Euskal Herrian*. Pau: Université de Pau et des Pays de l'Adour: 94.

1960ko urteetan frantses inperio kolonialaren desegitea agitzen da, lehenik, Indotxinan eta, ondotik, Aljerian. Horrek Frantziako ospearean erorialdia lagundu zuen eta, ondorioz, tentsio politikoak fokalizatu zituen. Europako eta Frantziako kolonietan berriz, herri kolonizatuak deskolonizatzeko grinan badaude, Frantzia mailan, ordura arte izan ez zuten nortasun politiko-administratiboa eskatzen hasten dira lekuko kulturak, sortzear dagoen Europak federalismo egitura baten barnean onartuko dituela esperoz.²⁴⁴

Zentzu horretan, Eñaut Etxamendiren militantzia politikoko urteak krisi morala handiaren erdian iragaten dira. Bestalde, militantzia horrek mundu zabalean gertatzen diren aldaketak eta zabaltzen diren ideiak hurbiletik jarraitzen ditu: nazionalismoa nahiz deskolonizazioa. 1968ko maiatzak Frantzia binperrez gora jartzen duenean, Ipar Euskal Herria ez da asaldatzen, nahiz barne-pitzadurak nabaritu jendartean.²⁴⁵ Eñaut Etxamendiren narratiban langileriarik ez hiririk ageri ez denez, 1968ko oihartzunik ez da sumatzen. Aldiz, erlijioaren alorrean, Vatikanoren II. Kontzilioak onarturiko testu batzuek ondorioak dituzte Eñaut Etxamendiren biografian nahiz narratiban.

Bukatzeko, 1960ko aldaketa-urteetan euskal klase ertain berri bat azaleratzen da Ipar Euskal Herrian.²⁴⁶ Zehazkiago, *Enbata* alderdiari esker eta bereziki, ondotik sortuko den mugimendu soziokulturalari esker, behialako gazte ikasiek haien jakintzen kapitalizazio kulturala gauzatzen lortuko dute eta klase ertaina izatera helduko dira.²⁴⁷

2.3. ETXAMENDIREN IDAZKERA DESZENTRATUA

Idazkera deszentratua zentraltasun normatiboaren arauak kontuan hartzen ez dituen izan da.²⁴⁸ Idazkera deszentratuan, idazlea kultura nagusia-rekiko urrun dago, harengandik erabat kanpo izaten iristeraino. Bestalde,

²⁴⁴ SARTRE, Jean-Paul (2002). «Préface à l'édition de 1961», in FANON, Frantz. *Les damnés de la terre*. Paris: La Découverte & Syros: 19.

²⁴⁵ LOUGAROT, Gisèle (2008). *Pays Basque Nord: Mai 68 en mémoires*. Donostia: Elkar: 322.

²⁴⁶ MALHERBE, Jean-Paul (1980). «Le nationalisme basque et les transformations socio-politiques en Pays Basque nord», in BIDART, Pierre (Ed.) *La nouvelle société basque. Ruptures et changements*. Paris: L'Harmattan: 55.

²⁴⁷ BIDART, Pierre (2002). «Construction et devenir de la bipolarité culturelle, basque et français», *Hérodote* 105: 127.

²⁴⁸ LARONDE, Michel (1996). *L'écriture décentrée: la langue de l'autre dans le roman contemporain*. Paris; Montréal: l'Harmattan.

idazkera deszentratuak muga ideologiko eta linguistikoak gainditzen ditu. Muga horiek, gainera, mezuaren forma eta balio kanonikoak bihurtzen dituzte.

Laminak Eñaut Etxamendiren lehen narrazioaren lehen emanaldia *Herria* astekarian agertu zen 1964ko urriaren 8an. Bestela erranik, Arantzazuko bilkuran Euskaltzaindiak euskara literario batuaren zabalkundea finkatu baino lau urte lehenago. Etxamendiren obrak ordea, ez du gaurdanik euskara literario baturik erabili. Honi gehi dakioke Eñaut Etxamendik arau orokorraren bazterrean egotea erabaki duela eta haren mintzairak nahiz jarrera literarioak «mezuaren forma eta balio kanonikoak» okertzen dituzte. Badaiteke hautu hori herrikoitasunaren aldeko jarrera literarioan lerrokatzea:

Notre basque actuel est parfaitement équipé pour une culture populaire valable. Il est d'autres cultures (scientifique, bourgeoise, aristocratique, etc.) où notre basque ne se sent pas à l'aise. Peut-on créer un basque correspondant à ces mentalités-là sans tuer celui qui existe? C'est la question.²⁴⁹

Ohargarri da hizkuntzaren gaia neutraltasunetik harago, ideologiak hartua dagoela. Euskal literaturari dagokionez, euskara batua eztabaida sakon eta bortitzen emaitza adostua izan zen²⁵⁰ eta haren erabilera orokortu ondoren, onarpen soziala lortu zuen. Haatik, espazio sozialen tirabiren ondotik, bortizkeria sinbolikoa gauzatzen da²⁵¹ eta behe-nafarreraren lehenestek Etxamendi esparru literario berezian kokatzen du. Izan ere, dialekto-literatura konnotaturik gerta daitekeelako:

«Dialekto» hitzak beti izan du erdainezko eduki edo kutsu handia, Europan behinik-behin, Martinetek dioen bezala. (...) Esan daiteke, beraz, lehengo sistema hizkuntza izaki, dialektoa sistema bigarrenkaria dela zenbait irizpidetan oinarrituz, hala nola, elkarren arteko ulergarritasunean, ekoizpen literarioan, hizkuntz komunitate konkretu batekoa izatearen kontzientzia garbian, funtzioen

²⁴⁹ Piarres LAFITTEREN hitzak. SUDUPE, Pako (2011). *50eko Hamarkadako euskal literatura: Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*. Vasconiae Utrisque (Ed.) Donostia: 32.

²⁵⁰ SUDUPE, Pako (2011). *50eko Hamarkadako euskal literatura: Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*. Vasconiae Utrisque (Ed.). 1. argitald. Donostia: 266.

²⁵¹ KLINKENBERG, Jean-Marie (2012). «La mutation des normes sociales et langagières. Conditions de production des littératures périphériques», in KASSAB-CHARFI, Samia (Ed.) *Altérité et mutations dans la langue: pour une stylistique des littératures francophones*. Louvain-la-Neuve: Academia Bruylant. I. Kapituluak: 17-29. Klinkenbergek Pierre Bourdieu (1982) zititzen du: *Ce que parler veut dire: l'économie des échanges linguistiques*. Paris: Fayard: 244.

hedaduran, eta abarrean, beti garrantzi handia hartzen dutelarik elementu extralinguistikoeak.²⁵²

Euskarak bizi izan dituen *purismo* eta *populismo* eztabaiden jakinean²⁵³ dago Eñaut Etxamendi. Ezagutzen ere du euskararen aberastasun dialektala. Hizkuntza bakarraren hitzun eta irakurle desberdinen arteko elkar ulertzea helburu du, «babelismo»tik²⁵⁴ urrun, «balore intersubjektiboa»²⁵⁵ gogoan. 1962an Antonio Zavalak elebitasunaren aterabidea atzeman bazuen Piarres Larzabalen²⁵⁶ antzertia²⁵⁷ plazaratzeko, Etxamendik hiztegiak ezarri ohi zituen bere narrazioen zenbaiten bukaeran, behe-nafarrera ez jakiteak ez zezan irakurlea ulermenetik kanpo laga.

Horrelako jarrerak erakusten du Eñaut Etxamendiren idazle jarrera etikoa dela. Halaber, jarrera estetikoan idazkera literario «basa»ren aldea hartzen du. Euskarak berebiziko trantsizio soziokulturala bizi duen unean, euskara batua-ren norma zabaltzen denean, Etxamendik ez dio horri men egiten. Nonbait, «domestikazioa»²⁵⁸ ukatzen du. Normari muzin eginez, Eñaut Etxamendiren narrazioak euskalkia idazteko grafia intuitiboa erabiltzen du.

Dialektoen grafiaz, hain zuzen, jardun izan dute espainol literatura teorizataileek idazle espainol erregionalista batzuen idazteko manera ikergai harturik:

En las últimas décadas del siglo XIX se extiende la tendencia de plasmar la esencia del dialecto y la variedad popular propia de cada zona en obras literarias. (...) disponen [*idazleez ari da*] únicamente de su propia experiencia, de su oído y de los grafemas de la lengua española.²⁵⁹

²⁵² PAGOLA, Rosa Miren, PEILLEN, Txomin, DIEZ DE ULZURRUN, Pedro (1992). *Euskalki literarioak*. Bilbo: Labayru Ikastegia: 40-41.

²⁵³ SUDUPE, Pako. *50eko Hamarkadako euskal literatura: Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*. Vasconiae Utrisque (Ed.). 1. argitald. Donostia: 2011, 266.

²⁵⁴ KLINKENBERG, Jean-Marie (2012). «La mutation des normes sociales et langagières. Conditions de production des littératures périphériques», in KASSAB-CHARFI, Samia (Ed.) *Altérité et mutations dans la langue: pour une stylistique des littératures francophones*. Louvain-la-Neuve: Academia Bruylant. I. kapitulua: 17-29.

²⁵⁵ MERLEAU-PONTY, Maurice (1955). *Les aventures de la dialectique*. Paris: Gallimard: 18.

²⁵⁶ LARZABAL, Piarres (1962). *Iru ziren*. Zavala Antonio (Ed.). Tolosa: Auspoa: 151.

²⁵⁷ Liburuaren peritestuak honela dio: «Lapurdikoa ta Gipuzkoako euskeraz. (Gipuzkoakoa M. Lekuona apaiz jaunak egiña)».

²⁵⁸ GOODY, Jack (1978). *La raison graphique. La domestication de la pensée sauvage*. Paris: Éditions de Minuit: 274.

²⁵⁹ NIETO CABALLERO, Guadalupe (2016). «Dialectalismos fonéticos en los escritores extremeños finiseculares: el ejemplo de *Extremeñas*, de Gabriel y Galán», *Revista de Estudios Extremeños* LXXII: 851-855.

Etxamendiren esperientzian, belarriak garrantzia dauka. Haatik haren kasuan, erreferentziako grafemak ez dira alfabetizazioak bidatu beharko zukeen frantsesarenak. Pentsa daiteke, Belokeko fraidetxean euskarazko testuak ikasi dituela eta ondorioz, lexikoan ez gramatikan euskara baturik ez erabilirik ere, Etxamendiren grafema erreferentzialak euskara batuaren hurbilekoak direla.

Europan segituz, Austrian ere dialekto-literatura jorratu izan denez, Vienako Antzerki Herrikoia inguruko teorizazioak baliagarri izanen zaizkigu:

La transcripción gráfica de los dialectos supone un gran reto para los autores literarios debido a que no existe una codificación escrita de los mismos. Al no disponer de un código gráfico propio, los escritores que introducen variedades locales o regionales sólo pueden recurrir a la lengua estándar escrita. Como el único código gráfico normalizado existente no está pensado para recoger los rasgos peculiares del dialecto, muchos de estos se pierden si no se introducen nuevos elementos grafemáticos. El problema de estos, sin embargo, es que no suelen dejar de ser marcas idiolectales, porque carecen de la necesaria aceptación generalizada por parte de los hablantes, algo que limita su capacidad comunicativa.²⁶⁰

Azpimarratzekoa da Vienako Antzoki Herrikoia esperientzian dialektoaren erabilera literarioa baliabide literario osotzat onartzea. Haatik, hizkuntza ez-estandarren mugak begien bistara datoz: «zantzu idiolektala»–hots, estigma– utz, eta ulergarritasuna murriz dezakeelako.

Austriaz bestalde, hizkuntza aniztasuna duen Suitzak ere, literatura dialektalaren tradizioa dauka. Modern Mundart abangoardia literarioak bere egin zuen, horren balio formala eta afektiboa goraiatuz, bereziki olerkigintzan. Baina XX. mendearen bukaeran, Suitzako literatura dialektalak jendarte modernoaren kritikari lotu zitzaion. Orduan, literatura dialektala egiten zuten idazleek jarrera soziala eta politikoak defenditu zituzten.²⁶¹

Eñaut Etxamendik jorratutako hiru aldagai topatzen ditugu Suitzako literatura dialektalean: intimoaren kontra egiteko baliabide literarioa, lirikotasunaren indarra eta kokapen sozial eta politikoaren azpimarratzea. Literatura

²⁶⁰ ALBALADEJO MARTINEZ, Juan Antonio (2011). «El dialecto: estigma y obstáculo en la recepción del Wiener Volkstheater», *Revista de Filología Alemana*: 153. <http://revistas.ucm.es/index.php/RFAL/article/view/37058>

²⁶¹ GSTEIGER, Manfred (2016). «Littérature en dialecte», *Dictionnaire Historique de la Suisse*: 1-4. <http://www.hls-dhs-dss.ch/textes/f/F11206.php>

dialektalaren kasurik deigarriena eta irakaspenez betea Suitza erretorromanikoarena da. Izan ere, hiztunen faltan desagertu baitzen.²⁶²

Horiek horrela, dialekto-literaturaren ataka transkripzioaren unean sortzen da. Kodifikaziorik ezean, grafema bereziak baliatu beharrez, estigmatizazio idiomatikoa gertatzen da. Alemaniako teoria literarioak erakusten du silaben kopurua txikiago eta dialekto-literaturatik hurbilago gaudela.²⁶³ Urrunago joanez, idazlearen helburuetan errealismoaren errekurtsioaz baliatzea delarik, orduan dialekto-literaturak «imitatzen dituen jendeek duten hizkuntzaren hurbileko bariedade linguistiko bat» asmatzeko errekurtsio literarioa eskaini liezaioke.²⁶⁴ Dialekto-literaturaren hizkuntza literarioaren aspektu fonikoa arras garrantzitsua agertzen zaigu Eñaut Etxamendiren ekoizpen narratiboari aplikatzeko. Izan ere, Etxamendiren idazkeran soinutasunak pisu handia baitu. Hain zuzen, euskararen normatibizazioari ihes egiteko idazle-hautu literarioen arrazoietatik dateke horixe: errealtatearen jatorrizko bertsiorekiko batuaren fideltasun eskasia. Zorroztasun estetikoak gidatzen du Etxamendi, «kondaeraren artearen indar primitibo organikoak»²⁶⁵ akuilaturik. Harago, Etxamendiren narratiba epikaren ondoko²⁶⁶ ahozko tradizioaren eta eleberrigintzaren hasieraren arteko iraganbidean liteke.

²⁶² Nafarroa Beherearen egoeratik hurbil daitekeen jazoera ote da Suitza erretorromanikoa? Ipar Euskal Herritik hurbil daitekeena, ote? Dudarik ez dago euskalki-literaturak duen ozto-poetatik bat irakurleria murrizarena dela. Hots, horren kopuruaren mantentzearen arazoa hunkitzen da.

²⁶³ ALBALADEJO MARTINEZ, Juan Antonio (2011). «El dialecto: estigma y obstáculo en la recepción del Wiener Volkstheater», *Revista de Filología Alemana*: 152-153. <http://revistas.ucm.es/index.php/RFAL/article/view/37058>

²⁶⁴ NIETO CABALLERO, Guadalupe (2016). «Dialectalismos fonéticos en los escritores extremeños finiseculares: el ejemplo de *Extremeñas*, de Gabriel y Galán», *Revista de Estudios Extremeños* LXXII: 864.

²⁶⁵ AUCOUTURIER, Michel (1994). *Le formalisme russe*. Paris: Presses universitaires de France: 32.

²⁶⁶ BENJAMIN, Walter (2003). «Le narrateur. Réflexions à propos de l'oeuvre de Nicolas Leskov», in *Écrits français*. Paris: Gallimard: 270.



3. ETXAMENDIREN NARRATIBA NOLA KOKATU EUSKAL SISTEMA LITERARIOAN

3.1. HETERONOMIATIK HURBILEKO URTEAK

Segidan, Eñaut Etxamendiren euskal esparru literarioarekiko harremanaren nolakotasunean barneratuko gara, bi partetan. Lehenik, euskal esparru literarioa zedarritu eta Etxamendik horren erdigunera noiz eta nola hurbildu zen aztertuko dugu. Bigarren partean euskal kritika literarioaz ariko gara, ikusiz zer maneratan hartu duen kritikak kontuan Eñaut Etxamendiren narratiba.

Bourdieu frantses soziologoak «esparru»en nozioa barneratzen duenean, literatura, arteak, zientzia edota filosofia orobatzen ditu eta botere ekonomikoaren edota botere politikoaren eremuekin harremanetan direla jotzen du, harreman sozialen hierarkiaren ondorioz. Kapitalaren, politikaren eta kultura-esparruaren arteko loturak botereak eta dominazioak bideraturik daude. Bi tentsiogunek bultzatzen dituzte: heteronomiak edota autonomiak. Heteronomiaren printzipioak esparru politikoan eta ekonomikoan nagusi diren balioak segitzen ditu. Autonomiak ostera, esparru politikoan eta ekonomikoan nagusi diren balioak ez jarraitzea lehenesten du.²⁶⁷ Bourdieuren teorizazioen ondotik, esparruetan «menperatzaile» eta «menperatu» edo «azpiratu» diren eragileez mintzatzen da. Hala-halaxe gertatuko da esparru literarioan ere. Esparru «menperatzaile»etan diren eragileek botere ekonomikoaren edota botere politikoaren eremuekiko hurbiltasun konplizea biziko dute. Esparru azpiratuan dauden aktoreek aldiz, harreman bitarikoa izanen dute botere ekonomikoaren

²⁶⁷ BOURDIEU, Pierre (1991). «Le champ littéraire», *Actes de la recherche en Sciences Sociales*: 7. http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/arss_03355322_1991_num_89_1_2986.

edota botere politikoaren eremuekiko. Gehienetan aurkaritzan izanen dira, batean nahitara, besteetan berriz, modu jasanean.

Euskal esparru literarioa «dominanteen artean den» hizkuntza azpiratutzat jo daiteke eta beraz, «literariotasunaren aldetik azpiratu» diren idazleak sortzen dituela erran.²⁶⁸ XX. mendean, euskal esparru literarioak hiriburu literariotzat hartzen du Donostia eta modu zabalagoan, Gipuzkoa erdigunetzat. Gainontzeko sei euskal hiri nagusiak Donostiarekiko «periferikotasunean» gelditzen dira. Ondorioz, zentroak erakargarritasuna esan nahi du eta euskal idazleek hainbat estrategia martxan jartzen dituzte esparru literario nazionalaren erdigunera heltzeko.²⁶⁹ Ipar Euskal Herriko esparru literarioa bereizita «azpi sistema»²⁷⁰ bat dateke. Beraz, Gipuzkoako erdigunearikiko menperatze-egoeran dagoke Ipar Euskal Herriko esparru literarioa (baina bai eta Bizkaia edo beste probintzietakoak ere). Egoera horretan, idazleak «balizkoen espazio»²⁷¹ zenbait ditu. Periferian posizio zentrala erdiets dezake –Ipar Euskal Herrian, Daniel Landart, demagun– zentroak onartzea bila lezake– Itxaro Bordaren kasua– edo, posizio autonomoa mantentzeko kapital sinboliko nabariari esker– Aurelia Arkotxa, Eñaut Etxamendi –besteak beste.

1987ko urtea baikorra izan zen Etxamendirentzat, euskal esparru literarioaren erdigunearikiko hurbiltzea lortu baitzuen. Euskal merkatu literarioan bere kaltetan egin ohi zuen ezaugarria –behe-nafarreraren erabilpena, hain zuzen²⁷² – gainditu eta *Gilentegiko Gilen* sariztatu zuen Irun Hiria Literatur Sariak. Hots, kontsakrazioaren lehen maila hunkitu zuen.²⁷³ Ohargarri da Kutxa bankuaren izen bereko Fundazioak duela saria esleitzen, beraz Eñaut Etxamendi botere ekonomikoa duen Euskal Herriko eremutik huillantzen dela. *Gilentegiko Gilen* eleberria liburu apaina, dotoreki aurkeztua da eta saltzen da Ipar zein Hego Euskal Herrian, zabalkunde nasaiaz. Harago, euskal

²⁶⁸ CASANOVA, Pascale (2002). «Consécration et accumulation de capital littéraire. La traduction comme échange inégal», *Actes de la recherche en sciences sociales* 144: 7-20.

²⁶⁹ *Ibid.* 13.

²⁷⁰ APALATEGI, Ur (2005). «Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa). Zenbait hipotesi», *Lapurdum* 10: 1-18.

²⁷¹ BOURDIEU, Pierre (1991). «Le champ littéraire», *Actes de la recherche en Sciences Sociales*: 18. http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/ars_03355322_1991_num_89_1_2986

²⁷² CASANOVA, Pascale (2002). «Consécration et accumulation de capital littéraire. La traduction comme échange inégal», *Actes de la recherche en sciences sociales* 144: 14.

²⁷³ Eñaut Etxamendi bi aldiz izan da euskal sistema literarioak sariztaturik. 1968an, Irunberriko Literatur-Saria irabazi zuen *Elurra zikindurik* eleberri laburrarekin. 1987an, Irungo Literatura-saria irabazi zuen *Gilentegiko Gilen* eleberriarekin. Karia horretan, Gipuzkoako Kutxak eman zion saria.

esparru literarioaren bitartekari ezagunek Etxamendiri eta haren narratibari aitortzen diote ezagutza eta zilegitasun literarioa. Hain zuzen ere, kontsakrazioa eskaintzen diote, orduan hogeitau urte pasa zuela idazten hasia zela, Ipar Euskal Herrietik Euskal Herri osora zabaltzeko asmo literarioarekin.

Boskote batek osatzen du Eñaut Etxamendik euskal esparru literarioaren erdigunera hurbiltzeko haizu duela erabakitzen duen batzorde kontsakratzailea: Luis Alberto Aranberri, José Antonio Loidi, Joxe Austin Arrieta eta Antonio Zavala euskal kazetari, idazle eta editoreak, hain justu.

Luis Alberto Aranberri «Amatiño» euskal kazetaritzan famatua da. 1987an Eñaut Etxamendiri saria ematean, Euskal Telebistako zuzendaria da. Lehenago, *Argiako* erreportari izana da, baita *Deia* egunkariko Kultura Zerbitzuko zuzendari. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean ardura-lekuetan izendatua izana da. Hau da, euskal kazetaritzako eta kulturgintzako pisu nabaria duen aktorea da: ezaguna da, kargu administratiboak izan ditu eta euskal kulturgintzan itzal handia dauka.

José Antonio Loidik leku berezia dauka euskal literaturaren historian. 1955ean *Hamabost egun Urgainen* euskal literaturako lehen polizia-eleberria argitaratu zuen. Farmazia-saltoki baten jabe, salmentatik eta bezeroen zerbitzuetik libre zituen orduetan idatzi omen zuen *Hamabost egun Urgainen*. Eleberri hori idatzi ondoren, José Antonio Loidik ez zuen beste obra literariorik egin.

Joxe Auxtin Arrieta euskal olerkari ezaguna da 1987an. Oskorri eta Ganbara musika-talde ospetsuek haren olerkiak kantatzen dituzte. Bi eleberri ekoitzi ditu: *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979, GAK) eta *Manu militari* (1987, Elkar). Narrazio bat ere idatzirik dauka: *Bidaia –Termitosti* (1978, Ustela).

Azkenik, Antonio Zavala jesuita eta euskaltzaina 1954az geroz euskal bertso zaharrak biltzen dihardu. *Auspoa* argitaletxea euskal ahozko-literatura ezaugarrazteko xedez sortu du. 1987 urterako, liburu andana plazaraturik badauzka engoitik. Herri-literaturak erakartzen du Antonio Zavala eta Euskal Herrian, bertso zaharretan zein herri xehearen memoriaren bilketan jakintsu handia da.

Zer erran baina, Eñaut Etxamendiri 1987an kontsakrazioa eskaintzen dioten aktore hauez? Nola izartu haien pisu kontsakratzailea 1980ko urteen bukaerako euskal esparru literarioaren baitan? Lauen artean, Luis Alberto Aranberri «Amatiño» da esparru literarioarekiko harremanean den botere ekonomikoaren eta politikoaren ordezkari bakarra. Erran bezala, zeharo ezaguna

eta, bestalde, euskal kulturgintzaren zein komunikazioaren sistemaren erdigunean kokatua dago.

Euskal literaturaren historian José Antonio Loidik kokapen berezia badu ere, haren gaitasun kongsakratzailea ez dator euskal esparru literarioaren muietik, ez bada, kokaleku sinbolikotik. Izan ere, lehen euskal eleberri poliziakoa idazteagatik famatua bada ere, haren hizkuntza literarioa ez doa arras moderotasunaren eskutik:

Hizkuntzaren problema honetan Loidiren esperientza da interesgarriena. Loidiren irtenbidea populismoa izan zen. Purismoak prosa osoa kutsatzen zuen garai hartan, haren euskera herrikoï eta bizia soluziorik progresistena zen, baina ez behin-betikoa, ez baitu gainditzen purismo-mordoilokeria dualismo faltsoa, eta idazkerari «euskal» kutsu bat eman nahirik, literatura prosan inolaz ere ezin onar daitezken esaera arrunt eta «jatorrez» betetzen baitu bere «Amabost egun Urgain'en», adibidez, laugarren edizioaren 99-gn. paian: «Orduko, Jaungoikoak bakarrik zekien ura nun zan! Ura arrapatu nai izatea eta arrautz gorringoari danbolina jotzea ... gauza bera.»²⁷⁴

Hots, Jose Antonio Loidik lehen polizia-eleberria egin izana goretsi eta, ekoizpen literarioaren alde ahulak agerrarazten dituzte euskal esparru literarioa eraikitzen laguntzen duten kritikariek.²⁷⁵

Joxe Austin Arrieta euskal idazle ezaguna da 1987an eta orduko kritikak laudatzen ditu euskal literaturari ekartzen dizkion berritasun formalak. *Abuztuaren 15-eko bazkalondo* eta *Manu Militari* eleberrietan, zantzu autobiografiakoak dituzten osagaiak lantzen ditu. Arrietaren kezketan Euskal Herriko errealitate politikoaren deskribapena agertzen da, Gerra Zibilaren edota Francoren diktadura, besteak beste.

Azkenik, Irun Hiria Literatura-sarien bitartez Eñaut Etxamendi kongsakratzen izan zen Antonio Zavalaren kasuan, bi ohar egin daitezke. Batetik,

²⁷⁴ SARASOLA, Ibon (1971). «Euskal literaturaren historia» Lur: Literaturaren Zubitegia: <http://zubitegia.armiarma.eus/?p=sar-92>

²⁷⁵ Ana TOLEDO LECETA honela dio Juan Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgainen* eleberriaz: «De esta manera, la primera novela policiaca vasca *Quince días en Urgain* (1955) de J. A. Loidi se configura de forma muy peculiar: es una novela policiaca sin asesinato ni asesino. La cosmovisión que sobre el vasco residente en un ámbito rural se ha ido generando desde las primeras manifestaciones narrativas excluye la posibilidad de un asesinato en este espacio: en un pueblo como Urgain no podía haber asesinos», in: TOLEDO LECETA, Ana (1993). «La conformación del discurso novelesco vasco: de lo modélico a lo individual», *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*: 175. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2749974>.

Antonio Zavala euskaltzain osoa da 1964az geroz. Bestalde, euskal ahozko literaturaren erreferentziatzeko editorea da, hogeita hiru urte lehenago, *Auspoa* argitaletxea sorturik, bertso idatzien eta herri-literaturaren plazaratzeko asmoz. Jabier Kaltzakortak honela zehazten du Antonio Zavalaren nortasuna:

Bera izan da, Antonio Zavalak maite zuen hitz bat esateko, bertsolarien «sekretario» nagusi. Berak egin du bere bizitzan bertsolari handienen sekretario-tza. Bestela esan, erretorika azaletan erori gabe, lotsarik gabe aitor dezakegu Antonio Zavala sekretario apal baten seme izanik, Herri Literatura oso baten sekretario nagusi egin dela, bere guraz eta borondatez. Bere gurariz eta etengabeko ekinez.²⁷⁶

Aletu ditugun Eñaut Etxamendiren eragile kontsakratzaileen euskal esparru literarioarekiko kokalekua aztertzen badugu, ikus daiteke ez direla erdigunekoak, Luis Alberto Aranberri izan ezik. Euskal idazle berri baten kontsakratzeko haien eragin-indarra neurtzen badugu beraz, ohar daiteke hainbat arrazoiengatik mendraturik dagoela.

Aurreko guztiagatik, badaiteke esatea Eñaut Etxamendiren euskal esparru literarioarako hurbilketa gaitasun kontsakratzaile ahuleko bitartekariak –kalitatekoak eta ospetsuak izanik ere– egin zutela. Ondorioz, 1987an, Eñaut Etxamendiren obra narratiboa euskal esparru literarioaren bihotzetik hurbiltzen da, baina ez du kausitzen bertan errotzea eta denboran irautea.

Ezin erran daiteke aho bateko kontsakrazioa huts egin izana dela Eñaut Etxamendiren euskal esparru literarioaren erdigunetik desagertzeko arrazoi bakarra. Haatik, Irun Hiria Literatura Saria jaso ondoren, Etxamendiren obraren argitalpen oso-osoan Ipar Euskal Herrian mugatuko da, *Maiatz* argitaletxea hedatzaile. Eta bestalde, Eñaut Etxamendik ez du eleberririk ez narrazio luze gehiagorik argitaratuko, ez bada *Gizon saildu eta maite-min* 2010 eta 2011 artean *Maiatz* aldizkariaren hiru aletan, zatika emana.

Bestalde, euskal sistema literarioa «merkatuaren legeetara makurtu»²⁷⁷ eta 1990eko urteen inguruan «izugarri eraldatu dela» oroitu behar da:

Espektakuluaren kultura debordiar honetan, erresonantzia kaxarik gabe, zailtasunez egingo du literatur lan batek aurrera, nahiz eta bere kalitate eta ekar-

²⁷⁶ KALTZAKORTA, Jabier (2010). «Antonio Zavalaren omenetan eta ohoretan» Bilbo: Euskaltzaindia. http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=3238:antonio-zavalaren-omenetan-eta-ohoretan&catid=121:berriak&Itemid=619&lang=eu.

²⁷⁷ OLAZIREGI, Mari Jose (2002). «Euskal kritikaren argiak eta itzalak», *Oihenart* 19: 32.

penak duda ezinezkoak izan. Beste hitzekin esateko, merkatuak agintzen duela esango dugu, gehienetan helburu ez oso literarioz mugitzen den merkatuak.²⁷⁸

Ikus dezagun orain, euskal kritika literarioak zer leku egin dion Eñaut Etxamendiren obrari eta horren iruzkinari. Nork, zer agerkaritan eta nola kritikatu duen ohartzea garrantzitsua izanen da, «kritika unibertsitarioa eta egunkari-kritika edo publikoa»²⁷⁹ bereiziz.²⁸⁰ Gure kasuan, Etxamendiren obra narratiboa aztertzen duten iruzkinak egunkari-kritika sailekoak dira. Horieta-rik zenbait izan badira ere, ezin ugari direnik erran,²⁸¹ mende-erdiko bere idazle-ibilbidea kontuan harturik. Bestalde, Etxamendiren bi nobela baizik ez dira modu kritikoan aztertuak izan: *Azken elurra* eta *Aurora*.

Etxamendiren obra literarioaz plazaraturiko lehen ohar kritiko publikoa baina, luma ospetsu batek egina da: Piarres Lafitterenak, hain zuen. 1975ean *Azken elurra* argitaratzean, honela hasten da liburuaren kontrazalean irakurgai den Lafitteren aipaldia:

Nork ez du Eñaut ETXAMENDI kantu ontzale eta kantari ospetsua ezagutzen? Haren emankizun eta dizkoak aski famatuak dira.²⁸²

Piarres Lafitte Ipar Euskal Herriko irakurleei zuzentzen zaiela pentsa daiteke, baina ez bakarrik, baitezpada. Izan ere, 1975ean Eñaut Etxamendi kantari ezaguna baita mugaz bi aldeetan. Lafitteren iruzkinak Etxamendiren datu biografikoak eskainiz, segitzen du eta honela dio:

Aldizkarietan idatzi du asko. Haren eskutik atera dira ere *Laminak*, *Urtzoak urrilan aldatu*²⁸³ eta abar...

²⁷⁸ *Ibid.*

²⁷⁹ LASAGABASTER, Jesus María (2002). «Literatur kritika eta teoriaren irakaskuntza unibertsitatean», *Oihenart* 19: 15-26.

²⁸⁰ Eñaut Etxamendiren obra literarioaren lehen kritika unibertsitarioa Joana Pocheluk egina da. Ikus: POCHELU, Joana (2005). «Étude de génétique des textes à partir des textes d'E. Etxamendi», *Lapurdum* 10: 331-336. Ikus ere MADINA, Itziar (2017). «Approche critique de l'oeuvre narrative (1964-2011) d'Eñaut Etxamendi. Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren (1964-2011) hurbilpen kritikoa». Bordeaux Moutaigne Unibertsitatea: Euskal Ikasketak. Doktorego tesia, Aurelia ARCOCHA-SCARCIA irakaslearen zuzendaritzapean.

²⁸¹ Euskal Literaturaren Zubitegiak biltzen dituen «Kritiken hemeroteka» atalean, bost iruzkin kritiko daude. Horietan bakarra da Etxamendiren *Aurora* jalgi zeneko aroarekin sinkronian. Lau idazlek ziurtatzen dituzte bost aipaldi kritikoak. Hots, batek bi aldiz idatzi izan du Etxamendiren narratibaren inguruan.

²⁸² Piarres Lafitteren iruzkina. Ikus: ETXAMENDI, Eñaut. *Azken elurra* (1975). Baiona: Egia: 113.

²⁸³ *Urtzoak urrilan aldatu* agertzen du Piarres Lafitteren testuak. Hutsa izan ote zen? Beste agerkari bat edo bestetan nahasketa sortu da *Urtzoak urrian aldatu* tituluarekin.

Bainan hemen agertzen den *Azken elurra* izeneko nobela da orai artinoko haren euskarazko lanik nagusia, bai gaiaren, bai mintzairaren, bai nasaiaren aldetik. (...)

Euskaraz den bezanbatean, ohartaraz dezagun, garraztarrek derabilaten hizkuntza berezia ez dela nehun ere hain artoski agertzen inprimaturik nola obra huntan: euskalariak badukete hor zer iker, fonetikari, aditzari eta joskerari buruz.

Horiek hola, nehor ez ahal da harrituko goresmenik bizenak badiozkagu Eñaut adixkideari bere nobela eder hunkigarriarentzat, bertzerik ere ondoko egunetan emanen daukulako itxaropenarekin.²⁸⁴

Piarres Lafitteren hau iruzkin publikoa dela erran badugu ere, zehaztu behar da *Azken elurra* liburuaren kontrazalean datorrela, hots, ez dela aldizkari edo komunikabide batekoa.

Piarres Lafittek *Azken elurra* Etxamendiren eleberria euskal literaturaren historiografian kokatzen du, azpimarratzen duenean «garraztarrek derabilaten hizkuntza berezia ez dela nehun ere hain artoski agertzen inprimaturik nola obra huntan». Ahozkotasanaren idatzirako jauzia markatzen du manera horretan eta modu baikorrean baloratzen.

Gaurko kritika literarioaren ikuspegitik, Lafitteren iruzkinaren doinuari neutraltasun eskasia lepora dakiok. Izan ere, deskriptiboagoa baino, balio emaleagoa baita. Bestalde, euskararen alorrari –«fonetikari, aditzari eta joskerari»– erreparatzen dio, literaturtasuna lehenetsi gabe, ia aipatu gabe. Halere, Etxamendik emaitza literario gehiago izanen duelako esperantza badauka, eduki ere.

1975eko Piarres Lafitteren aipaldi kritiko honek seinalatzen du euskal esparru literarioaren –eta akaso honen baitako Ipar Euskal Herriko alorraren– heldutasun eskasia. Besteak beste, «irakurlearen heldutasunean sinesten»²⁸⁵ ez duen iritzi-emailea baitugu Piarres Lafitte bezalako bat.

Handik hamar urtera, Eñaut Etxamendiren obraren argitaratzearekin batera sinkronikoak diren beste bi iruzkin kritiko irakur daitezke, 1985eko prentsan. Lehena Iñaki Camino unibertsitate-irakasle eta hizkuntzalariak eskaini zion:

²⁸⁴ Piarres Lafitteren iruzkina. Ikus: ETXAMENDI, Eñaut (1975). *Azken elurra*. Baiona: Egia: 113.

²⁸⁵ LASAGABASTER, Jesús María (2002). «Literatur kritika eta teoriaren irakaskuntza unibertsitatean», *Oihenart* 19: 25.

Hizkuntzaren aldetik, lexiko zailtasunak edirenen ditu hegoaldeko irakurleak, Etxamendiren hizkera iparraldekoa izateaz gain lokalista baita. Bada liburu honetan amentserako biderik, eta zinez diogu Etxamendi irakurtzea gozamenetik oso hurbil dagoen gauza dela.²⁸⁶

Argia astekarian plazaratua izateak irakurle askorengana heltzea erran nahi du. Hots, *Azken elurra* eleberriaren kasuan baino hedadura gehiagoko iruzkina zitekeen *Aurora* eleberriak jaso zuena. Azpimarra dezagun baina, Iñaki Camino hizkuntzalari eta Aezkoako euskaran berezitua dela. Eta ez dezagun ahantz Eñaut Etxamendiren *Aurora* eleberriak Errozate, Egurgi eta Irabia, hau da, Garaziren eta Aezkoaren arteko Irati aldeko muga kokalekutat dauzkala. Gainera, Etxamendiren lexikoak bai eta eleberriaren lokalismoek erakartzen dute. Bestela erranik, Iñaki Camino Eñaut Etxamendiren obra ulertzeko Euskal Herriko irakurle kualifikatuenetan dago.

Honek guztiak non kokatzen ote du Eñaut Etxamendiren obra literarioa euskal esparru literarioaren baitan?

Merkatuaren nagusitzearekin, irakurterraztasuna eta irakurle arruntaren atsegina irizpideen erdigunean jarriko du gero eta gehiago kritikak (gogora dezagun «arintasuna» dela irizpide baliatuenetakoa kritikan); ondorioz, kontsumo-literaturaren eta goi-literaturaren arteko bereizketak, esaterako, lausotzera jotzen du 1990eko hamarkadan.²⁸⁷

Etxamendiren obra narratiboa ez baita «irakurterraztasuna»ren irizpidean sailkatzen, ageri da euskal literaturaren merkatuak aterabide urriak eskaini liezazkiokela. Baina badaiteke erratea, esparru literarioak esleitu dion egonlekuari egokitu zaiola Eñaut Etxamendi. Orduan, Nafarroa Behereko periferian egonik, adierazgai dituen ekai literarioak bururaino eramateko askatasuna –jarrera autonomoa– hartu izan du Etxamendik.

3.2. PERSPEKTIBA ENDOGENOAREN MANTENTZEA

Eñaut Etxamendiren obra narratiboak perspektiba endogenoa mantentzen duela diogunean, euskal esparru literarioaren hara-honakoetan erdigunera heltzeko grinarik gabeko ibilbide literario beregaina eraikitzen duela

²⁸⁶ CAMINO, Iñaki (1985). «Aurora». *Argia* 12.

²⁸⁷ EGAÑA, Ibon (2014). *Izan gabe denaz. Hogeita hamar urte hedabideetako euskal literatur kritikan*. APALATEGI, Uf (Ed.). Donostia: Utrisque Vasconiae: (Kritika Literarioa Saila): 367.

adierazi nahi dugu. Etxamendiren traiektoria literarioaren bere-berezkotasunak irauten du 1964an hasi eta bere karrera osoan. Izan ere, 1987an euskal esparru literarioaren muintetik hurbildu zenean ere, *Gilentegiko Gilen* euskal nekazari marginalaren gainbehera tragikoaren kontakizunarekin egin zuen, behe-nafarreraren erabilpen literarioa ukatu gabe, merkatuaren eta beste arau zenbaiten irizpideetatik urrun, bere gain.

Hots, orain dagokigu aztertzea ea zer osagai literariok baldintzatzen ote duen irmotasun hori. Gure ustez, Eñaut Etxamendiren lurraldearekiko eta jatorri erruralarekiko kontzientzia zorrotzean du oinarrietatik bata. Horrek harilkatzen du ekai literarioaren memoriaren eraikuntza-printzipioa eta, ondorioz, honi loturik datozen kontakizunak eta ahots narratiboaren berezitasuna ere. Azken hau, dela hizkuntza, dela une historiko edo etnologia mailako osagai ultralokaletan gauzatzen da.

Une honetan, seinala daiteke Eñaut Etxamendik bi modutan eusten diola ikuspegi endogenoari. Euskal nekazari-kultura folklorikoan erroak finkatuz, batetik. Eta narrazio literario bere-berezkoa landuz, bestetik. Eñaut Etxamendiren narratibaren perspektiba endogenoaz jabetzeko asmoz, bi obra hautatu ditugu, adibidetzat: *Urtzuak urrian aldatu* eta *Azken elurra*.

Garrantzi handia dute «baldintza antropogeografikoek»²⁸⁸, hots, jendeek haien ingurumen orografikoa nola bizi eta sumatzen duten. Horren baitan daude hizkuntza, taldearen nortasuna –Etxamendiren kasuan, nekazariak– eta lurraldetasuna.²⁸⁹ Hizkuntzak lurraldea, sortetxea, sorterrria eta jatorria oso modu zuzenean markatzen ditu. Hizkuntzak bizilekua eta izatea adierazten ditu: norberaren eta bestearen izatea. Hau da, nekazaritzako eremu geografikoa hitzaren eremu antropologikoan sartzen da. Bertan batzen dira izaera eta adierazpena eta ondorioz, laborariek mundua zedarritzen duten ezagutzak sortzen dituzte, modu enpirikoan. Horrek erran nahi luke Etxamendiren traiektoria literarioaren bere-berezkotasuna Bakhtine-k definitu zuen denbora folklorikoan oinarritzen dela:

Toutes choses: soleil, lune, terre, mer, etc., sont données à l'homme non comme objets de contemplation individuelle («poétique») ou de méditation dés-

²⁸⁸ FRANKOWSKI, Eugenius (1930). «Cuestiones generales acerca del arte popular vasco», in *V Congreso de Estudios Vascos: recopilación de trabajos de dicho Congreso, celebrado en Vergara del 31 de agosto al 8 de septiembre de 1930 acerca de temas de arte popular vasco*. Donostia: Eusko Ikaskuntza: 3-17. <http://www.euskomedia.org/analitica/1574>.

²⁸⁹ HUBSCHER, Ronald (1999). «Historiens, géographes et paysans», *Ruralia. Sciences sociales et mondes ruraux contemporains* 4: 7.

intéressée, mais uniquement dans le processus collectif du labeur et du combat avec les forces naturelles (...) Voilà pourquoi tous les les objets sont intégrés comme participants vivants dans le mouvement de la vie. Ils prennent part au sujet et ne sont pas juxtaposés à l'action, comme s'ils lui servaient de fond.²⁹⁰

Munduaren ikuspegi hori dela eta, Eñaut Etxamendi ahots narratibo berezian murgiltzen da. Alegoriaren bitartez, poetikotasunaren bitartez, haren narrazioko «elementu guztiak osagai bizien maneran batzen dira biziaren mugimendurekin batean».

Demagun, *Urtzoak aldatu urrian* prosazko olerki luzean. Forma alegorikoan, aktanterik ez den olerkian narratzailea urriko hilabeteari zuzentzen zaio. Narratzaileak urriko hilabetearen gorazarrea eta laudorioa egiten du sei orrialdeko olerki librean:

Urria, iduri dun heure onjo-lilia: oixe lili urdin pollita, urtzo-kolorea, iratze-pean idekitzen ditin bere ezpainak legun-legunik nola zerutik izar urdin bat... ta gero musu emaitetan legun-legunik uzten pozoña.

Bainan ez ! Horiek oro hirekin atze direnek asmatuak. Enetako, guretako, Garazin, Urria hi hiz gure andereño maitea. (...) ²⁹¹

Narrazioak urriko hilabetearen erabilera literarioa erlijio-gaiaren tratamendurekin saretzen du eta urtaroaren semantizazioaren karga poetikoaz gain, mistizismoa ukitzen duela erran daiteke:

Andere urria! Oi heure irri urdinen elea. Eni hitzemaiten baitadate nihaukin laster parekatzea, nihaur nihaukin, gogo gogoarekin, iraupena iraupenarekin, nortasuna nortasunarekin. Loraileko mertxikaren lore arinak hitzemaiten udako fruitu gozoa. Urriako ema-elek aldiz ondotik gogo-borroka sakona: Aingeruarekilako gau-borroka haundia. Urria gure Zeruko atea, Urria ene «Betel»-a.²⁹²

Bethel Biblian, (Genesisia 12. 8) agertzen den toponimo bat eta era berean gune sakratua da. Bertan, Abrahamek aldarea eraikiarazi omen zuen eta, Jainkoaren ohoretan. Jakobek bere aldetik, (Genesisia 28:10-19) amets egin eta Aingeruek hartzen zuten zerurako eskailera ikusi bide zuen. Guregandik hurbilago, Biarnon,

²⁹⁰ BAKHTINE, Michail (2004). *Esthétique et théorie du roman*. Paris: Gallimard: 353-354.

²⁹¹ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Urtzoak urrian aldatu», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 25.

²⁹² ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Urtzoak urrian aldatu», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 26-27.

Juana Albretekoaren Orteseko jauregia izandakoan, ikusgai da Osse-en-Aspe herriko protestanteen tenpluko harri zizelkatu baten kopia. Horrek honela dio:

Bethel
 Temple des Protes
 tans.

Jatorrizko atalarria Osse-en-Aspe²⁹³ herrian da, familia protestante batek gordeka atxikirik gaur arte, XVII. mendean protestanteen tenpluak suntsitu zituztelako.

Urriko sasoiarekin batera, sakratua den euskal zerua sartzen da sistematizazio alegorikoan. Horrela, *Urtzoak aldatu urrian* olerki luzean, diruaren truke, uso-ihizirako zerua saltzen duen Euskal Herri profanoa gordinki laidoztatzen du idazleak. Are gehiago, alegoriak profeziaren doinua bereganatzen du:

Itzuliren niz Eskual-Herrirat berriz jitian urtzoak
 Larrazken batez haize-heguak gorritzian iratziak.²⁹⁴

Nor da itzuli beharra? Noren hitzak ote dira goiko horiek? Pentsa daiteke idazlearenak datezkeela. Orduan, hitzoren irakurketa biografikoari ekin dakioke. Pentsa daiteke, halaber, izadiak gaindiko norbaiten hitzak datezkeela: mesias itxurako norbaitenak. Orduan, profeziaren doinu borobilean gundeke.

Badaiteke baieztatzea bigarren irakurketa hau egokiena dela, jakinez *Urtzoak aldatu urrian* olerkia honela amaitzen dela:

Ondoko urtean berriz onjoak atera ziren oihanetan, berriz ilarreak loratu, berriz iratzeak gorritu ta onjo-lili urdinak sortu, berriz ezkurak zohitu, berriz Hegoa mendier behera ikuslari etorri, berriz larrazkendu ta berriz Urria piztu, berriz sekulan baino gehiago atze urrundik etorri bai ta mendi hegietarat ateri zitzurri potza-gañetan arranoak iduri...

Bainan etzen jin, eta geroztik ezta nehoiz jin berriz URTZORIK.²⁹⁵

²⁹³ BETHEL. *Osse en Aspe*. https://fr.wikipedia.org/wiki/Osse-en-Aspe#/media/File:Bethel_temple_d%27Osse-en-Aspe.JPG.

²⁹⁴ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Urtzoak urrian aldatu», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 23.

²⁹⁵ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Urtzoak urrian aldatu», in *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 31.

Oreka hautsirik, mundu ohiturazalea deseginik, urriko hilabetearen eta mendiko espazio sakratuaren urratzearen sakrilegioaren ondotik, elementuek azaletik berdintsu badiraute ere, oinarrian arraildurik daude. Orogen gainetik, uso mezularien sarraskia izan da traizioaren goren. Horrek seinatzen duena zera da: euskal herriak eta euskal kulturak itxuraz aitzina segitzen badute ere, funtsean eta mamian husturik daudela. Sententzia ezberrik gabekoa da: ez dago gibelera egiterik ez eta aldatzerik ere. Bukatuak bukatu. Euskal arimak azken hatsa eman du. Eta egia horren ekarlea da *Urtzoak urrian aldatu* olerkia.

Honela, Etxamendiren obra narratiboaren endogenotasunak iruzkintze etnokritikoaren²⁹⁶ lau aldagairi ihardesten die. Batetik, «testutik kanpoko» agerpen etnografikoa lantzen du. Bigarrenik, «testuinguruaren etnologia» sarezen du. Bestalde, «sinboloaren etnologia» lekuan jartzen du eta, azkenik, «auto-etnologia» ariketan sarrarazten du irakurlea.

Urtzoak urrian aldatu olerkiaren kasuan, larrazkena eta usoen urriko iragatea dira testutik kanpoko agerpen etnografikoak. Testuinguruaren etnologia Garaziko jendeak harreman ia sinbiotikoan jartzen ditu «mezulari» diren usoekiko. Segitzeko, testuaren etnokritikak ulertarazten du aitaren eta Bordeletik datozen gizonen usoak ehiztatzeko dituzten manerak erradikalki kontra-jarriak direla. Zibilizazio-talka dago bien artean.

Narrazioak errealismo-efektu handia lortzen du. Hain handi, ezen errealismotik kultura-efektura jauzi egiten laguntzen baitu. Eta irakurleak galdegin dezake: «zertan ote daude gaur, behiala usoek urtero bisitatzen zuten Euskal Herria eta euskal kultura?».

Aldi berean, endogenotasunari esker, Eñaut Etxamendik ultralokalaren erabilpen literarioari ekiten dio, aro historikoa hurbiletik segituz eta hartan bermatuz. Horretan ere, azterketa etnokritikoak Etxamendiren narratiba xehetzen laguntzen du, obra literarioak duen kultura-polifonia –elkarrizketa soziala edo dialogia– eta bereziki, agerkeria azpiratuak edota kanonetik kanpokoak, herrikoiak edo folklorikoak agerian emanez. Hurrengo adibide honetan, testutik at dagoen agerpen etnografikoa 1960ko euskal jendarte nekazarian kodifikazio sozialez beteriko igandeko meza ondokoa da. Testuinguruaren etnologia berriz, ahots askok zeharkatzen dute:

K... ostatuan bospasei jaun aperitifa edaten ari ziren kanpoan, meza-nausitik ordu berean aterarik. (...)

²⁹⁶ PRIVAT, Jean-Marie, SCARPA, Marie (2010). *Horizons ethnocritiques*. Nancy: Presses Universitaires de Nancy, (Collection Ethnocritiques): 272.

–Errak eta, *notre route eztea réussite*-a polita. (...)

–À propos, où en sont les élucubrations d'Enbata?

–Des imbéciles, mon vieux. (...) ²⁹⁷

Testuak seinalatzen dituen eta tabernan dauden «bospasei jaun» euskaldunak erdalduntzen ari dira. Polifoniak euskara eta erdara nahasten duen ahots bat eta erdara jaso duen beste bi ekartzen dituzenez, testuinguruaren etnologiaren interpretazio kritikoak erakusten du gizon haietatik batzuk maila sozio-politikoan gorago daudela besteak baino. Sinboloaren etnologian, pentsa daiteke zenbait arduradun politiko eta herriko haien eskumakilak direla pertsonaiak. «*Enbata*»-ren aipamenaren trataera literarioa adierazgarria da, ezen narrazioaren polifoniak sinboloaren etnologian sartzen duelako.

Eñaut Etxamendiren narratibak gaurkotasuna, engaiamendu politikoa eta errealitate soziokulturala nahasten ditu. Horrek kontestualizazioa eskatzen du. Demagun, Ipar Euskal Herriko industrializazio plangintzarik eza. Hau errealitate historikoa izateaz gain, frantses estatuaren aurka Ipar Euskal Herriko intelektual abertzaleek egin zuten aldarrikapen sozioekonomikoa izan zen. Bere aldetik, frantses estatuak turismoaren ekonomiari ireki zizkion atea eta 1965 eta 1975 artean, V. planoan buru belarri sartu zen. Hain justu, ostalaritza-gaitasunaren presioak ondorio zuzenak izan zituen Ipar Euskal Herri osoan, bereziki herri txikietan. Eñaut Etxamendi horretaz baliatzen da errekurtsio literario gisa *Azken elurra* eleberrian:

Herriko plazan gelditu zen oto D.Sa²⁹⁸ beltz bat. Jaun buru kasoildu bat soineko ñabarretan atera. Ostatuan galdegin zuen Herriko-etxia nun zen. Auzapeza etzela herriko-etxian erran zakoten, nahi bazuen apeza ikusten ahalko zuela, bere baratzean ikusia zutelakotz ofizioaren irakurtzen. (...)

–*Bonjour, Monsieur le curé.*

–*Bonjour, Monsieur.*

²⁹⁷ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Azken elurra», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 97-98.

²⁹⁸ DS hizkiek Citroën autoegileak 1955 eta 1975 urteen artean ekoiztutako berebela izendatzen dute. Autogintzaren orduko teknologiaren punta-puntan izan zen, berritasun asko ekarri, besteak beste direktzio lagundua. Roland Barthes-ek «La Déesse» deitu zuen eta honela erran: «Il se peut que la Déesse marque un changement dans la mythologie automobile. (...) partie du ciel de Métropolis, la Déesse est en un quart-d'heure médiatisée, accomplissant dans cet exorcisme, le mouvement même de la promotion petite-bourgeoise», in: BARTHES, Roland (1970). *Mythologies*. Paris: Points: 152.

–*J'ai l'honneur de me présenter à vous: André Fleurier, ingénieur des établissements P. et Cie. (...) Figurez-vous que je suis en quête de terrain pour ma compagnie.*²⁹⁹

Azpmarragarria da testuinguru etnografikoak erakusten duela alkatea eta abadea Ipar Euskal Herriko 1960ko urteetako herriaren ordezkaritza bikoitza direla. Kasu honetan apaiza agertzen da, erdaraz ongi moldatzen, kanpotik etorritako herriko lurrak erosteko gogoia lukeen ondasun higiezinaren promotorearekin hitz egiteko prest.

Bestalde, zuzenezko kontaerak Etxamendiren narrazioaren alderdi endogenoa indartzen du, *Сказ* edo kontagintza herrikoia eremuan lerrotatuz. Adibidetzat har dezagun *Azken elurra* (1974) eleberrian atzematen den laborari baten eta etxera behia erostera etorri zaion tratulariaren arteko solasa:

Gizona gora mintzo zen eta bere gogoz, uste zuen norbait zela, bereziki laborarien aldean. (...)

–Laboraria haundia da gaurko egunian. *Mais oui !* Pleñi zizte, beti intzirika ari zizte, *mais vous êtes bien, hé?* Ezpeituzie errain. Kusten duxu? Zonbait ari txu hau eta hua, gauzak gaizki datzila ta nik dakita zer? *Mais c'est faux, hé!* Biziki untsa bizi gitxu Frantzian.

–Baa, badakizia zer duun eskas Eskual-Herrian, Frantzia urrun baita, lana gaztendako. (...)

Haragi saltzalea bere zozo-guziaren gatik noizbait ohartu zen Indaldeko Bordako nausia Enbatiarra zela eta solasa alderatu zuen.³⁰⁰

Pasarte honetan, Etxamendiren narrazioak polifoniaren, dialogismoaren, eta zuzeneko kontaeraren trebeziak erakusten ditu. Narrazio polifonikoak euskal nekazarien mundua erderak hunkia erakusten du. Haatik, frantsesez ari dena ez da laboraria, baizik eta tratularia. Dialogismoaren ikuspegitik, gandu-tratularia harroputzaren gisan azaltzen da. Baina areago, narrazioak base-ritarrak modu apaletsian atxikitzen dituen egituraketa sozialaren injustizia azaleratzen du. Etxamendiren narratiba honetan, *makiñunaren* figura antonomasikoak gatzatzen du nekazariak jasan ohi duen tratugileen bortizkeria simbolikoa. Idazlearen ikuspuntu sozioideologikoa tratulariaren inguruko trufaren bitartez ateratzen da, pasartearen bukaeran. Hots, narrazioaren erre-gistroa herrikoia da eta aldi berean politizaturik dago:

²⁹⁹ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Azken elurra», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 92-93.

³⁰⁰ ETXAMENDI, Eñaut (2009). «Azken elurra», in *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 140.

Arts populaires, spectacle, folklore: présence de la voix et mise en avant de la pure verbalité. Mais aussi changement de focalisation, l'attention du lecteur se déplaçant dans le *skaz* des propriétés classiques de la narration (intrigue, thématique, construction) vers ses propriétés discursives et un jeu permanent avec la langue.³⁰¹

Сказ kontagintzaren bidez alabaina, idazlearen ahotsak lekukotasun bizia egiten baitu. Hots, bizia literaturaren artera ekartzen du, bien arteko berdintasun harremanean.³⁰² Etxamendiren narratiban, gertaera literarioa elkarreragin konplexuan dago gertaera sozialarekin. Bata bestearen miraila, oihartzuna eta agerlekua izan daitezke, elkarren osagarri edo laguntzaile. Erran dezakegu gisa horretan, endogenotasuna Etxamendiren obra narratiboaren dominantea dela.

3.3. KAPITAL SINBOLIKOAREN METAKETA

Esparru literarioaren antolaketa ikertzeko irizpide soziologikoak ditugu kontuan hartuko kapitulu honetan ere. Aro literario historiko eta eremu nazional bakoitzak bere berezitasunak badituela kontuan harturik, euskal esparru literarioaren bazter batean kokatua den Eñaut Etxamendiren kapital sinbolikoa metatzen duela erran eta gero, hori zein den ikertzen saiatuko gara orain.

Hots, esparru literario nazional orokorraren teorizazioetan oinarriturik, euskal esparru literarioa nazionalizat joko dugu. Eta nazionalaren eta periferikoaren arteko joan-etorriez ariko gara, Eñaut Etxamendiren kapital sinbolikoaren izaeraz jabetzeko asmoarekin.

Esparru literarioaren hierarkizazioak eragiten du, dudarik gabe, euskal esparru literarioan ere. Pierre Bourdieu bi hierarkiagune zehazten eta «kanpoko» edo «barneko» izendatzen ditu.³⁰³ «Kanpoko hierarkizazio» mekanismoarekiko neurtzen badugu Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren harrera, ikertuko dugu lehenik, euskal literaturaren merkatuaren aldetik izan duen harrera edo «arrakasta». Bestalde, idazleari aitorturiko nortasun eta ospe sozialak, markagailu izanen dira.

³⁰¹ GÉRY, Catherine. *Autour du Skaz: Nikolaj S. Leskov et ses héritiers*. GÉRY Catherine (Ed.) (2008). Paris: Institut d'Études Slaves:15.

³⁰² NOVIKOV, Vladimir (1994). «Les lois naturelles de la littérature», *Littérature* 95: 65-74. www.persee.fr/issue/litt_0047-4800_1994_num_95_3.

³⁰³ BOURDIEU, Pierre (1991). «Le champ littéraire», *Actes de la recherche en Sciences Sociales*: 3-46. http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/arss_03355322_1991_num_89_1_2986.

Engoitik zehaztu izan dugu Etxamendiren narratibaren zabalkundearen nolakotasuna: hiru eleberrri liburukitan badauzka ere,³⁰⁴ haren obraren gehien-goia *Maiatz* aldizkari literarioaren bitartez hedatua izan da.

Gure Herria astekarian 1973 eta 1974 urteen arteko hainbat emanalditan agertu ondoren, Egia argitaletxeak Eñaut Etxamendiren lehen eleberrria –*Azken elurra*– 1975ean plazaratu zuen. Ipar Euskal Herriko esparru literarioan itzal handikoa zen Piarres Lafittek promozio-kontrazala idatzi zion liburuari. Haatik, ezin erran dezakegu zenbat ale saldu ziren.³⁰⁵ Urte horietan Eñaut Etxamendi ezaguna bazen ere,³⁰⁶ ospea ez zetorkion literaturaren eremutik ez bada kantugintza herrikoia eta militantzia politikoaren eremutik. Zentzu horretan, Etxamendiren nortasun eta ospe sozialak inkonformismoak markaturik daude, bereziki haren karrera literarioaren hasierako urteetan.

1981ean Frantziako hauteskundeetan François Mitterrand sozialistak lehendakaritza irabaztean piztu zen uholde «aldatzaile» eta «esperantzaz beteak»³⁰⁷ *Maiatz* aldizkaria testuinguru berezian sortzen lagundu zuen. Ipar Euskal Herriko idazle eta intelektual talde baten inguruan –Piarres Xarriton, Lucien Etxezaharreta, Itxaro Borda, Aurelia Arkotxa– aldizkari literarioa hasi zen, ildo finkoan: Ipar zein Hego Euskal Herriko nahiz kanpoko –frankofoniako eta beste– idazleei leku egitea:

Aldizkari berri hau Hegoaldeko Trantsizio garaieko *Pott*, *Oh Euzkadi* eta enparauen ildo beretik doa puntu askotan: literaturan espezializatzeko xedea, literatur erreferentzia unibertsalak (nazioartekoak) gurera ekartzeko asmoa, etb. Halere, *Maiatz*ekoek, orohar, Iparraldeko hizkera literarioari eutsiko diote (nahiz egia den Hegoaldeko idazleek ere aldizkariaren orrialdeak beti zabalik izango dituztela baita euskara batuan idatzi gogo dutenek ere). Laburbiltzeko, *Maiatz* hurbilxeago legoke belaualdi iraultza batetik sistema aldatzeko iraultzatik baino.³⁰⁸

³⁰⁴ Gaur egun, *Gilentegiko Gilen* hiru eleberrietatik salgai dagoen bakarra da. (Elkar) *Azken elurra* eta *Aurora* agorturik daude.

³⁰⁵ Honen inguruko informazio zehatzak bilatzeko zailtasunak daude: orduko lekukoak desagertu dira eta 1980ko urteen aurreko Ipar Euskal Herriko sistema literarioaren alderdi ekonomikoak gutxi dokumentatu dira.

³⁰⁶ «Nork ez du Eñaut ETXAMENDI kantu ontzale eta kantari ospetsua ezagutzen? Haren emankizun eta diskoak aski famatuak dira» dio bere iruzkinean, Piarres Lafittek. Ikus: ETXAMENDI, Eñaut (1975). *Azken elurra*. Baiona: Egia: 113.

³⁰⁷ Luzien Etxezaharreta eta Itxaro Bordak bultzaturik, 1982an abiatu zen *Maiatz* aldizkariak bide oparoa izan du eta ibiltzen segitzen du.

³⁰⁸ APALATEGI, Ur (2005). «Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa). Zenbait hipotesi», *Lapurdum* 10: 6.

Hain zuzen, Eñaut Etxamendi *Maiatz* aldizkariko parte-hartzaile izan zen, lehen aletik beretik. Bertan, *Dartemalda* ipuin hunkigarria agertu zuen. Ordutik, ezin fideltasun handiagoz, hiru hamarkadatan idatzi dituen ekoizpen literario guztiak *Maiatz* aldizkarian plazaratu izan ditu. Salbuespen bakarra 1983an *Herria* astekarian³⁰⁹ argitaratu zuen *Lipu-belarra: negu-lorea* ipuin laburra eta *Gilentegiko Gilen* eleberria izan da.

Pentsa daiteke literatura-aldizkaria bere obra narratibo osoaren argitaratzaile eskusibotzat joz, Eñaut Etxamendik ez duela «arrakasta» komertziala tipifikatua bilatzen. *Gilentegiko Gilen* eleberriarekin izandako esperientziaren ondotik, Ipar Euskal Herriko esparru literarioa erretiratzen da idazlea. Eleberri luzeari ez, baina ipuinari eta narrazioari ematen dio lehentasuna. Horretarako, *Maiatz* argitaletxeak azpiegitura egokia eskaintzen dio.

Ohargarri da berriz ere, Etxamendik kokagune berezia aukeratzen duela: *Maiatz*ek ekarri Ipar Euskal Herriko esparru literarioaren «belaunaldi iraultza»ren kide bilakatzen da. Hau da, ia berrogeita hamar urte dituela, hogei urteko idazle-ibilibidea duela, belaunaldi berria osatzen duten gazteekin abiatzen da. Ipar Euskal Herriko sistema literarioa sendotu duten eragile gotorrenak ezagutu ditu: Piarres Lafitte, Piarres Larzabal, Piarres Xarriton eta halere, Donapaleuko Jean Errecart lizeoan haren ikasle izan ziren gazteekin menturatzeko.³¹⁰ Goraxeago aipatu izan dugun Etxamendiren ukaziorako gaitasunaren aurrean gaudela, erran dezakegu.

Honen guztiaren ondorioz, Etxamendiren obrari euskal esparru literarioaren «barne hierarkizazioa»k nolako aitortza egiten dion aztertzeak garrantzia berezia bereganatzen du. Izan ere, «zer kontsakrazio espezifiko» lortu ote du Eñaut Etxamendik kanpoko hierarkizazioaren aurrean hain manera beregainen lerrotatuz?

Esparru literarioaren barne-hierarkizazioa sareen arteko antolaketa dinamikoan gauzatzen dela oroitarazten du Gisèle Sapiro.³¹¹ Honela, esparru literarioa azpiesparruen harremanen indarraren arabera ehuntzen da. Hainbat azpiesparru dira: elite kulturala, elite organikoa, azpielitea, lehen erdi-periferia, bigarren erdi-periferia, lekuko kultura eta periferia. Azpiesparruen artean hartu-emanik ez delarik, segmentazioa dagoela deritzo. Aldiz, azpiesparruen arteko harremana desorekatua delarik, hierarkiaz mintzatzen da. Esparru literarioaren hierarkizazioak hiru atal

³⁰⁹ 1983ko *Herria* astekariko 1694. zenbakian.

³¹⁰ Lucien Etxezaharreta eta Itxaro Borda Eñaut Etxamendiren ikasle izan ziren Donapaleuko Jean Errecart lizeoan.

³¹¹ SAPIRO, Gisèle (2008). «Mesure du littéraire», *Histoire & mesure*, XXIII, 35-68. <http://histoiresmesure.revues.org/3553>.

sozioekonomiko onartzen ditu³¹² kapitalizazioa ekonomiko, soziala edo kulturala den arabera. Lehenetik hirugarrenera, hierarkizazio-gradua apalduz doa.

Bestela erranik, esparru literarioan kapital ekonomikoak manatzen duenean, horrek du hierarkizaziorik azkarrena ekartzen. Hain zuzen, merkatuaren legeak agintzen baitu eta zenbat saltzen den, horretan da arrakastaren seinalea. Esparru literarioa kapital ekonomikoaren arabera antolatzen denean, generoka egiten da segmentazioa. Genero zenbait oso baloratuak izanen dira eta beste batzuk, gutxiago edo batere.³¹³ Bestalde, kapital soziala nagusi bada, segmentazioa nasaiki ematen da, aktoreen zein generoen arteko hierarkizazio ttipiarekin. Ospe soziala idazlearen kapitalizazio sozialaren arabera gauzatuko da. Horren emaile izaten ohi da elkarte profesionala, landuriko generoa edota argitaletxea. Azkenik, kapital kulturala nagusi den egoeretan, bai hierarkizazioa eta bai segmentazioa izan, badira. Hierarkia sortzen da zilegiaren eta herrikoiaeren arteko oposiziotik. Zilegitasunaren eremuan, barneko hierarkizazioa idazle bakoitzaren ospe-kapitalaren arabera finkatzen da.

Euskal Herriko esparru literarioan, Ipar Euskal Herriko literatura «periferia»³¹⁴ edo «azpi-sistema»³¹⁵ tzat joz, erdigunearekiko hierarkiak manaturiko harremanean ikusten dugu. Saretze-sistema horretan, Etxamendiren posizionamendua segmentazioaren dialektikan ikusten dugu.³¹⁶ Segmentazioak hots, erdigunearekiko harreman-ezak gidaturik, Eñaut Etxamendi kapital sozialaren eta kapital kulturalaren eremuetan ari den euskal idazleetan finkatzen ahal dugu. Horregatik diogu Etxamendik kapitalizazio sinbolikoa irabazten duela. Haatik, idazlearen aitorten sinbolikoa ez da berez lortzen den ezer.³¹⁷ Hola, kapital sinboliko «espezifikoaren» jabe dira politizazio militantearen alorretik kanpo, esparru politikoaren kideztan dauden idazleak. Hots, kapital sinbolikoa eta zilegitasuna batera doazela,³¹⁸ ezberdinki epaituak izanen dira erdigune politikotik kanpo ala barne diren esparru literarioko aktoreak.

³¹² *Ibid.* 57.

³¹³ EGAÑA, Ibon (2014). *Izan gabe denaz. Hogeita hamar urte hedabideetako euskal literatur kritikan*. APALATEGI, Ur (Ed.). Donostia: Utrisque Vasconiae, (Kritika Literarioa Saila): 400.

³¹⁴ SAPIRO, Gisèle. *Mesure du littéraire* [Interneten]. *Histoire & mesure*, XXIII, 2008: 35-68. Hemen ikusgai: <<http://histoiremesure.revues.org/3553>>

³¹⁵ APALATEGI, Ur. Iparaldeko azken aldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa). Zenbait hipotesi. *Lapurdum* 10, 2005: 1-18.

³¹⁶ SAPIRO, Gisèle (2008). «Mesure du littéraire», *Histoire & mesure* XXIII, 57. <http://histoiremesure.revues.org/3553>.

³¹⁷ *Ibid.* 56.

³¹⁸ CASANOVA, Pascale (2002). «Consécration et accumulation de capital littéraire. La traduction comme échange inégal», *Actes de la recherche en sciences sociales* 144: 7-20.

Ezen epaiketa moduko bat gertatzen baita, kontsakraziora heltzeko. Pierre Bourdieuk egin zuen eskematizazioa³¹⁹ goitik behera eta ezkerretik eskuinera doan ardatz baten gisan uler daiteke. Zenbat eta gorago eta eskuinerago, instituzio literario akademikoak eta botere ekonomikoak sariztatuago izanen da idazlea. Alderantziz, ezkerretik eta behe-retik hurbilago, eta kanonizaziotik edo botere ekonomikotik urrunago.

Eñaut Etxamendiren kapitalizazio sinbolikoa Bourdieuren ardatzean antolatuko bagenu, ezker aldean eman genezakeen, gaineko partean. Hau da, «kontsakrazio karismatikoa»ren alorrean, ez bairik gabe.

Eñaut Etxamendiren kontsakrazio karismatikoa idazleak mende-erdia pasa duen ibilbide literarioan erakutsiriko irmotasunaren emaitza dela erran daiteke. 2009an, *Maiatz* argitaletxeak Etxamendiren Idazlanen lehen bilduma³²⁰ ateratzearekin, haren kontsakrazioa gorpuzten hasi zen. Urte hartako Sarako Idazleen Biltzarrerako *Maiatz*ek propio plazaratua, Lucien Etxezaharreta editorearen bultza sumatzen da hautu horren gibelean: 2009ko Durangoko Azokarako prest dago Eñaut Etxamendiren Idazlanen bigarren bilduma.³²¹ Hau da, Eñaut Etxamendik hirurogeita hamalau urte dituela, ordu da euskal esparru literarioak ezagut diezaion karrera literario betea. Hots, ordu da aitor diezaion idazlearen zilegitasuna. *Maiatz* argitaletxeak euskal esparru osora hedatu nahi du, dudarik gabe, Etxamendiren kontsakrazioa. Hurrengo urtean, 2010ean, Sarako Idazleen Biltzarrak Eñaut Etxamendi omendu zuen. Urtebetetze borobila: idazleak hirurogeita hamabost urte eta haren lehen lan literarioak berrogeita bost dituzte.³²²

³¹⁹ BOURDIEU, Pierre (1991). «Le champ littéraire», *Actes de la recherche en Sciences Sociales* 34. http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/arss_03355322_1991_num_89_1_2986

³²⁰ ETXAMENDI, Eñaut (2009). *Idazlanen Bilduma I*. Baiona: *Maiatz*: 216.

³²¹ ETXAMENDI, Eñaut (2009). *Idazlanen Bilduma II*. Baiona: *Maiatz*: 224.

³²² *Laminak* eleberria 1964tik 1965era plazaratu zen *Herria* astekarian, hamahiru atale-tan. (1964ko urriaren 8tik 1965eko urtarrilaren 21era).



KONKLUSIO OROKORRAK

Bigarren Mundu Gerratik hona euskal literaturan egon diren beste idazle garaikideekin alderatuz, Eñaut Etxamendik geografia, une historiko, posizionamendu etiko nahiz estetiko eta ibilbide literario bereziak izan dituena da, dudarik gabe. Orokorrean, euskal sistema literarioak haren idazletza aitortu badu ere, gorabehera frankoko onarpena eman izan dio. Erran daiteke Etxamendiren obra narratiboa euskal sistema literarioarekiko marginalitate erlatiboan dagoela, egon. 2009. eta 2011. urteen artean, *Maiatz* argialetxe eta aldizkari literarioak haren obra narratibo osoa plazaratu zuten. Horrek Eñaut Etxamendiren obraren kotsakrazio karismatikoaren hasiera markatu zuten.

Horiek horrela, zer irakasten ote du Etxamendiren obra narratiboaren osaketak eta horren harrerak? Laborari seme gisa idazten duen, goi mailako ikasketak burutu dituen sortzailea da Eñaut Etxamendi. Etxamendiren narratibaren ekai nagusia darabilen baserriaren irudi literarioa da. Ezterenzubiko (Nafarroa Beherea) euskalkian, ia mintzatzen den bezala, idazten du Eñaut Etxamendik. Euskal idazle kanonikoek ez bezala –Juan Antonio Mogel, Txomin Agirre, Jean Barbier edota Jean-Baptiste Elizanburu– Eñaut Etxamendi baserriko munduarekiko ahaidetasunean eta ahaidetasunetik idazten du, bizitako esperientziatik. Hots, Naturaren Poetikan, Etxamendiren narratiba autobiografikoa berritasuna da baserria gaitzat duen euskal literaturaren historian. Zentzu horretan, Etxamendik aparteko kontuan hartu beharreko posizioa dauka.

Hain justu, Etxamendiren obra literarioak euskal literaturaren historiografia urratzen du ezen bere obra literarioan «oinarri folklorikoak»³²³ bereizten direlako, euskal literatura garaikidearen baitan –momentuz– ikerturik dagoen kasu bakarra. Azpimarratu behar da Eñaut Etxamendik denbora folklorikoa

³²³ BAKHTINE, Michail (2004). *Esthétique et théorie du roman*. Paris: Gallimard: 488.

edo idilikoa bizi izan zuela. Hau da, gaztaroko bere denbora biografikoa folklorikoa izan zela. Baina historiara sartu behar izan zuen, euskal jendarte osoak historikoki egin behar izan zuen bezala. Honekin azaldu nahi dugu idazlearen bizian esanguratsua izan den pitzadurak Etxamendiren narratiban baduela leku, izan ere. Eta horrela uler daiteke, Etxamendiren narratibak iragan galdua abialeku eta geroaldi berria idazgai duela.

Munduaren pertzepzio sinestesikoan hazirik³²⁴, hezi gabeko pentsakizunaren ildoan lerrokatzen den idazlea da Etxamendi, erresistentzia emozionalak gidaturik.³²⁵ Idazkera literarioaren piztailea zauri intimoa bada, idazkeraren emaitza berriz, interpretazio politiko-literarioa da. Horregatik diogu Etxamendiren narratibak mitografia alternatibo³²⁶ baten jorratzea duela helburu, ezen injustiziak hunkitzen dituen zapalduen aldeko mito berrien asmatzea eta irakurleen hunkitzea baitu gogo. Zentzu horretan, Etxamendiren narratiba euskal abertzaletasunaren balio kulturaletikiko ekarlea izan da, nortasun kolektiboaren imajinarioa elikatzen jakin duelako.

Etxamendiren eraikuntza literario berezian, Basa-Sagarre³²⁷ bere habia literarioak duen garrantzia ezinbestekoa da. Etxamendik Basa-Sagarrerekiko duen harremana traiektiboa³²⁸ da. Horrek esan nahi du Basa-Sagarre ingurumena dela eta horren baitako izate oro –izan jende, mendi, animalia edo beste edozein– intimoki elkar loturik daudela. Horrek sortzen du Etxamendiren obra literarioaren kronotopia³²⁹, zeinetan espazioak denbora markatzen duen eta denborak espazioa ere bai. Azken batean, Basa-Sagarreren eta idazlearen arteko harreman sinbiotikoak Etxamendiren utopia literarioa sortzen eta ildokatzen duela.

Hasierako bere ibilbide literarioa kontuan harturik, pentsa daiteke Eñaut Etxamendi egoera paratopikoan dela. Halandaze, nekazari ondo, goi-mailako

³²⁴ BEAUPÉRIN, Yves (1994). «Au confluent du style oral et du style écrit, un découvreur, Marcel Jousse: sa vie, son œuvre, son actualité», *Euskera* XL: 87-108.

³²⁵ GOODY, Jack (1978). *La raison graphique. La domestication de la pensée sauvage*. Paris: Éditions de Minuit: 274.

³²⁶ NANDY, Ashis (2007). *L'ennemi intime. Perte de soi et retour à soi sous le colonialisme*. Paris: Fayard: 171.

³²⁷ Basa-Sagarre Ezterenzubiko auzoa da. Han jaio zen Eñaut Etxamendi, *Menddiburua* etxean.

³²⁸ BERQUE, Augustin (2010). «Logique des lieux de l'écoumène», *Communications*: 17-26. <http://www.cairn.info/revue-communications-2010-2-page-17.htm>

³²⁹ BAKHTINE, Michail. (2004). «Le chronotope du roman-idylle», in *Esthétique et théorie du roman*. Paris: Gallimard: 367-384.

ikasketaduna, klase ertaina bilakatuko den maila sozial berriko euskal kide, publikoki hitz egiteko pulpiturik ez eta publikoki pentsakizunak eta saminak adierazi nahi... zatidura asko dira jende bakarraren baitan kabitzeko. Etxamendik azpiratuen aldea hartzen du eta bere idazkeran nabari da bizitakoaren kontatzeko nahikeria. Hain zuzen ere, historikoki emazteak literatura-sisteman modu deserosoan kokatu izan baitira, Etxamendiren ibilbide literarioarekin konparatzeko maneran erabil dezakegu teoria literarioak erakutsia:

Une femme sachant écrire, (...) disposait d'une compétence qui lui permettait de se libérer des contraintes régissant sa relation au monde.³³⁰

Honela truka genezake: «idazten zekien nekazari seme batek (...) munduarekiko lotura kudeatzen zuten betebeharretatik askatzeko gaitasunak bereganatzen zituen». Horren ondorioz, menperatuen aurkako biolentzia sinbolikoaren³³¹ alorretik jalgitzen zen, hots, dominozentrismotik.³³²

Eñaut Etxamendiren ahots narratzailea, *каз* delakoa, aldi berean zehatza eta sinbolikoa dela borobil dezakegu, kontaearen zehaztasunaren eta irudien sinbolikaren bidez.³³³ Mendialde nekazariaren ekai literarioa lantzen du eta erakitze-printzipioan alegoria, oroimena eta gaurkotasunaren aipamena ditu. Ondorioz, Etxamendiren ahots narratzaileak besteak ez bezalako lekua merezi du euskal literaturan. Hala, industrializatu gabeko Garaziko jendeen biziak eta bizitzeko manierak deskribatzen dituenean, errealismo-efektua kultura-efektu bilakatzea lortzen du, eta horrek irakurlearengan autoetnologia³³⁴ efektua sortzen du. Izan ere, Etxamendiren narratibak komunitate diskurtsibo baten memoria³³⁵ argitaratzen duenean, horren partaide, auzo edo ikusle den euskal irakurlea inarosten baitu, introspektzio kulturala egitera bideratuz. Kasurako, *Dartemalda* ipuinaren parte den *Tiki taka* kantua, amaren oroimenez astoaren azazkalek harrien kontra egindako soinuaren haritik egindako kantua:

³³⁰ CHARTIER, Roger (2001) «Culture écrite et littérature à l'âge moderne», *Annales. Histoire, Sciences Sociales*: 783. www.cairn.info/revue-Annales-2001-4-page-783.htm

³³¹ SAÏD, Edward. *L'Orientalisme: l'Orient créé par l'Occident*. TODOROV, Tzvetan (Ed.) (1980). Paris: Seuil: 392.

³³² GRIGNON, Claude, PASSERON, Jean-Claude (1986). «Dominocentrisme et domino-morphisme», *Enquête*: 1-26. <http://enquete.revues.org/42>

³³³ PRIVAT, Jean-Marie (2009). «Parler d'abondance. Logogenèses de la littérature», *Romantisme*: 87. <https://www.cairn.info/revue-romantisme-2009-3-page-79.htm>

³³⁴ CNOCKAERT, Véronique, PRIVAT, Jean-Marie, SCARPA, Marie (2011). *L'ethnocritique de la littérature*. Québec: Presses de l'Université du Québec, (Approches de l'imaginaire 2): 300.

³³⁵ CHAMOISEAU, Patrick (1997). *Écrire en pays dominé*. Paris: Gallimard: 317.

Tiki taka tiki taka astoak zuen ama eraman / Bidez bide hinki hanka azken aldikotz meza bidian.³³⁶

Nondik ote dator Eñaut Etxamendiren narrazioek edo haiei josirik doazen zenbait kantuk sor dezaketen halako tristura gordina? Idazlearen esperientzia biografikoarekiko enpatia sortzen dutelako ote dira hunkigarri? Edo gure buruari, jende gisa, herri gisa, kultura gutxitu gisa, hainbat bizipen berdintsu bizi izan ditugulako, gure memoriak ez direlako diruditen bezain baketsu egiten ote dute?

Dudarik ez dago Eñaut Etxamendiren obra narratiboak kalitate eta berez-kotasun izugarriak dituela. Horien ezagutaraztea zen lan honen helburua. Etxamendiren obra narratiboak euskal literaturari buruzko zenbait galdera garrantzitsu zabaltzen ditu. Adibidez: loturarik ba ote dago euskal literatura dialektala lantzearen eta euskal esparru literariotik bazter gelditzearen artean? Euskal sistema literarioak sortzen ote du azpikotasunik? Bestela erranik, zein da euskal literatura-sistemaren «inkonziante kritikoa»³³⁷? Eta horren irizpideek zer leku uzten ote diote Etxamendiren narratibak barneratzen duen bezalako hizkuntza aniztasun «ez-babelikoa»-ri?³³⁸ Bestalde, Eñaut Etxamendi euskal herri-literaturaren narratzaile izanik, horrek zer gaitasun eskatzen ote dio Etxamendiren narratibaren hartzaileari? Hartzaileak herri-literaturaren kultura-efektua ulertzeko zer-nolako ezagutzak izan beharko ote ditu? Zer-nolako irakurketa estrategiak gauzatu beharko ote ditu?

Funtsean, euskal sistema literariotik euskal literaturaren historiara joanez, Etxamendiren obrak baserriaren euskal imajinario literarioaren arraberritzea eskaintzen baitu, ikuspegi konparatibistatik ikertzea pentsa daiteke Euskal Herriko zein Euskal Herriatik kanpoko baserriaren tematika jorratu izan duten zenbait idazlerekin. Adibidez, Euskal Herrian, XX. mende hasierako idazle kostunbristekin egin ondoren, Bernardo Atxagaren Obabako obrarekin egin daiteke. Frantziako hizkuntza minorizatueta, Etxamendiren narratiba Anjèle Duval idazle bretoiaren obrarekin aldera daiteke. Berdin, Suitzako Charles-Ferdinand Ramuz idazlearen narratibarekin. Europatik kanpo, Antilletako

³³⁶ ETXAMENDI, Eñaut (2013). «Tiki taka», in ETXAMENDI, Eñaut (2013). *Kantu eta Olerkiak VI*. Baiona: *Maiatz*: 30.

³³⁷ CASANOVA, Pascale (1999). *La République mondiale des Lettres*. Paris: Seuil: 504.

³³⁸ KLINKENBERG, Jean-Marie (2012). «La mutation des normes sociales et langagières. Conditions de production des littératures périphériques», in KASSAB-CHARFI, Samia (Ed.) *Altérité et mutations dans la langue: pour une stylistique des littératures francophones*. Louvain-la-Neuve: Academia Bruylant. I. Kapituluak: 17-29.

idazle kreoloekin ere parezka daiteke, herri-literatura eta baserriaren euskal imajinarioaren historiografia zehazteko.

Hauek hainbat galdera eta ikergai dira, bata bestea bezain interesgarri. Geroak horien erantzuten saiatzen lagunduko al gaituen gelditzen zaigun itauna dugu.



ERANSKINAK



1. EÑAUT ETXAMENDIREN OBREN CORPUSA –AURKEZPEN OROKORRA–

| Titulua | Izenpedura | Obraren deskribapena | Argitaratze data | Argitaldaria | Orri kopurua |
|------------------------------|---|--|---|---------------------------------------|--------------|
| <i>Laminak</i> | Rafael Intzaurreta | ELEBERRIA Atalka argitaratua; Goi titulua: «Ixtorio Misterio» | 1964ko urriaren 8tik 1965eko urtarrilaren 21 bitartean | HERRIA | 66 |
